

Zuzendaritza: Luis Antonio Bilbao Monasterio (kazetaria). Joan Mari Torrealdy

aurkibidea

	Zenbaki honetan	3
GURE ERITZIZ	Filosofo berriak: ilusio gabeko borroka	5
	Batasuna batasunean	11
FILOSOFO BERRIAK	Joan Mari Torrealdy	
	Filosofia berria prentsan	16
	Manolo Pagola	
	Filosofo berriak	24
	Joxe Azurmendi	
	Filosofia berria: krisi luze baten produkto	67
	Jon Sudupe	
	Merdel	112
	Xabier Andonegi	
	Berriz filosofoak	116
	Bibliografia	121
ORAIN ETA HEMEN	Bilbo Handia ala Bilbo Munstroa? (Joan Larrinaga). Batasunaren erasoak eta prentsa (Joanes Lekerika). Kantutegi bat dela eta (Endrike Knörr). Sarrio: urduri eta larri (Antonio Iraola). Alkoholismoa, gizarte arazoa (Unai Nabea). Nikaragua eta beste (Antonio Iraola). «Famak kurritzen du» (Joan Larrinaga). Noiz arte honela? (Joan Altzibar)	123

GAIAK	Endrike Knörr	
	F. Belaustegioitia: euskaltzale gartsu baten zantzoa	129
AGIRIAK	Euskaltzaindiaren adierazpena	132
LIBURUAK	Guardasola ahantzia (R. Etxezarreta)	133
	Sortzen I (Mikel Zalbide)	136
	Erdal liburuak Euskal Herriaz	137
	Jaso ditugu	138
GUTUNAK	R. Etxezarreta jaunari: Kritika «ezkritika» de- nean (L. M. Muxika)	139

Idazkaritza eta administrazioa	Gral. Mola, 23, 1.º esk. Donostia
Jabegoa	Anaidia, Arantzazu
Dep. Leg.	S. S. 25/1977

Zenbaki honekin, bi urteko aldia osatzen dugu. Ez da txanxetakoa, gure inguruan euskal aldizkariak (eta bestelakoak) sortzeko eta/edo irauteko zein neke handiak dituzten kontuan harturik. Bi urteotan, ahalik eta txukunen, egokien eta garaiz ateratzeko irakurlearekin genuen konpromezua betetzen saiatu gara. Lortu al dugu? Ongi etorriak izango dira zure eritziak, kritikak eta idarokizunak.

Goazen orain zenbaki honen aurkezpenarekin.

Gure eritziz sailean bi arazo azpimarratu nahi izan ditugu. Bat, gure oraingo gai nagusiari dagokiona, filosofo berrien fenomenoari alegia. Bigarren arazoa, kulturgintzan gabilitzanontzat biziki garrantzizkoa: Bergaran, Euskaltzaindiaren Biltzarrean euskararen batasunak egin zuen aurrera pausua.

Filosofia berria deitzen den fenomeno hori zer den eta zertan den aztertzen dugu gai nagusi bezala. Sarrera gisa, *mass media* filosofook erruz erabili dituztela eta, komunikabideetan ageri den filosofo horien irudia adierazten du J. M. Torrealdayk. Sakonagotik heltzen dio arazoari M. Pagolak: filosofo nagusitxoenen pentsaeraren lerro nagusiak arakatu ditu. Joxe Azurmendik, ideien mogimenduaren munduan situatzen du filosofia berriaren fenomeno hori. Azterketa honen ondoren, euskal filosofo zenbaiten eritziak bildu nahi izan ditugu. Nahiz eta gehiagori eskatu, biren erantzunak jaso ditugu: Jon Sodupe eta Xabier Andonegirenak. Azkenik, beti bezala, bibliografia batez burutzen dugu monografia hau.

Orain eta Hemen saila zenbakia arindu nahian dator gaur ere, hainbat puntu ukituz, azpimarratuz, salatuz.

Gaiak sailean, Endrike Knörr-en lantxo interesgarri bat argitaratzen dugu. Euskal idazle eta eragile bat ezagutzera ematen digu Endrikek: F. Belaustegigoitiaren euskaltzaletasunaren berri dugu hemen.

Liburuak sailean bidali dizkiguten liburuen azalpena egiten dugu. Argitaletxeek ez dute argitara-ahala liburuak bidaltzeko ohiturarik, eta pena da, ezin bait dugu liburugintza osoaren berri eman.

Gutunak sailean L. M. Mujikak bere azken liburuen kritikari egiten dion erantzuna ere agertzen dugu.

Agiriak sailean, dokumentu tipi baina inportante bat ematen dugu, nahiz eta askorentzat dagoeneko ezaguna izan: Bergarako Biltzarrea burutzean Euskaltzaindiak eman zuen azalpena.

Filosofo berriak: Ilusio gabeko borroka

Zergatik «Filosofo berriak»? Eta zertarako berriro gai hau, ez al du, bada, prentsak aski erabili?... Horregatixe hain zuzen. JAKIN-en bokazioa egunean eguneko informazio kulturala emanez joatea bada, orain «Filosofo berrien» berri ematea dela, uste du, bere obligazioa. Haien kanpaiak denok entzun ditugu. Baina ezin egon gintezke lau ideia sinple eta gaizki loturekin. «Filosofo berriak» zirela eta ez zirela, hamaika mila istilu ikusi dugu: ezkertiar desengainatu batzu omen dira, iraultza posibilitate oro ukatzen omen dute, ezkerraren uko biribilena ei ditugu, etab. Egia esateko, hautsak bapo arrotu dituzte «Filosofo berriok». Baina, egia esateko beti ere, prentsan nahiz telebistan ikusi eta irakurri ahal izan duguna, oso axal-axalekoa iruditzen zitzaigun, oso nahasia, sinplea, puxketak eta dena polemikoegi azalduta. Hainbeste informazio/deformazioak Filosofia eta Filosofo berrion azalpen sistematiko, garbi, koherente baten premia erakutsi zigun. Hainbeste zalaparta sortzen duten Filosofo berri horiek zer diren, jakin nahi genuen garbi lehenengo. Zer diren. Gero geroakoak.

Gainera, «moda» edo bihurtu izanak gaiari ematen zion gaurkotasuna ere, ez den dena. «Filosofo berriak» hor daude. Hor dabilta guztion ahoz-aho. Begiratu beharra daukagu, zer den, alde guztietatik inguratzen gaituen fenomeno hau, gure inguruko mundua ezagutu nahi badugu. Baina, horrezaz gain, hori baino larriago, zergatik dabil-tzan aho guztietan, galdetzen genuen. Eta polemika zaratatsu guzti haren azpian arazo larriak zebiltzala, agertu zitzaigun. Ezkerraren etorkizuna. Borrokaren zentzua, aska-

tasun posibilitateak edo ezinak, erakunde iraultzaileen erantzukizuna historian. Gizartearen etorkizuna. Bat-batean dena hauzitan zebilen. Dena polemika zen. Beraz, bagenekien, gaia irristakorra zela.

Hala ere, JAKIN-ek, axaleko topikoen gainerik «Filosofo Berriak» aztertu eta euskal irakurleari informazio zuzenakoa eta serioa eskaintzea erabaki zuen. Informazioa egokia izateko, ordea, pentsalariok hurbildik ezagutzea ez zen aski. Astintzen dituzten arazoan jatorri eta inguruaren berri ere eman beharra zegoen. «Filosofo berriak» era horretara plazaratzen saiatu gatzazkizu. Irakurle ohar-tuak badaki, esan gabe ere, hauen eritziekin ez dugula derrigorrez bat egiten.

«Filosofo berriak» frantsesak dira. Paristarrak, hobe. Badakigu, aspaldion aski entzun beharra izan bait dugu, Frantzia marxismoa krisian omen dabilela, ezkerre bera eta ezkertiarasuna omen dabilzala krisian, hauzitan omen dabilela tradizio iraultzailea. Ez dakigu, baina agian arrazoi sobera dago Frantzia, marxismoa, ezkerrearen ametsak, analisiak, programak, erakundeak, zeharo eta radikalki hauziperatzeko. Hemen, Euskadin, lehenago kritikatu beharrekorik badaukagu. Kontzentrazelaiak eta gartzelak beterik eduki dituztenak eta daukatenak, hemen, ez dira ezkertiarak eta ez da marxismoa.

Ezkerre, Frantzia, beharbada ez da egiazko alternatibarik eskuinari. «Filosofo berriek» hori ikusten badute, behintzat, ondo egiten dute esatea. Hemen, beste historia bat da, eskuina ere beste bat da, eta haren aldean ezkerre benetan alternatiba hobea izan litekeela uste izateko arrazoirik ez da oraingoz falta, bidegurutze historiko honetan. Gaurko Frantziako egoerak gure biharkoa izan behar badu, alde askotatik sinestarazi nahi digutenez, besteren buruan eskarmentatzera ailegaten ez bagara ere, abisatuta egon nahi dugu. Badakizkigu biharko arriskuak. Jakiteko moduan aldarrikatzen dizkigute «Filosofo berriek».

Inon baldin badago, inperio posfrankistan eta Euskadin dago anbiguitatez josita ezkerrearen kritika, zapalduen ametsen eta aspirazioen kritika, eskuinetik hala ezkerretik etorri kritika hori. Hala ere, ez ditugu edozein kritikaren aurrean belarriak itxi nahi. Alderantziz, zapalduen artean hain zuzen ere, kritikak entzuten eta artaz begi-

ratzen saiatu nahi dugu, kritika artean bizitzen ohituz joan nahi dugu, demokrazia eta errespetoa ikasten, bestela inork ez bait digu hori sekula irakatsiko, zapalduok geuk elkarrri ez bada. Nekez irakatsiko liguke holakorik, ia mende erdi bat osoa, eritzi diferentzia eta kritika oro zanpatzen aritu denak. Zapalduok gure asmoak nola formulatzen eta bideratzen ditugun, kritikagarri izanen da. Kritikagarri izanen dira gure ametsak, borrokak, erakundeak, instituzio batzuk eskuratu nahia, Botere piska bat irabazteko ahaleginak. Baina gure borroka, kritikagarri eta guzti, hortik pasatzen da. Jakin behar duguna, eta «Filosofo berriek» zuzenez gogoratzen digutena, formula-zio eta ideologiak, erakunde eta instituzioak behinere ez helburu eta jomuga bihurtzea da. Gure borroka ez da ideologiaren baten borroka, ez da instituzioren batzu eskuz aldatzeko borroka. Askatasuna ez da instituzioena, gizonaren beherra eta dohaina baizik. Ezin nahas genezake bidea helburuarekin. Baina ezin nahas genezake mundu honetako edozeren kritikagarritasuna edozeren berdintasunarekin. Hori baldin bada, kritikak adierazi nahi diguna, eta gure borroka bazterrarazi nahi badigu, entzun bai, baina oso kritiko entzun beharko ditugu geuk ere kritika horik.

Filosofo berriak ere kritikoki hartu beharra dago. Esate baterako, nola uka marxismoa, ideologia dogmatiko, itxi eta interesatua den heinean, zientzien, pertsonen eta herrien eskubideentzat kate eta zapalbide izan dela eta dela? Baina nola uka ere marxismoak askatasun borroka asko sortu eta bideratu duenik?

Ukazio biribil eta radikalak erakarmena eta atxekimendu beroak aisa irabaz ditzake, profetismo orok bezala. Dena zero, dena infernu. Baina alternatibarik iragartzen ez duen profeta politikoa, etsipenaren aldarrikatzaile merkea besterik ez da, eta historiako presoekin guztien laguntzaile. Filosofo berriak ez dira arrisku hontatik libratu. Gaurko sistema sozialak eta hauen ideologiak kritikatzekoan duten begi zolia, lausotu egiten zaie etorkizunari begiratzeko unetik. Horregatixe, noski, begi onez ikusi ditu eskuinak, bere jokuan erraz erabil ditzakeelako hain zuzen, Frantziako iaizko hauteskundeetan ikusi genuenez.

Baina filosofo berriak ez dira 68ko maiatzeko frakasoak minutuko gazteria desengainatuaren fruitu mikatza soilik

ere. Fenomeno hedatuago eta sakonagoaren sintoma dira. Mende hontako gerrateek, ezkerraren etengabeko frakasoak, ideologiaren krisiek, izpiritu eskeptiko, negatibo eta pesimistarik frango sortu dute bazterretan. Pariseko intelligentzia, ezinegon konformagaitz honetxek jota omen dago arrunt. Filosofo berriak egoera honen adierazpen ere badira, gure ustetan. 68ko maiatzaren porrota, errebol-tatu eta iraultza guztien esperantzak beti ezagutu duten porroten katea luzearen eraztun bat da. Eta egia esan, askatasun borrokek zertan bukatu diren begiratuta, ez da teoria pesimista eraikitzeke datorik falta.

Korrante pesimista hontatik askatasun borroka denak desmitifikatu nahi dituzte filosofo berriek. Ez dago erakunde, alderdi eta estatuetan askatasun esperantzarik jartzetik, diote filosofo berriek. Goikoak behekoa beti menperatzen du, nagusiak herria zapaltzen du, eta nagusigaiak bere aurrekoa. Instituzio, administrazio, gidari demokrati-koena ere zapaltzaile bilakatzen da, botereak ukitzen duen ordukoxe. Nagusiak truka daitezke, bai, baina denengan gose totalitario berdina topatuko duzu, boterea holakoxea bait da berez.

Beraz, filosofo berriek egiten duten borroka eta erresistentzi oihuak ezin du askatasun promesa engainagarrietan oin hartu. Nagusi onik ez dago, ez eta egongo. Borroka egin behar da, hala ere. Baina irauteko. Hobetzeko esperantzarik gabe.

Filosofo berriek zerbitzu ederra egin diezagukete, boterearen arazoa berriro eta sakonki planteaziz, eta honen berezko mekanismo zanpatzaileak larru gorri gorritan agertzuz. Bestelako analisiak eta bestelako esperantzak irakatsi izan bait dira eta zabaltzen bait dira oraindik.

Filosofo berriek arrazoi dute zera eskatzen dutenean, alegia, era guztietako nagusi, jauntxo, gidari, zuzendari, lehendakari, buruzagi eta idazkariren aurrean, basea, herria, asanblada, mendekoak iratzartzeko eta indartzeko. Arrazoi, ordenu berririk ekar dezan inolako iraultzarekin liluratzetik ez dagoela aldarrikatzen dutenean. Arrazoi, harreman sozio-ekonomikcak aldatuagatik aginte politikoa ez dela, besterik gabe ez desagertzen ez ikaragarri aldatzen frogatzen dutenean.

Baina, uste dugunez, arinegi berdintzen dituzte historiako errejimenak oro. Errazegi. Esklabismoa eta langileria

kapitalista ez dira gauza bera. Hitler ez da Schmidt. Ez dira berdin Gulag, Dachau eta Carabanchel. Bada diferentziarik. Botereak, bere anbiguitate beldurgarri eta guzti, aldaketarik, aurrerapenik eta askatasunik ekarri du. Boterea ez da menderakuntza bakarrik, historia ez da Botere historia bakarrik. Gizonak borroka luzez lortu dituen konkistak ere historia dira.

Filosofo berriek askatasun esperantza bera eta honen kideko kontzeptu humanista asko errazegi botatzen dituzte lurrera. Neke asko kostatzen zaizkio gizadiari lorpen teoriko eta praktikoa horik, orain hain merke eta debaldetan saltzeko.

Baina nahiz eta Euskal Herria ez izan Paris eta beraz momentu historiko desberdin batetan ibili, uste dugu filosofo berriok badutela guretzat zer erakutsirik.

Gure artean ere politikaren desilusioa zabalduz doa. Efikazia ezagatik nahiz ikuspegi moralistegiagatik. «Demokrazia» estrainatu berri zenean, gure problemak oro laster eta aise konponduko zirela uste zen, beharbada. Gaur, erakunde politiko berriak gorabehera, luzetuz doa epe hori. Bestetik, bagenekien politika ez zela gauza garbirik, baina urrutitik eta erdi isilka bakarrik jakin genezakeen azpizoko eta maltzurkeria eta satorkeria guztien berri. Gaur, aldiz, gertu gertutik dakigu, egunkarien eta gure gizon eta alderdi politikoen bidez. Hortik sortu da askoren baitan politikarekiko eta politikoekeko nazka, mesfidantza, desilusioa.

Desilusioak, baina, ezin gaitzake besamotz bihur. Kontrara baizik: errealismo politikora deitzen gaitu, begiak zabalik amets ez egitera. Guk, Euskadin, premiazkoa eta presazkoa dugu, geure erakunde, instituzio berrien antolakuntza. Bere anbiguitate guztiekin ere, agintea behar dugu. Hori gabe, askatasun bidean atzerago egon gara eta. Errealismo politikoak ekintzara, erresistentziara deitzen gaitu, ez besoak tolestatzera. Nahiz eta jakin Estatutua, euskal agintea, eta abar, ez direla, besterik gabe, askatasuna. Nahiz eta ondo jakin biharko eta etziko Euskal Herri «askatua» ere ez dela inongo zeru distiratsurik izango.

Gure ustetan, filosofo berrien ekarriak ez gaitu eraman behar militantzia ukatzera, epeltzera, baizik eta argitzera: amets zoroak erretzera, ideologiak eta segurtasun dogmatikoak erlatibizatzen. Eta beti ere, beste ezeri baino gehiago, baseari eta baseko lanari begiratzen.

Batasuna batasunean

JAKINek lehengo lepotik du burua. JAKINen batasun zaletasuna ez da oraingoa. Gure historia lekuko, gauza pare bat gogoratu nahi genuke. JAKIN izan zen, aldizkari eta talde bezala, 1964ko Baionako batasun bidea onartu zuen lehena. Eta duela hamar urte, Idazleen Ermuako Bileretako hitzaldiak argitaratuz, Arantzazuko batasunari bultzada eman zion. Gerora, batasun hori aldarrikatuz, eta inportanteago dena, praxiaren bidez batasun hori finkatuz eta osatuz jarraitu dugu.

Oraingoa ere, hurbildik jarraitu nahi izan dugu Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrea, bai prestakuntzan eta bai Biltzarrearen ospakuntzan bertan. Biltzarre hori, irailaren 4tik 8ra bitartean ospatu zen Bergarako Seminarioan, Eleizalde jaunaren mendeurrena ospatuz, eta Arantzazuko Biltzarretik hamar urtetara.

Biltzarre ireki honen gai nagusia, euskararen batasuna zen. Hamar urteren buruan, arauen ber-azterpena egingo zela Arantzazun hitzemandu zuen Euskaltzaindiak. Aita Villasantek sarrera hitzaldian adierazi zuenez, Bergarako Biltzarraren helburu nagusienetako bat hauxe zen:

Arantzazuko arauak eman direnetik hamar urte igaro dira. Ber-azterpen bat egin behar da orain, arau haiek zer harrera izan duten ikusteko.

Eta zer da ikusi dena? Datuak gogoratu beharrik ba al dugu?

Hau da Euskaltzaindiak berak ikusi duena, azken eguneko adierazpen agirian aldarrikatu zuenez:

Biltzarrerako egin diren azterketei esker, garbi ikusi du duela hamar urte Arantzazun eskainitako batasun asmoak eta arauak izan duten baietza eta eragina.

Baietza eta eragina. Egia da. Aski frogatua gelditu da Euskaltzaindiaren eskaintza, herriak onartu duela. Onartu eta aurrera eraman, hainbeste idazle, eragile, alfabetatzaile eta irakasleren lan aspergaitzari esker.

Bide luzea dago Arantzazutik Bergarara. Arantzazuko eta Bergarako Biltzarren artean nabaria zen alde; ahobatez aitortua. Urrats kualitatiboa gertatu da bien bitartean. Biltzarrean aurreko zen soziologi eta estadistika lanak, Arantzazun ereindako haziak lur hartu duela eta erroak eginak dituela erakutsi zuen. Etorkizunari buruz Arantzazun egindako apostua atera da garaile. Horrek du etorkizuna. Berekin ditu batasunak gehiengoa, eta dinamika. Nahiz kultura idatzian, nahiz irakaskuntzan. Ez da beste aposturen beharrik, konplexurik gabe joka dezake aurreantzean Euskaltzaindiak, Bergarako adierazpenaren bigarren puntuan agintzen duena betetzen:

Hori horrela delarik (batasunaren onarpena, alegia), orduan hartu zen bidetik, euskararen batasun lanak aztertea, sakontzea eta aintzinatzea nahi du.

Hitza eman du Euskaltzaindiak: batasuna aztertu, sakondu eta aintzintatu nahi du. Eta jadanik hasia da hitza betetzen: dagoeneko Batzorde berezituak sortu dira, hizkuntz-alorrek banan banan aztertzeko, eta batasun bide zehatzak proposatzeko.

Dinamika berri bat eman dio Bergarako Biltzarrak Euskaltzaindiari, bere buruan konfiantza. Datuak eskutan, badaki orain ingurunea interpretatzen, hauzi bakoitza zertan den, zer den heldurik, non diren hutsuneak, non erresistentziak.

Bergarako Biltzarra, bada, onuragarria izan da oso. Askoentzat terapia, elkarri entzun diogu. Tentsioak baretu ote? Eten eta haustura berririk ez da sortu behintzat. Joera guztietako jenderik izan zen han, gainera.

Konstatazio pare bat azpimarratu nahi genuke: bat, burruka, behar zen eremura ekarri dela, alegia, hizkuntz-jakintzara, politizatze arinegiak eta demagogiak aldentuz. Eta bi, batasunaren aurkakoek ekintzan, dela prentsaren bidez egin denean, dela Bergaran bertan, ez da alternati-

barik eskaini. Eta eskainita ere, aukera berriak onarpenik duenentz jakiteko, hamar urteko epea eman beharko litzateke berriz. Eta gero gerokoak. Ba al dugu asti horren luxoa hartzeko eskubiderik?

Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarre honek epe bat ixten du, eta berri bat hasten. Esperimentu gisa eskaini zen Arantzazuko batasun-asmoa. Hamar urteren buruan aldi hori amaitu da, eta ondo amaitu ere.

Batasuna osatzeari ekin behar zaio orain. Nahitaezkoa da hizkuntza standard bat lehenbailehen lortzea. Egoera soziopolitiko berri baten atarian gaude, eta euskara Euskal Herriaren hizkuntz osoa nahi dugunontzat, hizkuntza batu eta standard bat baldintza minimoa da. Ofizialduko bada, instituzionalduko bada, gizarte osora hedatuko bada, komunikabideetan erabiliko bada, euskara bakar eta guztion hori urjentziarik handienaz erdiestekoa da. Urjentziaren kontzientziaz heldu behar diogu langintzari.

Batasunerako bidean ari diren Erakunde eta Elkarrekin guztiekin premiazko harremanak indartzeko nahia aditzera ematen du (Euskaltzaindiak).

Urjentziaren premiak eta lanaren handiak bultzata egingen du dei hau Euskaltzaindiak. Erakunde honen gidaritzapean, elkar lan hori premiazkotzat jotzen dugu. Bada denentzat lekurik, euskara kultur hizkuntza eta euskaldun guztion mintzaira bihurtzeko lana luzea bait da.

AGUR, IDAZLE:

Azken bi urteotako 8 zenbaki hauetan, 67 idazle ezberdinek hartu du parte JAKINen.

Zuretzako ere bada lekurik. Baduzu non idatzi; monografiak aparte ere hor dituzu: **Gaiak** saila, lan sakonentzat, **Orain eta Hemen** saila nota laburrentzat, ...**hainbat aburu** saila eritzientzat, **Kultur bi-deetan** saila kultur gaientzat, **Gutunak** saila esku-titzentzat, eta beste.

Euskal idazle, irakasle, alfabetatzaile, irakurle: erabil JAKINeko orriak.

Dei berezia: idazle berri eta gazteen ekarria behar dugu. Idazle berrien harrobi izan da lehen ere JAKIN. Berrien sortzaile behar dugu izan orain.



j. m. torrealday
m. pagola
j. azurmendi
j. sudupe
x. andonegi

FILOSOFO BERRIAK

Filosofia berria prentsan

Pariseko moda? Marketing filosofikoa? Fenomeno honi buruzko eritziak. Hamaikagarren orduko langileak filosofigintzan.

Filosofa berriak

André Glucksmann. Bernard-Henri Lévy. Jean-Marie Benoist. Jean-Paul Dollé. Guy Lardreau. Christian Jambet. Murice Clavel.

Filosofia berria: krisi luze baten produkto

Iraultza sobietarraren inguruko krisia. Stalinismoa dela eta. Sozialismoa dela eta. Marxismoaren krisia eta banaketa. Ezkerraren krisia. Ereduen krisia.

Merde!

Marxismoaren krisia. 68ko maiatza eta Soljenitsyn. Ezkerkeriaren porrota.

Berriz filosofoak

Alderdikeriaren susmoa. Marxismoa kritikatzeko. Filosofiaren beharra.

Bibliografia

Filosofia berria prentsan

Joan Mari Torrealday

Artikuluxka honetan oso arinki lotuko gatzazkio gaiari. Filosofia berria dela eta, prentsa idatzian agertu izan diren idazlan batzuen berri ematea da gure asmoa. Artikuluz artikulu joanez, eritzi emaleen lumatik filosofia berri honen ongaitzak hurbilgotik ezagutzeko aukera izango dugu, filosofo berrien pentsaera eta irudia argi berriz ikusi ahal izango ditugu. Eta honela, bidebatez, *mass media*en garrantzia azpimarratuko dugu, prentsa izan bait da protagonistarik handienetakoa filosofo berrien arrakastaren fenomenoan.

Pariseko moda?

Duela urtebete *Time* astekari famatuak titulu hau eman zuen azalean letra handiz: «Marx is dead. France's 'New Philosophers' Speak Out». Eta barruan, filosofo berriei buruz dossier oso bat. *Time*ri esker, merkatu anglosaxonera sartzen dira filosofo berriak.

1977ko irailean zen hau.

Ordurako, udaberrian, Frantzia modan egonak ziren. Parisen sortua eta oratua bait da «filosofia berria» deitu fenomeno hau. Parisetik dator

notizia, beraz; azkartasun biziz hedatua. *Mass media* direlako bidez eta bitartez zabaldua. Eta hain zuzen, hau ere gertakari berria da, hots, filosofia prentsari esker ezagutaraztea.

Ez dago zalantzarik: arrakasta inbidigarria izan dute «filosofo berri» hauek. Europako mendebalean behintzat. Ikusi besterik ez dago zenbat mintzatu den prentsa filosofo berri hauek direla eta: nahiz berauen eritziak, pentsaera, jarrerak, jokabideak, nahiz hauei buruzko eritzi emateak, estudioak, dossierak, etc. Jarraiko komunikabide hauen bidez behintzat, filosofoon berri ukan ahal izan dugu: *Le Nouvel Observateur*, *Le Point*, *L'Express*, *Les Nouvelles Littéraires*, *Play-Boy*, *Le Monde*, *L'Humanité*, *La Croix*, *Cuadernos para el Diálogo*, *Ozono*, *El Viejo Topo*, *Cambio 16*, *La Vanguardia Española*, *El País*, *El Diario Vasco*, *La Voz de España*, *Zeruko Argia*. Hauetako batzuk artikulu erdi edo pare batekin aski izan dute. Beste asko, ordea, arazo hauetara behin eta berriz itzuli dira, hala nola, *Le Nouvel Observateur*, *Ozono*, *Cuadernos para el Diálogo*.

Nekez uka daiteke, bada, filosofo berri edo direlako hauk modan daudenik (edo egon direnik). Zein da, ordea, arrakasta edo moda honen arrazoia? Gure gizarteko hauek muin muinean ikutu ote dituzte? edo gure gizarteko teknikak erabiltzen asmatu ote dute, batipat prentsa erabiltzen?

Batzuen eritzian, marketing ongi eraman bat besterik ez dago gertakari honen sustraian. Filosofia merkantzi bihurtzeko abilezia izan dute. Aldarrikatu nahi duten mezuak ez du batere muntarik. Ez dator hortik hauen entzutea. Eta bai publizitatearen teknikaren erabileran maisu agertu direlako. Literatur promozioak baduke parterik; izan ere Bernard-Henri Lévy —filosofo berri hauetan burrukalariena— *Grasset* editorialeko hiru kolekzioren buru bait da, eta *Grasset*-ek atera bait ditu hauen azken urteotako libururik gehienak.

Beste batzuk, giro eta inguru politikoa azpimarratzen dute. Gilles Deleuze (*Cuadernos*-en) eta Paul Valadier (*La Croix*-en) filosofoek ahobatez aipatzen dute puntu hau. Iaz, hauteskundeak zirela eta, pilpilean zegoen giro politikoa Frantzia. Iaz sortu zen hauen moda, nahiz eta «Marx est mort» liburua 1970ekoa izan, eta «La cuisinière et le mangeur d'hommes» eta «Tyranie du Logos» eta «La Révolution structurale» 1975koak izan. Gaurkotasun politikoaz aparte, manipulazio antimarxistak ere baduke hor zerikusirik. Gainera, publikoaren aurrean agertu, filosofo hauen ideia filosofikoak baino gehiago beren jarrera eta eritzi politikoak eta polemikoak agertu izan dira.

Eta azkenik, arrakastaren azken arrazoi bezala, oso gogotan hartzekoa iruditzen zait Deleuze filosofoak aipatzen duen arrazioa: *mass mediaen* indarra. Salakuntza gisa mintzatu da Deleuze, eta idazten du, filosofo berri hauek filosofigitan ihar-dun ordez, *mass media* eta komunikabideen morroi bilakatu direla. Hauen fama, liburutan idatzi dutenetik ez baino prentsan idatzi eta esan dutenetik dator. *Mass mediaen* irudiko filosofoak lirakeke hauk, minutu erdiko pentsaerakoak.

Marketing filosofikoa?

Kuriosoa da filosofo berri deitu hauen inguruan gertatu dena. «*Le Nouvel Observateur*»-en Edgar Morin-ek erabili duen irudiaren bidez esanaz, «Intelligentzia Saloon» horretako zokoan sorturiko hasierako errieta hura, hasarre orokor bilakatu da gerora. Denak denen kontra burrukatzen dira.

Errieta honetan, filosofo berri hauen oso alde agertu dira batzu, eta oso kontra beste batzu. Azkeneko hauen artean aurkitzen dira Deleuze, Lacan, Debray, Castoriadis, Elleinstein, Poulantzas, Salini, Raymond Aron. Aldekoen artean daude: Sartre, Chomsky, Henrich Böll, Philippe Sollers, Jean Daniel, Edgar Morin, eta gure artean Savater eta beste.

Ikus ditzagun batzuen eta besteen eritziak.

Esana dugu: batzuen ustean, filosofia berria deitzen den fenomeno hau ez da zera besterik, alegia, manipulazio politikoa, publizitatearen fruitua, *mass mediaen* sorkuntza. «Nouvelle Philosophie» ez baino «Nouvelle Droite» omen da hori.

Frantziako Alderdi Komunistak hasieratik erabaki zuten: ez filosofo eta ez berri dira horik. Castoriadis-ek ere eritzi bere-tsuak egotzi ditu.

Gilles Deleuze ortodoxoarentzat ere ez dute baliorik. Hona zer idatzti duen berak Cuadernos-en:

«Yo creo que su pensamiento es nulo. Yo veo dos razones posibles a esta nulidad. Primero, ellos se sirven de conceptos muy generales, la Ley, el Poder, el Maestro, el Mundo, la Rebelión, la Fe, etc. Así llegan a realizar mezclas grotescas, dualismos superficiales, la ley y el rebelde, el poder y el ángel. Al mismo tiempo cuanto más débil es el contenido del pensamiento, más importancia toma el sujeto pensante y se da más importancia al vacío de sus enunciados...»

Paternalismo handiz epaitzen ditu Cambio 16 astekarian Raymond Aron soziologoak:

«(Lévy) es un muchacho simpático pero yo no llevo a considerar que su libro represente un momento del pensamiento humano. Es la expresión con éxito de un estado de ánimo parisiense. Gran parte de sus ideas se encontraban ya en otros libros. (...) El libro de Glucksmann «Les maîtres penseurs», que fue alumno mío, yo lo dirigí durante años y lo conozco bien, es un muchacho inteligente... Pero en fin..., condenar en 200 páginas toda la filosofía alemana, a golpe de citas extraídas de forma arbitraria... Yo no lo tomo muy en serio.

En mi opinión, lo de los «nuevos filósofos» también se ha acabado. El pensamiento parisiense, al menos en la superficie, cambia como la moda femenina...»

Filosofo berri hauen lanetan eta jarretetan balio positiborik aurkitzen duenik bada, noski. Hauentzat, filosofo berrien meritua ez da askotan ideien mailakoa. Hala ere, aportazioa originala ez denean ere, aidean dabilten kezka eta zalantza batzuei, izpiritu kritiko bati, formulazio koherentea ematea ez da guti. Beste batzuentzat, Jean-Luc Marion eta Eugenio Trias filosofoentzat esaterako, gauza guztien gainetik sintoma balioa dute filosofo hauek.

Jean-Luc Marion frantses filosofo gaztearentzat, egiazko sintoma da filosofia berria, azpi azpian gertatu izan den eboluzioaren erakuskari:

«(...) il s'agit d'un pur et simple symptôme, rendu possible par une évolution de fond qu'il n'a ni provoqué ni même analysée. A titre de symptôme, l'intérêt en fut d'emblée réduit à la question politique, mais il renvoie, obscurément, à une évolution philosophique sérieuse et profonde. Il faudrait, au lieu de se laisser masquer par cette actualité, ou la contester seulement, revenir sur les enjeux proprement philosophiques correspondants. Ce rôle de symptôme —j'y insiste— reste très remarquable, quand on songe à la situation philosophique ou paraphilosophique qui déployait son orthodoxie pesante il y a encore quelques années...»

Eugenio Trias filosofo katalanarentzat ere halatsu dira, sintoma behintzat. Hala idatzi zuen *Eginen*:

«(...) Como síntoma es interesante en la medida en que ya era hora que se cuestionara el marxismo con una cierta radicalidad. Que se haya hecho bien o mal, eso ya es otra cuestión, pero por lo menos alguien se ha atrevido a hacerlo. Eso me parece positivo, y, en cierta manera, desinhibe, rompe una serie de tabús que pesaban bastante sobre la reflexión filosófica. Cuestiona lo que tenía de poder —de dominio— la Filosofía marxista. Está bien

que se questione lo que tenía de pretensión de pensamiento hegemónico y totalizador se corresponde una organización de la sociedad también con pretensiones hegemónicas y totalizadoras, me parece interesante (sic). No es que ellos lo hayan hecho por primera vez, sino que han articulado ideas que flotaban...»

Marketing eta moda? Bai, hori dena bai, baina gehiago ere bai. «Zarata» eta «mezua» bereiztu behar dira, Morin-en ustetan, eta zarataren aitzakian ezin daiteke hondoko ideologia, funtsa, ahantzi. Filosofia honen abiapuntua honetan datza, Morin soziologoak dioenez:

«Le problème radical, d'où tout est parti, est celui de l'insuffisance radicale d'un schéma de pensée dit de gauche qui prend appui sur des notions banalisées d'un marxisme lui-même sclérosé.»

Edgar Morin filosofo honen gardiz, bada, filosofo berrien galderak eta salakuntzak, horregatixe, ez dira haienak bakarrik, esperientzia historikoaren ondorio direnez, egiazkoak eta gutxiak baizik. Esaterako: zampaketaren, menperaketaren eta kapitalismoaren arteko lotura, Sobiet Batasuneko eta Chinako esperientzia eta totalitarismoa, marxismoaren argipen-ahaltasuna edo eza, Marxen pentsamentuaren mugak, Sobiet Batasuneko sozialismoa edo eza, Sobiet Batasuneko kontzentrazio-fenomenoa... Hauzi hauek denak plaza publikoan planteatzeko ausardia izan dute filosofo berriek. Eta hauziok denon burutan eta ahotan dabilzanak dira, nork uka?

Filosofo berri hauen ekarria, fenomeno komertzialetik arago doana da Paul Valadier filosofoarentzat ere, *La Croix* egunkarian agertu duenez. Filosofo berrien pentsaeran bi puntu azpimarratzen ditu honek. Lehena, zera frogatzen dutela, alegia, gure gizarteaz eta etorkizunaz egin ohi diren galdera pila bati erantzuteko, ereduak sortzeko, giza zientziak ez direla gauza. Eta bigarrena, Mendebaleko arrazionalismoaren kritika oso gogorra egiten dutela, zientzia eta politika ez direla historikoki gizonaren liberazio gertatu frogatzen dutela.

Fernando Savater filosofo euskaldunaren eritzian, bide berrien bilaketa bait da filosofo berri hauen lana, saio horrek badu meriturik.

«(...) el movimiento de un tipo de filosofía que intenta sacar algunas conclusiones de la filosofía magistral de un Foucault sin caer en los planteamientos de la izquierda tradicionales me parece una cosa sugestiva, interesante, aunque luego produzca unos réditos más o menos escasos...»

Hamaikagarren orduko langileak

Baina zer da filosofia berri hori? Eta zeintzu filosofo berriak? Filosofia berria ez da eskola bat.

«Nobedade» bat da, esango du Deleuze-k. «Paristar moda» esan du R. Aron-ek.

Talde jakin, ezagun eta eratu bat ere ez da filosofo berrien hau. Kondizio hauetan, zeintzu diren zuzen zuzen jakitea ere ez da erraza. Hala ere, Frantziari gagozkionez, badira izen ezagunak, *mass mediatan* sarri agertuak. Filosofo berriok «Ecole Normal Supérieure» delako Frantziako Eskola sonatutik igaroak dira edo filosofi irakasle. Gazteak dira: bat edo beste salbu, 1937 eta 1949 urte bitartean jaioak.

Ikus ditzagun banan banan zeintzu diren: André Glucksmann (42 urte) C.N.R.S. iker-erakundean ikertzaile; Bernard-Henri Lévy (30 urte) *Grasset* editorialean «Figures», «Théoriciens» eta «Enjeux» sailak zuzentzen ditu; Jean-Marie Benoist (37 urte), irakasle eta «Presses Universitaires de France» argitaletxean «Croisées» kolekzioaren zuzendari; Guy Lardreau (32 urte), irakasle; Christian Jambet (30 urte), irakasle; Philippe Nemo (30 urte), irakasle eta «France Culture»-ko emankizunen arduradun; Jean-Paul Dollé (40 urte), irakasle.

Aipaturiko hauk dira beti beti filosofo berrien artean kontatu ohi direnak, edozein zerrendatan ikus ditzakezunak. Zerrenda ez da hemen agortzen, askorentzat. Beste hauk ere sartu ohi dira sarri: Michel Guérin (33 urte), Françoise Lévy eta Maurice Clavel...

Filosofiaren «enfants terribles» hauk nondik datoz, non sortu da hauen pentsaera? 1968ko Maiatza aipatzen dute denek. Althusser, Foucault eta beste zenbaiten ikasle ziren artean. Marxistak ziren. Maoista sarri. Gerora, sakabanaketa gertatu zen. Bide desberdinak aukeratu zituzten, bai ideologian eta bai praxian; bai pentsaeran eta bai politikan. Giscardianoak ere badira hauen artean: Nemo eta Benoist.

Elkarrekin harremanik gabe bizi ziren. 1973an bildu arte. 1973ko udan, Maurice Clavel-ek deiturik, 11 gizon bildu ziren Parise ondoko Vezelayn. Honela deskribatzen du Lévyk beretako askoren ibilbide eta duela bospasei urtetako giroa:

«Nosotros llegábamos después de la batalla. (1968). Después de los importantes trabajos de Foucault, de Lévi-Strauss y Morin. Eramos obreros de la hora undécima. Ciertamente que, de vez en cuan-

do, luchábamos contra los fascistas, pero a fin de cuentas, éramos muy buenos chicos. Nuestros ojos se habían vuelto hacia lo normal, donde algunos seguíamos los seminarios de Althusser y de Lacan que oficiaban en la calle Ulm, ese lugar mágico al que deseábamos poder volver».

Liburuak non argitara eman ere badute orain. Esan dugunez, *Grasset* argitaletxeko hiru liburu sailen buru da Lévy: *Figures, Théoriciens, Enjeux*. Editoriale honetan aterako dira artean egin da edo egingai zen hainbeste liburu. Marketing publizitarioaren fenomenoa ere honi lotua dago.

Agian, hauen okerra «filosofia berri» deitzean dago. Berritasunari gagozkiolarik, egia da ez direla sakon sakonean originalak, pentsaera berri baten sortzaileak. Hauek egin ohi duten kritika asko eta asko aspaldianikoak dira, Bigarren Gerra aurreko marxistak, Francforteko Eskolakoak eginak. Filosofo hauen pentsaeraren iturriak ere, beste askorenak dira: Nietzsche bat, Heidegger bat, Husserl bat, Freud bera. Meritua, Paul Valadier-en ustetan, ez datza berritasunean, baizik eta tesiok «avec brio et clarté»,) ausartki, argi eta garbi, agertzean.

Ez filosofo eta ez berri izango dira, nahi bada; baina arrakasta hau ez da hutsaren parekoa. Ez da publizitate hutsa: inongo mezurik eta sakontasunik ez duenari ezin diezaioke publizitate soilak eman holako audientziarik, sakontasunik eta hedakuntzarik. Marketing dela eta, mugimendu bat deskalifikatzea ez da zuzena, hondoa izkutatu nahi ez denean. Eta hala egin nahi izanez gero ere, benetako galderak, egiazko hauzi larriak zutik diraute. Arrakasta honek, eta sortu duen hasarre horrek, gutienik hau adierazten dute: tabu guztien aurka «enfants terribles» hauen ausardia, hauzi larri batzuen plazaratzea.

J. M. T.

LA NUEVA FILOSOFIA EN LA PRENSA LA NOUVELLE PHILOSOPHIE DANS LA PRESSE

Una de las características sociológicas del fenómeno de la nueva filosofía es la utilización que hace de la prensa. Gracias a su presencia constante en la prensa han logrado sus protagonistas la popularización de la así llamada nueva filosofía. Nosotros, aquí, tratamos de perfilar la imagen de estos nuevos filósofos tal como han aparecido en la prensa.

Ante el éxito de la nueva filosofía, todos los comentaristas empiezan

por preguntarse de qué se trata. Para algunos, es una moda parisina, semejante a la moda femenina. Para otros, el éxito se debe exclusivamente al montaje de un marketing literario. A estos factores habría que añadir el ambiente político francés pre-electoral del año pasado, que sin duda ha favorecido su propagación.

Publicidad? Marketing? Manipulación política? Mientras para unos la nueva filosofía se reduce a esto, para otros esta nueva filosofía ha conseguido formular y articular ideas que flotaban en el aire. Este fenómeno filosófico tiene sobre todo valor de síntoma de una evolución de las ideas en profundidad. La nueva filosofía rompe esquemas, supera tabús, cuestiona el racionalismo occidental, plantea problemas candentes, problemas como el fenómeno concentracionario de la Unión Soviética, su socialismo, los límites de la filosofía marxista...

Estos «enfants terribles» de la filosofía, estos trabajadores de la undécima hora en la reflexión filosófica, son jóvenes profesores, que tienen en común la experiencia de Mayo 68, pero que no forman escuela y ni siquiera un grupo homogéneo.

Une des caractéristiques sociologiques du phénomène de la nouvelle philosophie est l'utilisation qu'elle fait des mass media. Grâce à sa présence constante dans la presse, ses protagonistes ont atteint la popularité de la dite «nouvelle philosophie». Essayons ici de profiler l'image de ces nouveaux philosophes telle qu'elle apparaît dans la presse.

Face au succès de la nouvelle philosophie, tous les commentateurs commencent à se demander de quoi il s'agit. Pour quelques-uns, c'est une mode parisienne, semblable à la mode féminine. Pour d'autres, le succès est dû exclusivement au montage d'un marketing littéraire. A ces facteurs, on devrait ajouter l'ambiance politique française pré-électorale de l'année passée, qui sans doute a favorisé sa propagation.

Publicité? Marketing? Manipulation politique? Tandis que pour les uns la nouvelle philosophie se réduit à cela, pour les autres cette nouvelle philosophie a réussi à formuler des idées qui flottaient dans l'air. Ce phénomène philosophique a surtout valeur de symptôme d'une évolution des idées en profondeur. La nouvelle philosophie casse des schémas, dépasse des tabous, questionne le rationalisme occidental, pose des problèmes brûlants, tels que le phénomène concentrationnaire de l'URSS, son socialisme, les limites de la philosophie marxiste...

Ces «enfants terribles» de la philosophie, ces travailleurs de la onzième heure de la réflexion philosophique, sont des jeunes professeurs, qui ont en commun l'expérience de mai 68, mais qui ne forment pas école et même pas un groupe homogène.

Filosofo berriak

Manolo Pagola

Lan honen eginkizuna filosofia berria deritzan mugimenduan parte duten filosofoen aurkezpena egitea da.

Autore denak batera hartuz eta guztiengan dauden gai nagusiak seinalatuz egin zitekeen aurkezpen hau: arrazionalismoaren kritika, Marx-en ukapen bortitza, antimetafisika, boterearen ikuspegi iluna, sozialismoaren porrota eta ezina, totalitarismoa, etab. Agian errazago izango zen horrela niretzat, eta laburrago irakurlearen pazientziarentzat.

Beste bidea hauxe izan daiteke: autore bakoitza bereiz hartu, besteekin nahasi gabe, eta hauen arrazoiketa bere osoan eman. Metodo hau egoikiagoa da. Luzapenaren eta errepetizioen arriskua du bere kontra, autore bakoitzaren pentsamendua argiago, zehatzago, osoago ulertzeko aukera du alde.

Filosofo berrien mugimenduan dabiltzanak —barnetik nahiz bazterretik— asko dira, eta era askotakoak. Ez zegoen, bada, denak tratatzerik. Aukera egin behar izan dut. Arrakastarik eta gorrotorik handiena merezi dutenak hautatu ditut: Glucksmann, Lévy, Benoist. Azken zatian beste batzuren berri laburki ematea ere ondo iruditu zait.

Aurkezpen honek horixe besterik ez ditu izan nahi: aurkezpena. Informazioa eman, ez kritikarik. Hontan dabilenak daki informazioa deformazio bihur dakiokela; eta osotoro neutro izaterik ez dagoela. 300 orrialdeko liburua folio batzutara isurtzean, erremediorik gabe kabitu ezinik gainezka egiten dizula. Halaz ere autore bakoitzaren pentsabideari trabarik gabeko ibilbidea prestatzen saiatu naiz. Eskubide osoz konforme gelditzen ez denak, liburua hartu eta irakurtzea dauka.

Filosofo berri hauen liburuak ez dakit sakontzat ala arintzat jo behar diren, gutxi ala asko balio duten. Filosofo profesionalak erabaki dezala hori, mesedez. Nik dakidana zera da, ez direla irakurterrazak. Ez dela hori lotaratzean irakurtzeko literatura erotikoa. Horregatik eskubiaren zerbitzutan antolatutako marketing operazio hutsa dela mugimendu hau esan eta lasai gelditzen denaren jarrera bitxi samarra da gutxienik. Milaka batzu gehiago ale saldu arren, ez zait iruditzen zabalkunde masiborik izango dutenik. Besterik da, ordea, liburu horien eragina, polemika telebistara, irratira, prentsara ailegatzen denean, eta eztabaidak kore politikoa hartzen duenean.

I. ANDRÉ GLUCKSMANN

Filosofo berrien artean, Lévy-k bezalako zalapartarik atera gabe, Estatuaren boterea sakonkien aztertu eta salatu duena da beharbada André Glucksmann. 68ko maiatzean punta puntan ibili zen. Ezker maoistako militantea. Militantzia horrek erabat desengainatu ondoren, etsipen eta eskeptizismo politiko horren zuzenespen teorikoa moldatzen saiatu da.

Idatzi dituen liburuetatik bi aztertuko ditugu hemen: *La cuisine et le mangeur d'hommes* eta *Les Maîtres penseurs*¹.

1. Sukaldaria eta giza jalea

Lenin-ek optimismorik haundienaz esan zuen, sukalde zulo-ko etxeoandrea Estatu arazoak erabakitzeko gai izango zela komunismoarekin. «Giza jale» asegaitza den Estatuak, ordea, ez du horretarako erraztasunik eskaintzen.

Glucksmann-en liburu honek Lenin-en ametsa Sobiet Batauneko egoerarekin konparatzen du. Era horretan Estatu desegitea amesten duen edo amesten zuen boterearen sistema teori-

koa Estaturik gogorrena eta ahalguztidunena eraikitsera heldu dela salatzen du.

a) Gauza bakoitzak bere izena

Glucksmann barneraino ukitu duena kontzentrapen zelaien errealitatea da. Lehen, horren zati batzu ezagutzen bagenituen, eta sinistu ezina gertatu baldin bazitzaion inori egiaren garraztasuna, Kruschew-en salaketen ondotik, eta batez ere azken urteotan disidenteez egin dizkiguten deskribapen mingarrien ondotik, bereziki Soljenitzin-en *Gulag Arkipelagoa* irakurrita gero, ez dago begiak isterik. Disidente hauen testigantzak zelai horiek sistemaren parte direla argi utzi dute. Zelaiaren fenomenoak, den bezain ikaragarria izanik, ez dago honez gero erreflexioa berandutzerik.

Autoreak zehatz samar deskribatzen du kontzentrapen zelaila. Baina batez ere fenomenoaren erraietan dagoen logika begi bistan jari nahi digu. Gertaera hori posible egin duen mekanismoaren tripa azaldu.

Horretarako lehen baldintza errealitateari berea duen izena ematea da. Hilketak hilketa dira. Kontzentrapen zelaiak kontzentrapen zelai dira. Errepresioa errepresio da. Diktadura diktadura da. Hau dena ez da tautologia merkerik edo sagardotegiko logikarik. Esan nahi baita, kolore ideologikoa eta sistema teorikoa gorabehera, errealitate berdinari izen bera eman behar zaiola han eta hemen. Nazismoak egindakoak kondenatzen bada, ezin daitezkeela zuzenetsi komunismoak egin dituenen. Bestela

«habrá que explicar que los campos, las deportaciones contribuyen 'a su pesar' al reconocimiento del hombre por el hombre, a la edificación de la sociedad sin clases. Habrá que encontrar la forma de sugerir que un campo *ya* no es un campo, que el trabajo forzado *ya* no es el trabajo forzado, la exterminación *ya* no es la exterminación, desde el momento en que matan en nombre del socialismo»².

b) Herria herriaren izenean zapaldua

Kontzentrapen zelaiaren izugarrikeria ez zen ahalgarri, manipulazio ideologiko basatirik gabe. Honen helburua biktima bera errudun sentiaraztea da. Kontzentrapen zelaitik pasa edo bertan gelditu ziren milioika biktimei, zapalketaren kontzientzia sustraitik kendu nahi izan zaie. Erresistentzia oro ezinezko egiteko biderik egokiena horixe zen.

Botereak, honen enkarnazio den nagusiak, du arrazoi beti. Estatu buruek dakite nondik eta noruntz doan historia; herriaren interesa eta ona zein den. Jakintza hori dakienak ezin du oker joka. Ez du errurik. Beraz, zapalduarena izan behar du erruak derrigorrez.

Hortaz makilkazoa soinean sentitzen duenari, zertan ez badaki ere, zerbaitetan oker egin duela pentsatzea besterik ez zaio gelditzen. Autokritika. Errua ezagutu. Partiduak arrazoi duela sinetsiz segi. Honela esplikatzen dira Moskuko prozesuak. Goseak, lo faltak eta torturak ez du dena esplikatzen. Partidua-ren filosofia dogmatikorik gabe, Estatuaren eta gizartearen identifikapen aprioristikorik gabe ez zen posible izanen. Bujarin, ideologo sobietiko diztiratsu hura, Stalin odoliturketarik eta purgarik beldurgarriena burutzen ari den bitartean, munduko kostituziorik demokratikoena redaktatzen ari da. Sarraski tresneriari, Estatuari alegia, olio ematen. Haren engranaiak harripatuko duen arte. Orduan hain ongi dakien ideologiaren dotrina gogoratuz, «subjeliboki» errugabe izan arren, «objeliboki» errudun dela aitortuko du³.

d) Sobiet Batasuna, sozialista?

Asko dira Sobiet Batasunaren aurpegi beltza kritikatzeko tenak. Baina, Glucksmann-en ustez, kritikaren esanahia minimizatuz, eta, orohar, Sozialismo sobietikoa salbatu nahirik.

Bide hortatik dabil, stalinismoa gizon zoro eta anker baten lepotik justifikatu nahi duena; kanpoko etsaigoaren eta barneko gerra zibilaren kointura gogoratzen duena; «pertsonekultua» aipatzen duena; industrializapen azkarraren esijentziak, eta diktadurari esker produkzioan egin ziren aurrerapenak kontatzen dizkizuna. Beste batzuek, bide beretsutik, erroreak, hankasartze batzu izan zirela aitortzen dute, baina dirijenteen eta koadroen erantzukizuna ukatuz. Herria zegoen atzeratuta. Herriarena zen errua.

Interpretapen guztiok Sobiet Batasuna sozialista dela suposatzen dute. Honetxe ateratzen du Glucksmann bere onetik. «Mende honetako gezurrik haundiena» deitzen dio. Sozialista dela esatea, Estatu herriaren eskutan dagoela, herriarena dela aitortzea litzateke. «Herria martiritzen duen agintea herriaren agintea litzateke, hankasartze batzu gorabehera»⁴.

Bestetik, diktaduraren izugarria une hartako eragozpenen bizkar botatzea, eta aurrerapenaren bizkortasunarekin estali na-

hi izatea, nazismoa Hitler-en autopistekin justifikatzea adina litzateke.

e) Kritika, baina azkeneraino

Orain aipatu berri ditugun stalinismoaren justifikapen eta azalpenek ez dute onartu nahi, Sobiet Batasunean menperatzaileen eta menperatuen arteko borrokarik dagoenik. Herria eta agintariak, Estatua eta gizartea, bat direla uste da.

Zelaiak, ordea, sistemaren zati dira. Ez dira eranskin zoritarrezkoa. Sobiet Batasuneko sistema sozio-politikoak zelaiari esker funtzionatzen du. Zelaiak ez du etekin ekonomikorik. Baina honen errentabilitatea, sistema ekonomiko eta politikoari irauraraztean datza.

Sistemaren terrorismoa ez da axalekoa, akzidentala. Ez da Stalin-en zorakeria hutsa. Boltxebikeek —jatorrek eta alprojek— denek, printzipio berdinak zeuzkaten. Estatuaren terrorismoa eta basakeria hori aspaldi justifikatua zegoen.

Lenin ez da errugabea. Stalin-ek garbitu zituen haien adiski-deak ere ez. Stalinismoa ez da desbiazioa. Leninismoaren logikan zegoen. Egia hauxe frogatzen, kontzentrapen zelaiak eta errepresioa Lenin-ek onartu zuela erakusten gogoz saiatzen da Glucksmann. Honentzat Stalin baitan Lenin dago. Eta Lenin baitan, Marx.

Stalinismoaren teoria justifikatzailea marxismoa da. Kontzentrapen zelaietan hil diren 50 milioi horiek ez dira hil marxismo oker, deformatuarengatik, marxismoa behar bezala aplikatu zelako baizik. Hilketa eta sarraski hura justifikatzen zituen eta dituen arrazoiak teoria marxista dira. Marxismoa

«zientzia bada, bere ekintzetatik frogatzen da autoritatearen zientzia dela, XX. mendean boterea irabazi, gorde eta sendotzen laguntzen duten metodo, ideia eta jokabideen multzoa dela⁵.

Marxismoak ez dauka bere eskuak garbitzerik, Sobiet Batasuneko totalitarismoarekin zerikusirik ez baleuka bezala. Zientzia eta zelaiak elkarrekin lotuta doaz. Horregatik, zelaietako erresistentzia marxismoaren kontrakoa ere bada, disidenteengan nabari daitekeenez. Marxismoak erakutsi bait du egiaren monopolioa partiduarena dela. Egia absoluto honek beste egia partzialen eskubideak anulatzen zituela. Eta, onez edo txarrez, egia hau herriari kaskoan kanpotik sartu behar zaiola (garun lisiba). Teoria horrek eman dizkio Partiduari herria azpian isiltzeko

arrazoiak, eta errejimena sozialista dela deklaratzeko ahalmena, eta egia hori dudan jartzeko eskubidea herriari kentzeko baimena.

Marxismoa eta nazismoa, kontrako ideologiak izanagatik, ondorio beretsutara iritxi dira.

Glucksmann-ek Errusiako Estatu hain gogor juzgatzen duen, ez du Europakorik bedekintzen. Platon-engandik hasi eta gaurdaino asmatu diren politikaren teoria denak hildo beretik doaz. Menperatzaileen eta menperatuen arteko hesia nork tinkoago jaso bilatzen duten saioak dira. Estatuaren teoria guztiek boterearen logika berdinari jarraitzen diote. Herriaren isiltasuna, baietza eta azpiratzea lortzeko tresna dira. Munduko iraultzaile eta erreformista guztiek Estatuaren tresna hortaz jabetu nahi dute.

Europak ez dauka zertaz harrotu. Ingalterra liberalak asmatu zituen kontzentrapen zelaiak, Hego Afrikako zurientzat eta Indiako erreboltatuentzat. Foucault-ek frogatu duenez, errenazimendutik honako Estatu modernuak hospital-gartzelak sortu zituen zorotzat hartzen zituen opositore eta marjinatuentzat. Sobiet Batasuneko disidenteentzako psikiatrikoak ez dira, bada, hain imentzio berri eta orijinalik. Europak ez du Errusiaren ispiluan bere aurpegirik ezagutu nahi. Baina botere gosea, kontrako edozein eta edozer desegiteko erabakimena isladatzen duten begi hotz horiek bereak dira. Begitarte beldurgarri hori berea du. Eta lotsaren lotsaz bere umea zapuztu arren, Sobiet Batasuna Europaren erraietatik sortu da.

2. Maisu pentsalariak ⁶

«*Les Maîtres Penseurs*» liburuan, arestian aipatu dugun politikaren teoria hori bildu nahi du Glucksmann-ek. Europako Estatuetan, errejimen modu guztietan oposiziorik gabe eraiki eta iraun duen filosofia politikoa. Horretarako XIX. mendeko lau filosofo aleman hautatzen ditu boterearen teoria azaltzeko: Fichte, Hegel, Marx, eta Nietzsche. Boterearen pentsalari hauengan Glucksmann-ek azpimarkatzen dituen koordenada nagusiak bilduko ditugu hemen.

a) 1789ko Frantziako Iraultza

Lau filosofo hauek miretsi egiten dute 89ko iraultza. Laurok aurrerapen handitzat jotzen dute iraultza frantsesak ekarri zuen Estatu zentralista, aurreko mendeetako Estatu absolutisten txo-

kokeriak eta probintzianismoa garaitu zituelako. Estatu zentralizatu eta indartsu hori nahi lukete Alemaniarentzat.

Estatu horren aginteari ihes egiten diona mespretxuz be-
tezen dute. Marjinatu guzti hauen sinbolo bezala judua dute
begitan. Juduak anti-estatu dira, Estatu barnean beste Estatu¹.
Glucksmannek dioenez, Maisu pentsalariok ez dira nazi, baina
bai antisemita. (Fichte batek juduei eskubide zibilak kendu, eta
Israelgo lurraldea konkistatu eta hara bidaltzea pentsatuko du.
Naziek proposatzen zuten Madagaskar-ko soluzioa nork ez du
gogoratzen, hori irakurtzean?). Eta nazismoaren kontrako erresis-
tentzia minatu egin zuten gutxienik.

Estatu zentralista moderno hori izatera iritxi ez diren herriak
ez dira «historikoak»; eta «historiko» direnekin lotu beste erre-
mediorik ez dute, bizirik iraun nahi badute, Marx eta Engels-en
arauera. Txekoak, Serbioak, Bretoiak, Euskaldunak, Ijitoak, Es-
laboak, «historiaren martxak kupidarik gabe ostikopetutako hon-
dakinak» dira².

Nagusi-pentsalarien Estatu, arrazoimenaren Estatu, zentra-
lizatua da. Jakobinoa. Makina honek dena kontrolatzen du. Iku-
sia izan gabe ikusten du. Eta zenbat eta makina osoagoa, orduan
eta gutxiago axola zaio makina horren erpinean nor egongo den.
Hegel-ek, adibidez, itxuraz batere arrazionala ez den monarka
jartzen du Estatu buru. Tresneria ona bada, berdin zaio monar-
ka babua bada ere.

Estatu hauxe da gaurkoa. Erreformistek eta iraultzaileek
harrapatu nahi dutena. Lenin-ek sozialismoa eraikitzeko propo-
satzen zuena.

b) Garun lisiba

Gisa hontako Estatuak subdito otzanak behar ditu. Ezjaki-
nak. Estatuak bakarrik dakiela dakien jendea. Jakintza goikoek
dutela sinesten duena.

Jakintza horren bilduma Legearen testua da. Eta Legea sa-
kratua da; hizkuntza misteriotsua eta katramilatua duelako, eta
berak bakarrik dakielako. Legea arrazionalitatearen espresio da.
Jakintza. Eta jakitatea boterea da. «Begreifen ist Beherrschen».

Testu honen aurrean ez dago bai ala ez besterik. Alde zaude
ala kontra. Ez dago dudatzerik, galdetzerik. Galdera, domina-
zioaren bihotzean bonba lehertzea da. Duda, estrategia osoa, le-
gearen eta hau ulertzen dutenen jakintza hankaz gora botatzea
bait da.

Botereak hau sinestarazi behar du: dakielako agintzen duela. Partiduak du historiaren zentzua. Herriari kanpotik eman behar zaiona. Baina herria joko hontan sartzea derrigorrezko da, botereak funtzionatuko badu. Helburu hori lortzen laguntzen diote eskolak, moralak, gartzelak, etab.

Agintetik kanpora dena ilunbe eta gau da. Gau hori argitzeko dago filosofoa, Nagusi-Pentsalaria, arrazoimenaren enkarnazioa. Arrazoimenak argituko du gau beltz hori. *Tabulla rasa*, orrialde zuri behar du izan menpekoak, nagusiak bere jakintza, ezkututik dakiena, idaz dezan. Herria, goitik edo kanpotik eskaintzen edo inposatzen zaion jakintza hori onartzen ez badu, behartu egin behar da. Zintzurra bihurritu behar zaio. Burutik mamu atzera-koi guztiak kendu. Garun lisiba egin. Psikiatrikora sartu.

d) Maisu-Pentsalarien jakintza

Nagusi pentsalariak asko dakite. Beraiekin amaitzen dela filosofia eta zientzia hasten, uste dute. Iraultzaren zientzia. Giza-dia atzerapenaren gautatik atera, eta etorkizunaren egunsenti diztiratsura iratzarriko duen zientzia. Supergizonaren profezia. Zientzia hori Maisu-Pentsalari bakoitzak berarekin hasten dela uste du. Fichte-rentzat Kant da azken filosofoa. Hegel-entzat, Fichte. Marx-entzat, Hegel. Eta Nietzsche, supergizonaren profeta delakoan dago. Zaratustra!

Iraultzaren zientziak hiru une edo epe bereizten ditu: 1. Prestakuntza ideologikoa: «Botere politikoa iraultzeko opinio publikoa prestatzetik eta lan ideologikoa egitetik hasi beharra dago» (Mao). 2. Terrorismoa: Aurreko errejimenari loturik daudenen buruak erortzea normala da. Hil ala biziko borroka hau derrigorrezkoa da iraultzan. Kontzientzi borroka (Hegel) edo klase borroka (Marx) edo nihilismo orokorra (Nietzsche) aipatuko dute Maisu-Pentsalariak. Espresio desberdinetan, terrore aldi berbera. 3. Iraultzaren bukaera. Agintea eskuratu ondoren, etsaia garbitu denean, borroka baretu beharra dago. Kanpoko etsaiaren aurka batu, bakea finkatu, menperapen eta nagusigo ekonomiko-politikoa gidatu, herria hezi⁹.

Iraultza zientziazki egin daitekeela da moderniarren sentikera eta zientzia horren legeak aurkitu dituela, gainera.

e) Boterearen jakintza, zaharra

Nagusiaren jakintza agintzeko eskubidearekin identifikatze hori ez da XIX. mendeko pentsalariak asmatua. Glucksmann-ek

behin eta berriz Platon aipatzen du, botere filosofia horren lehen teoriko ospetsu bezala. Ezaguna da Platon-en errepublikako errejimena aristokratismoa dela. Filosofoen eskutan uzten du hiriarren gobernuia. Hauek dakite eta gorputzaren hedeetatik askaturik ideiarene edertasuna istimatzen, beste hiritarrek ez dakiten bezala.

Antropologian hiru arima (irrikagarria, suminkorra, arrazionala) kontatzen dituen antzera, bere Errepublikan ere hiru gizon klase bereizten ditu Platon-ek: eskulangileak, harmagizonak eta filosofo-gobernariak. Azken hauei dagokie hiritarrak heztea. Errepublika eskola da.

f) Etorkizunaren morroi

Boterearen filosofoek aurrera begiratzen dute. Orain arteko historia atzerakoia da. Prehistoria. Etorkizun bikain eta ederra jaso nahi dute. Iragana ahaztu, ezabatu egin behar da. Joanaren hilobitik etorkizun pozgarria biztuko da. Gizadiaren etorkizun argitsuaren aurrean, Totalitatearen soluzioen aurrean, zer dira bakoitzaren txikikeriak, huskeriak ezik? Gainditu beharreko gauaren aztarnak ikusten dira subjektibismo eta egoismo begimotz horretan. Gizadiaren etorkizunaren aldaean erre behar dira. Nahikunde partikularren oparia herriak gustora egitea da Estatu guztiz jakintsuaren helburua. Orokortasunaren kezka interes partikularrekiko errukia ito egiten du. Inorekiko kupidak ez du tokirik. Geroaren oinetan sakrifikatu behar dute orainak eta oraingoak.

Etorkizunaren talaian bizi diren Maisu-Pentsalariek azken soluzio radikalak maite dituzte. Etorkizuna zerotik hasi (juduen arazoaren Himmler-en azken soluzioa; Stalin-en kolektibizazioaren eta industrializazioaren azken soluzioa). Krezio berria. Harena absolutoa. Arazo txikien soluzio txikirik ez dute eskaintzen. Problema erraldoienak bakarrik. Haundimaundika. Marxismoa da eskola honetan iaioena.

Hau horrela delarik Nagusi-Pentsalarien anarkismo eskatologikoak (Estaturik gabeko gizartearen ametsa) itxurazkoa dirudi. Estatua desagertuko da bistatik, baina, okerragoa dena, haren begia denen burutan landatua egongo da. Hildakotzat jotzen duten unetik ukanen du aginterik beldurgarriena. Ikusia izan gabe ikusiko du. Polizia harmaturik ez du beharko inposatzeko. Bakoitzak eukiko du barnean bere polizia. Garun lisiba burutu duen Estatua perfektoa izango da. Eta lasai hil daiteke. Hilezkortasuna aseguratua dauka. Bakoitzaren baitan betiketuko da.

g) Boterearen metafisika

Maisu eta Nagusi Pentsalariak metafisikarekiko kontuak garbitu dituela uste du. Glucksmann-entzat, ordea, boterearen justifikazio teologikoei barre gozoa egin arren, pentsamolde metafisikoak Maisu-Pentsalariarengan dirau. Metafisika jenerala ukatu dute, baina haren sail espezialetan preso daude. Izpiritua (Hegel), gizona (Marx), mundua (Nietzsche), errealitatearen oinarritzat hartu dituztenean, metafisika espezialean dabilta (teodizean, psikologia-antropologian, kosmologian). Metafisikaren okerra, ontologia espezialeko sailetan superbizi da.

Ateismo aitorten gartsu asko eta guzti, boterearen kontestaezina, ahalguztetasuna, absolutotasuna, metafisiko dira.

h) Boterearen gosea

Nietzsche izan da aginte gosea, boterearen irentsi asezin hori hobekien deskribatu duena. Horren azarnak topatzen ditu ez bakarrik Estatuan, instituzioetan, erakundeetan. Zientzia, artea, politika, erlijioa, aginte grinak sortutako estrukturak dira.

Filosofo bakoitzak historiaren enigmaren askatzaile, azken soluzioen jabe dela uste du. Glucksmann-ek ohartzen duenez, Maisu-Pentsalari bakoitzak bere aurrekoa autoritarioegia, diktadore, ikusten du. Aurrekoak beti Estatu poliziakoegiaren modeloa darabil, atzeko kritiko zorrotzarentzat. Horregatixe kritikatzin du Hegel-ek Fichte; Marx-ek, Hegel; eta Bakunin-ek, Marx.

3. Erresistentzia

Glucksmann-en analisisian botereak absolutoa izan nahi du. Totalitarioa. Faxismoa, urdina, marroia, beltza, gorria edo nahi duzun koloretakoa izan daiteke, baina botereari, edozein aginteri, berez dario. Logiko da. Logika hori justifikatu eta arrazionaldu duten Nagusi-Pentsalarien arabera, Estatuak, Rabelais-en *Gargantua*ren eta *Pantagruelen abenturetan* azaltzen den Thelema komentua bezalakoa behar luke izan. «Edan dezagun esaten bazuen inork, denek edaten zuten. Jan dezagun esaten bazuen, denek eskua luzatzen zuten». (Batzuentzat, Thelema, hiri-komentu bitxi hau, Edengo paradisia da, armonia osoaren erreinua. Beste interpretapenak, faxismoaren amets organizistaren kritika satirikoa ikusten du hor).

Baina boterearen logika totalitario horrek ezin du gizonaren

eta herriaren ahalmen txiki bat menperatu: hausteko askatasuna (68ko maiatza); ezetz esateko ahalmena. Aginteak eginahalak eta bost egiten ditu goiko Nagusien jakintzari buruzko dudak manupekoan burutatik ezabatzen. «Ez dago zereginik. Dena daki goikoak. Erresistentzia alferrikako da». «Todo queda atado y bien atado», aspaldi ez dela esan zitzaigunez.

Jakintzaren ezjakintasuna bilutsik utziko duen Sokrates-en ezjakintasuna, ordea, («Dakidan gauza bakarra ezer ez dakidala da») posible da. Eta posible da Thelema-ko ordenu eta armoniari algara egingo dion, azken soluziotan sinesten ez duen norbait. Andrea hartuz geroz, kabroi adardun egingo ez duenaren inolako garantiarik ez dagoela, uste duen Panurgo bat beti da posible¹⁰.

Galdetzeko ahalmena kendu nahi zaio herriari. Platon, gutxienez, bere Errepublikaren utopian zera planteatzera iristen zen: «Eta legeemaile jakintsua mozkontuko balitz?». Stalin-ek, mozkorraldi bapoak maiz harrapatu arren, galdera hori egiteko posibilitaterik ez zuen ametitzen. «Ivan Izugarria» filmean protagonista lurrera jausita ikusi zuenean, zentsuratu egin zuen. Ez Ivan bere erretaratua zelako, agintedunaren prestijiorik herriaren aurrean galdu ezin daitekeelako baizik. Halaz guztiz, herriak ez du boterearen mozkorraldiaz galdetzeko sena eta umorerik galdu!

Glucksmann-en liburuek, beltzak izanagatik, erresistentzi mezu aldarrikatzen dute. XX. mendeko sarraskiak ez dira derrigorrezko hutsegite, oker edo hankasartze koiunturalak izan. Ebitatu zitezkeen. Moskuko prozesotan gehienak partiduaren eta honen buruaren orojakintasunarekin identifikaturik galdu ziren. Baina izan ziren erresistitu, kontreutsi zutenak.

Botereak bere atzaparretan dena hartzeko, bere joko arauak onartuko dizkion herria behar du. Kultur iraultza guztiek Estatu kontrolatik at dauden zirrikitu guztiak argitu nahi dituzte, erresistentzi bide denak itxi. Baina erresistentzia posible da. Boterearen jakintzaren mitoa profanatu egin behar da.

Izpirituaren enkarnazio, historiaren zentzuaren jabe, arrazoi-menaren funtzionario, Jainkoaren sekretario horiek, «mozkorrak» balira? Dena zorakeriarik zoroena balitz? «Gida gidatzaile dela, gidatuek beren buruak gidatzen uzten dutelako»¹¹, herriarekin identifikaturik dagoelako, gezurtik lotsagabeena balitz? Susmo horrekin botere totalitarioak esijitzen duen fede itsua kolokan jarriko litzateke.

Erresistentzia hori ahalgarri egiteko, Nagusi-Pentsalarien pentsakera baztertu beharra dago. Hauk izan dira mende honetako

«azken soluzio definitiboan (Juduen sarraskia, Stalin-en purgak, kontzentrapen zelaia) abiadura posibletu duen aparatu ideologikoa.

Glucksmann-entzat, gaurko Estatuaren bereiztasuna ez dago boterea totalitario izatean ala ez izatean, boterearen kontrako erresistentzi bideak libre uztean ala ez uztean baino¹²; totalitarismo gogorragoa ala bigunagoa izatean.

Askatasun formalak, herriari hainbeste odol kostatakoak eta botereak, mamia kendu, eta azal hutsetan utzi nahi dituenak, erresistentzi bide dira. Ez dago gutxiesterik. Askatasun formalen errespetoak kontzentrapen zelaia ezinezko egiten ditu¹³.

Kontzentrapen zelaia pasatu eta salbatu direnak dira botereak engaina ezin ditzakeenak. «*Gulag Arkipelagoaren*» ondotik inozo izaterik ez dago. Denok ikusten duguna ezkutatzetik. Nagusia mozkorra dago. Eta erregea bilutsik doa, harro harro, jantzirik dotoreenarekin diholakoan. Ez dago giza harremanetan Estatu eta Partidua bitarteko bakartzat hartzerik¹⁴.

Dinosaurio horien begiek ez daukate zertan sondatu giltzurriak eta bihotza, gure amodioak, gure erlijioak, gure barreak, gure samurtasuna, gizadiaren iragana eta etorkizuna¹⁵.

Erresistentzian sartu behar dugu denok, da Glucksmann-en oihua:

Existe una constatación decisiva que se impone desde que existen los campos y que será válida mientras persistan: se puede resistir y esta resistencia es eficaz¹⁶.

II. BERNARD-HENRI LÉVY

Filosofo berrien artean arrakastarik zabalena eta makilkazorik amorratuenak bereganatu dituena Bernard-Henri Lévy dateke. Grasset editorialean bildu ditu bere lagunen liburuak. Politika editoriala hori ez zaio barkatu. Bera da *mass media*etan gehien parte izan duena. Biziki interesatzen zaigu autore honen tesi nagusiak hemen azaltzea. *La Barbarie à visage humain* da bere liburua.

Kapitalismoa ala sozialismoa? Nola bata hala bestea basakeriarik itunena dira. Zergatik? Botereren berezko izacrerengatik. Ezin diezaiokegu, beraz, geure buruari amets egiteko baimenik eman. Sozialismoa gezurra da. Progresismo optimista, itsumena. Eta marxismoa, gezur eta itsumen denok biltzen dituen teoria.

Honelatsu bil dezakegu liburuaren azpiko asmoaren haria. Tesi honen oinarria boterearen analisi filosofikoa da. Gai horrekintxe hasten da liburua.

1. Boterea

Filosofia politikoaren galdera nagusia hau da: Zer da boterea? Nondik dator? Zein eginkizun du gizartean? Zein harreman dago politika eta gizartearen artean? Arazo honi heldu dio aurrenik Lévy-k.

Aurena ezkeraren teoria kritikatzan du. Tradizio marxista. Marxismoa, botere zapaltzailearen analisisik hontara irixten da. Klase zapaldua, ideologia faltsoren batek lotan dauka. Zapaltzaileek zapalduari biolentzia onarrarazten dio, gezur ideologikoari esker. Bitartean badira joko zikin honetaz jabetu direnak. Hauek zapaldua bere lozorrotik aterako dute. Orduan zapaldu kontzientziatuak zapaltzailea bere ideologia guztiekin irauliko du.

Eskema honen arabera, boterea ona da berez. Gizartearen klase banaketak zapaltzaile bihurtzen du. Koiuntura klasista konpondu ondoren botereak jadanik ez du zapalduko¹⁷.

Pentsamolde honetan, batetik Nagusia zerbait da (*Le Maître n'est pas rien*). Baina bestetik ia ez da ezer (*est un presque rien*). Zerbait dela esatearekin erraz lokalizatu daitekeela, jatorririk baduela diogu. Ia ezer ez dela esatean, ostera, garrantzia kentzen zaio Nagusiarri. Ahula da. Aisa itzulipurdika daiteke. Batetik, garrantzia ematen zaio: Nagusia zerbait da, eta agintearen mekanismo sekretua arakatzen da. Bestetik ez da hain serio hartzea, laister bota daiteke eta.

Lévy-k kontrako tesia defendatzen du. Boterea ez da zerbait. Gauza bat. Konkretua. Goibehetan ezagutua. Ezin dakioke jatorririk eta heriotz egunik asma. Boterea difusoa da. Ez dago inon. Ezin da inguratu. Agintearen efektuak kausarik gabeak dira. Jatorrizkoak, ez eratorriak. Bada, noski, nagusi konkretua, bere hezur mamitan identifika daitekeena. Baina bada Nagusi jeneral bat, inongo jargoitan esertzen ez dena; harrapatu ezina dena, eta bota ezin dena. Horregatik ezkeraren optimismoak ia ezer ez dela esaten duen tokian, zerbait dela dio Lévy-k. Ezin da borrokatu, jargoitik kendu, jargoirik ez duelako. Inon konkretuki ez dagoelako dago edonon. «Boterearen indar zurrupatzailea deusezteko ahalmena, ez dator biolentziatik edo ideologiatik, beste zerbaitetatik baino»¹⁸.

Lévy-rentzat, bada, «boterea ez da klase gizartean gertakizuna»¹⁹. Gizartean bertan dago morrontzara, azpijoko zikinera eta zoritxarrera makurtzen duen zerbait. «Elkartze hutsean dago, dudarik gabe, Nagusia beharrezko egiten duen gauzaren bati»²⁰. Eta gauza hori da filosofia pesimistak egun aztertu behar lukeena. Rousseau-ren eta Hegel-en testuez baliatuz horixe egiten dizu Lévy-k.

Gizonaren izaerari bertan, gorputza izatean, dago erabateko harreman bateratzailerik eduki ezina. Harremanik sakonenak ere mugarekin topo egiten du. Harreman sozial orotan dago distantzia, banapena, erdibiketa. Eta distantzia horretantxe indarrezko eta boterezko harremanen hazia²¹. Boteretik gabe ez dago gizarterik. Gizartearekin batera desagertuko da. Horregatik alferrik da erresistentzia. Erresistentzia ezinezkoa da. Eta liberazioa, amets zoroa²².

Lévy-k, noski, honekin ez du ametitzen marxismoak politikari ere ezartzen dion azpiegitura-gainegituraren teoria. Politika ez da gizartearen erdibiketaren espresio hutsa. Ez da harreman sozio-ekonomikoetatik eratorria, hauen estalkia. Harreman sozio-ekonomikoak bezain lehena da boterearen errealitatea. Hau ez dago haien errealitatera erreduzitzerik. Beraz, harreman sozio-ekonomikoak aldatuz eta konponduz, ez da politikaren arazorik konpontzen.

Marxismoaren estatu teoria ez du inolaz ametitzen Lévy-k. Estatua ez zen jaio klase bati bere interesak gordetzeko egokia zela otu zitzaion historiaren une jakinean.

2. Egurra optimismoari

Lévy-k filosofo pesimista dela aitortzen du. Eta optimismoa, sustrai eta fruitu, hondotik atera nahi du. Hona hemen desmitifikatu beharrezko mitoak.

a) Ilustrazioaren gizon ona

Aufklärung-en pentsamenduak, Argialdiaren filosofiak, uste du gizonak baduela gaitzak ukitu gabeko eremu on bat. Gero gertatu diren gora-beherek, sortu zaizkion baldintzek txartu eta gaiztotu dute gizona. Ez dago zergatik etsi. Baldintza horiek aldatu eta kito. Gizon berria, zoriotsua, betea, jaioko da. Baina Lévy-rentzat, optimismoak bilatzen duen instituzio aldrebes eta zorizaiztokoren batek usteldutako naturaleza onik ez du gizonak.

b) Historia

Historiarik ez dago. Denboraren barnean gertatzen diren gertakizunak hari batez lotzea ez da zientzia. Gertakizunak horixe dira: gertakizun soil. Etengabeko bilakaeraz, bere itzulinguru eta atzera-aurrerekin, mamituz eta chotuz doan zentzu historikoa mitoa da. Historian ezin daiteke federik izan. Histori zentzu honek badu bere itzulpen erlijiosoa (probidentzia) eta laikoa (gizona, historiaren jabe). Progresismoak historia ebolutibo hipotetikoa-ren zentzuan idoro nahi du bere oinarria. Baina honek ez du idorotzailearen ametsetan duen errealitatea besterik.

d) Hizkuntza iraultzailea

68ko maiatzean proposatzen zen bezalako hizkuntza iraultzailerik ez dago. Hizkuntza ez da zapaltzaileek eta zapalduak politika egiteko darabilten lanabesa. Hizkuntza agintea da. Gramatika, boterearen zientzia. «Gauza jakina da hizkuntzaren regulapena arimen regulapenerako propedeutikarik onena dela»²³. «Bada boterearen zientzia idiomatiko bat, menderapenaren aljebra bat, ez dago politikarik lehen lehenik linguistika ez denik»²⁴. Ez dago hizkuntza zapaltzailerik eta askatzailerik. Zapaltzaileek eta zapalduak hizkuntza berbera darabilte. Hitza, hizkuntza, elkar komunikatzeko, gizarte harremanetarako da. Eta gizarte harremana gerra da, kontrako indarren gerra²⁵.

e) Sozialismoa

Sozialismoaren beharra errealitatearen erraietan dagoela esan ohi da, «botereari ihes egingo liokeen errealitaterik balego bezala». Baina errealitaterik ez dago. Botereak sortzen du errealitatea. Berak ebaki eta taxutzen du gogoak ematen dion bezala²⁶. Botereak komeni zaion bezala errealitatea ikusten, interpretatzen eta sailkatzen du. Boterearen jabe den Nagusiak ez dio errealitateari kasorik egiten. Ez da errealista, ordenu egiazko baten morroi. Nagusi sozialistak ere ez du «munduaren ordenurik» errespetatzen. Ez dio honi obeditzen. Munduaren ordenua Nagusia da. Honek asmatzen du hura. Progresistak ez dira jabetzen, Nagusiaren umiltasun faltsu horren azpian dagoen «aginte irrika demiurgiko harrigarriaz»²⁷.

f) Estatuaren desagerketa

Hau da beste mitoa. Institutio politikoak sortu aurretiko natura neutrorik ez bait dago. Estatuak ez du jaiotzarik, eta herio-

tzerik ere ez du izango. Estatuaren aurretik eta ondotik ez dago deus. Estatu ez dator hitzarmen sozial batetatik, klase diferentziek gaiztotutako hitzarmenetik. Estatu kausarik gabeko efektua da. Kreatu gabeko kreatzailea. Beraz ez du justifikapen beharrik.

g) Gizabanakoa

Estaturik gabeko errealitaterik izan ez delako, eta izango ere ez, lilura hutsa da Estatu saretik kanpora legokeen indibidua. Ez dago aginterik gabeko ugarterik. Indibidualismo ororen azpian totalitarismoaren hazia dago, faxismoaren promesa. Filosofia politiko guztien hasieran Hobbes datza, baina bukaeran, Hegel. Hala ere indibiduoaren mitoa positiboa dateke. Mito honek eragozten du Estatu kontzentrapen zelai bihurtzea²⁸.

b) Zapalketa liberazioa

Ez dago ez zapalketarik ez liberaziorik. *Zapalketak* ez du zentzurik izakera askearen kasoan ezik, boterearen eremutik at geldu litekeen izakeraren hipotesian ezik. *Liberazioaz*, beste hainbeste. Askatu ezin daitekeen errealitatearen askatasunaz mintzatzeari, zentzurik gabeko hizkuntza da.

3. Sozialismoaren ilunabarra

Arestian salatu diren mitoak ideologia politiko askoren oinarrian daude. Lévy-rentzat, ordea, sozialismoak bezain optimismoaren gezur guztien bilduma bikainik eskaintzen duenik ez dago.

Sozialismoarentzat ez dago derrotarik. Ez du porrota hitza ezagutzen. Dena, on eta txar, eboluzioak berez ekarriko duen garaipenaren zati da. Stalin-en hilketak okerbideratze probisionalak dira. Gaitz orok Onaren itzala da. Lévy-ren ustetan, gaur agintea duen klaseak ipuin kristau eta hegelianorik sinetsi gabe gobernatzen duen bitartean, sozialistek ipuin optimista eta progresista denak sinesten dituzte. Horregatik dira «antzu, pasibo eta indargabe»²⁹.

Sozialismoari «gezur entziklopedia»³⁰ deitzen dio Lévy-k. Entziklopedia hontatik bi gezur nagusi azpimarkatzen ditu.

a) Proletalgoa

Proletalgorik ez dago. Izpiritu mesianikoz, ahalmen salba-

tzailez hornitutako klaseak ez du esistitzen. Miseria gorrian birrinduta eta aldi berean kontzientziaturik dagoen talde aska-tzailea, kontzeptu inposiblea da. Esperentziak berak hamaikatxo aldiz gezurtatua. Marx-en testuetako zalantzak ere aipatzen ditu Lévy-k, proletalgoa desmitifikatzeko.

Honekin ez da ukatu nahi makinak txautu, suntsitu eta desegindako langilerik dagoenik. Zoritxarrez bada horrelakorik. Baina balorazio etiko eta humanista dateke hori; eta ez proletal-goaren kontzeptu zientziakorik.

b) Kapitalismoa

Hau proletalgoaren kontzeptukidea da. Marx-ek iragarri zuen kapitalismoa bere ehorzleak sortzen ari zela. Ehorzleak proletariak ziren. Baina ehorzlerik ez da jaio oraindik. Edo jaio bada, ez daki zulorik egiten. Kapitalismoa da azkenik izango ez duen lehenengo produkzio modua. Marxismoarentzat, aldian aldiko krisiek, kapitalismoa herioak jota dagoela adierazi nahi dute. Baina, gertatzez, krisi bakoitzetik indarberrituta, osasuntsuago, gaitzaren kontra txertatuta atera izan da.

Kapitala, istilu eta gatazka guztien gainetik mundua batzen eta bateratzen ari da. Horregatik, gizartea esplikatzeko, guda, borroka, erdibiketa, kontradikzioa, kontzeptu nagusitzat hartzen dutenen aurka esan beharra dago batasunak erdibiketak eta dibisioak baino indar gehiago duela. Materialismo dialektikoak erakutsi digun kontradikzioa kontzeptu ustela da³¹.

Kapitalismoa ez da mundu berriaren promesa, egun berriaren egunsentia. Sozialismoaren ilunabarra da. Bukatzen ez den historiaren amaieraren ilunabarra.

Mito marxista hauek desegiten saiatu ondoren, marxismoa zientzia hutsezintzat daukatenen kontra, ausartzen da Lévy esatera:

Zera bakarrik erakutsi nahi izan dut, gaurko gizonen dramak eta saminak ulertzeko ez dutela balio marxismoaren lanabes teorikoek³².

4. Basakeria

Basakeria, faxismoa, totalitarismoa, kontzeptu kideko bezala darabiltza Lévy-k. Basakeriaren tankerak eta totalitarismoari buruzko baiepen batzu jasoko ditugu hemen.

a) Basakeriaren tankerak

Kapitalaren hilezkortasuna baiezerakoan, Lévy-k ez du Mendebaleko errejimenen goratzarrerik abestu nahi. Kapitalak agintzen duela, forma desberdinetan izanik ere, ekialdean eta mendebaldean, esan nahi da. Botereak kapitalaren antza du gaur.

Kapitalismoa basakeria da. Tiraniak gaur hartzen duen izena. Basakeria honen hiru forma aztertzen ditu autoreak: teknikaarena, desioarena (Deleuze-ren teoriak, hemen ikusiko ez ditugunak), eta sozialismoarena.

— *Teknikak* beti izan du eragin haundia gizartean. Baina gaur duen zoramenik ez da inoiz ezagutu. Dena bateratu, diferentziak ezabatu, mundua homogeneizatu nahi du. Boterearen ukabila, teknikari esker, ez da inoiz hain beldurgarria izan.

— *Sozialismoa*. Hau ere ez da basakeriaren alternatibarik. Kapitalaren basakeriaren tankera desberdina da. Kapitalaren amets bateratzailea, totalitariora, serioagotan hartzen duena. Klaserik gabeko gizartea amets totalitarioaren gauzatze praktikoa da eta. Teoria marxista tirania modernoaren definizioetarik bat da. Gulag Argialdia (Aufklärung) da, baina tolerantzia gutxiagorekin. Bosturteko planak ekonomia burgesa bera dira, terrore eta polizia gehixeagorekin³³.

Teknokrazia eta sozialismoa, biak progresismoaren izenean zabaltzen dira. Baina ideia erreakzionariorik bada hiztegian, progresioarena da. Sozialismoa basatia da, ez nahiko progreso ez delako, progresismoari zintzoegi jarraitzen zaiolako baino. Sozialismoa Gulag bada, progresismoarengatik da. Ondorioa: Progresoaren erreakzionario delako, gaur lehen aldiz *antiprogresista* izan beharra daukagu³⁴.

b) Totalitarismoa

Basakeriaren beste izen bat da totalitarismoa. Eta ez da atzo goizekoa. «Ez dago botere absoluto izan nahi ez duen boterarik»³⁵. Stalinismoa eta faxismoa azken mende honetan esperimentatu diren aginte forma berriak dira. Galdetzeko litzateke, totalitarismo hauek zergatik irabazi duten, hain zuzen, herria hain kontzientziatua zegoen, eta erresistentzi kontzientzia hain sakona zuen aroan.

Totalitarismoaren sorreran Lévy-k atzeman uste duen faktore garrantzizkoa, erlijioaren gainbehera da; sakratuaren krisia. Boterearen garai bateko logikan, Jainkoa edo sakratua zen boterea zuzenesten zuena. Boterearen legeek beste nonbait zuten oinarria.

Legeak, Jainkoak eta sakratuak errepresentatzen duen On gorena imitatu behar du. Sakralitate horrekiko subditoaren fedea ibilarazten zion sistema politikoari.

Erlijioa, ordea, boterearen justifikapena ezik, mugapena ere bazen. Botereak azken oinarria bere baitan ez duela, aitortzen duelako; goragoko instantzia ametitzen duelako. Horregatik manupekoak beti zeukan agintedunaren tiraniaren aurka altxatze-karta besazuloan, instantzia sakratu horrek emana ³⁶.

Totalitarismoak, berriz, erlijioaren ukapenarekin, erlijioa ukatu baino areago laizizatu egin du. Fede artikulua profanoak asmatu ditu. Jainkoa, eta honek sinbolizatzen zuen ideiala, on publiko izatera erreduzitzen da. Interes publikoaren kultura da erlijio berria.

Ez hori bakarrik, Totalitarismoan printzeak lehen aldiz, boterearen oinarria zen soberanoaren tokia hartu du. Sakralitatea zen soberanoa, instantzia nagusia. Orain printzeak soberanotasuna lapurtu dio zeruari. Lege, pertsona eta instituzio guztien gainetik dago. Ez du inoren edo ezeren aurrean erantzun beharrik. Inork ezin diezaioke konturik eska. Subditoak gaugerero erreboltatzeke eskubiderik ez du. «Jainkoen ilunabarra gizonen ilunabarra da» ³⁷.

Horrela sortu da totalitarismoa. Eredu zibilik eta pribaturik ameti ezin duen aginte errejimena. Inoren biziaren eta sentimenduen jabea. Desberdintasunari hutsarterik txikiena ere utzi ezin diezaiokeena. Gizartearekin identifikatzen den eta botere banaketarik onartu ezin duena.

Totalitarismoa ez da oskurantismoa. Estatu totalitarioan ez du poliziak agintzen, jakintsuak baino (Glucksmann-en *Les Maîtres Penseurs* gogora). Ez du herriaren isiltasunik nahi. Herriak pentsa lezana, ozen oihukatzea nahi du botereak. Arimetan ez da sekreturik gorde behar. Zirrikitu eta hutsarte denak aireztatu behar dira. Horretarako Estatu totalitarioak toki guztietan presente egon behar du, baina ausente balego bezala. Dena ikusi nahi du, ikusia izan gabe ³⁸.

Estatu totalitarioak ez du alternatibarik. Totalitarismo desberdinen artean aukera egin besterik ez daukagu. Zori tragikoa gizonarena!

5. Printze berria

Ondoren Lévy-k gaurko edo biharko totalitarismoaren jitea

zein den esan nahi digu. Printze berriak burua marxista izango du; eta gorputza, kapitalista³⁹. Sozialista eta teknokrata alegia.

a) Printze gorria

Soljenitzin izan da, gure autorearentzat, nora iritxi gaitzkeen edo jadanik iritxi garen, beldurgarri azaldu diguna. Bera da gure garaiko Dante berria. Gulag-eko ifernuaren izugarrikeria begititik sartu diguna. Lozorrotik iratzarri gaitu, informazioa emanaz baino gehiago, izugarrikeriaren kirats beltza erakusten jakin duelako. Uste genuen, bai, harrak joa zela sozialismoa. Baina ez. «Fruituak ez dauka harrik, ez beranduko bekatuak; harra da eta fruitua; eta bekatua, Marx»⁴⁰.

Marxismo-leninismoak zigorgabe gelditu nahi zuen Kolyma-ko gertakizun historikoen aurrean. Alderantziz, kontzentrapen zelaia marxista dela agertu du Soljenitzin-ek. «Marxismoa ez da zientzia, besteak bezalako ideologia baino»⁴¹. Marx-ek eta marxismoak erdi bi egin dute gizadia. Historiaren funtzionariak, Probidentiaren konfidenteak, jakintsuak, batetik; ezjakinak, azpiratuak, Nagusi guztien pean bizkarra makurtu behar izan dutenak bestetik. Soljenitzin-ek oharrarazi digu, sekula inongo printzek ez duela konformidatea eta resignazioa, borondatezko morrontza hainbeste efikaziarekin irakatsi. Sozialismo erreala, benetakoa stalinismoa, Terrorea, Gulag dela. Klaserik gabeko gizarterik, Terrorerik gabe eraiki ezin delako, asaldari eta erreboltatu denak kanpoko ilunbeen ifernura herbesteratu gabe. Ez dagoela zelairik gabeko sozialismorik⁴².

Lévy-ren arabera, ordea, sozialismo sobietikoaren izugarrikeria, amets liberalak zuen eta praktikara eramatea ausartzen ez zen asmoaren egiaztatzea da. Kolyma ez daukagu atzean; posibilitate beldurgarri bezalaxe daukagu hor aurrean. Gaurko teknokrazia irripartsu dotorea giza aurpegidun stalinismoa da.

b) Teknokrataren totalitarismoa

Lévy, hontaz gero, ezin daiteke konforme egon futurologo eta tankera horretako soziologo eta politologoek iragartzen dituzten munduarekin. Proletari gabeko mundua, «lepo zurien» eta teknikoen gizartea agintzen digute. Lévy-ren ustez, uniformismora, berdin pentsatzera eta jokatzera, robotismora behartzen duen egoera hastera goaz. Doinu berbera kantatu beharko duen mundura.

Basakeria proletarira goaz. Proletalgoak ez du gizarte hobe-

rik, zerurik, jaioaraziko. Gizadiaren egoera basatia sagaratuko du. Kapitalismo proletarira edo proletalgo kapitalistara goaz. Lévy-k ikusten duen mundua zera da: diferentziarik eza, basamortua, monotonia, robotaren automatismoa, neguaren luzea, gauaren ilun amorfoa...

6. Marxismoa, herrien opio

Basakeria moderno honek badu bere erlijioa. Marxismoa da gaurko erlijioa. Eta marxista komentzutuen amorrurako, Marx-ek erlijioari buruz idatzitako esaldi berberak aplikatzen dizkio marxismoari. Hona zein pasarte bitxia gelditzen den:

Marxismoa mundu honen teoria jenerala da, honen laburpen entziklopedikoa, honen logika era herritarrean, honen ohore puntu izpirituala, entusiasmo, zigor morala eta osakin solemnea, honen justifikazio eta kontsolamenduaren arrazoi jenerala. Horregatik marxismoaren kontrako borroka, errebotez, mundu honen kontrako borroka gertatzen da, zeinaren usain izpirituala baita marxismoa. Marxismoaren miseria, miseria errearen adierazpide eta miseria errearen kontrako protesta da aldi berean. Marxismoa kreatura zapalduaren hasperena da; gupida gabeko mundu baten bihotz; izpiritua ukatzen duen giro baten izpiritua den bezala. Marxismoa herriaren opio da⁴³.

Marxismo honek, zenbaitek krisian dagoela esan arren, Frantzia-ko kultura blaitu du. Dena marxeztatu du. Baina fenomeno horrek ezin du ezkutatu marxismoaren pobrezia. Marxismoa antzutasunak jota dago. Althusserismoa ere, hainbeste esperantza sortu zituena, maoismoarekin batera itzali da.

Lévy-rentzat, zaila eta imposible izanik ere, antimarxista izan beharra dago. Botereaz eta Nagusiaz jeneralki esan daitekeen guttia esan liteke marxismoaz. Boterearen betiko arazoaren azken era egungoa delako. Boterearen irentsi behar horri aurpegi eman nahi bazaio, bizia eta mundua eraldatzeko zentzurik gabeko proiektuak oinarririk izango badu, marxismoa baztertu beharra dago. Antimarxismoa politikaren kontrako borrokaren era berria besterik ez da⁴⁴.

7. Konpromiso etikoa

Alternatibarik gabeko egoera horretan zer egin? Badirudi logikoki pesimismoaren ilunbe horretan ez lukeela argiunerik egin

behar. Baina ez dakit nondik ateratako fede kolpeka, konpromiso etikora iristen da Lévy.

Arrazoiketaren pesimismoak, autorearen ustez, begiak irekita, errealitatea ezagutuz, postura hartzera garamatza. «Inoiz baino gutxiago amore eman behar da jasan ezinaren aurrean»⁴⁵.

Lévy-ren pentsakeran badaude boluntarismo horretara eragiten duten datoak, sisteman ondo integratzen ez direnak, sakontzen ez dituenak, eta politika teoriaran eranskin bezala, etenda gelditzen direnak.

Adibidez indibiduorik ez dagoela Estatutik kanpora, Estatua-ren sareetan dagoela baieztu ondoren, aitorten hau egiten dizu, lehen ikusi dugunez: Estatua, gizabanakorik gabe, biolentzia hutsa eta zelaia da⁴⁶. Dato horren esanahi teorikorik ez du bilatzen, ordea, sistema pesimista eraikitzerakoan.

Lévy-ren pentsabidea honela bilduko nuke: erresistentziarik ez da posible. Baina ala ere erresistitu egin behar da. Erresistentzia ez da guztiz alferrikakoa. Gutxienik, izugarrikeria, basakeriaren gailurra, atzera daiteke.

Filosofoaren Estatutua ere hortik doa. Honek egin dezakeen gauza bakarra, harropuzkeriarik gabe, herriaren faroa dela uste gabe, eta aginte goserik gabe, hauxe da: basakeria berandutu; mundua berrituko ez bada ere, ez dadila behinik behin desegin.

Intelektuala *metafisiko* izango da: iraultza ezinezkoa dela jakinik ere, apusturik zoroena jokatuko du, gizona bere barnerik sakonenean aldatzearen alde. Nagusirik gabeko mundurik ez da posible, baina nagusigorik gabeko mundu bat *sinetsiz* pentsatzen jarraikiko da. Zergatik? Bestela mundua okerrago joango litza-tekeelako.

Intelektuala *artista* izango da, izugarrikeriari kontreusteko egokiena artea delako.

Intelektuala *moralista* izango da: fatalismo guztien aurka, erresistentziaren inperatibo kategorikoa onartuko duena.

Lévy-k ez du Jainkoa sinesten baina izpiritualismo ateoaren bentajak proposatzen ditu. Ez du gizona sinesten, baina gizonaren ideiarik gabe faxismoari amore ematea errazago dela uste du. Askatasun formalek teoriaran ez dute txakur txiki balio, baina totalitarismoaren tentaldiaren kontrako ahalmen itzela ematen die⁴⁷.

Pesimista amorratua den Lévy, ez dakit nondik, boluntarista optimista bihurtzen da azkenean.

III. JEAN-MARIE BENOIST

Filosofu berrien artean serioenetakoa da Jean-Marie Benoist. Inoiz ukatu ere egin izan du bera filosofu berrien artean sentitzen denik. Dena den, horien artean kokatzen dute beti. Idatzi dituen lau liburuetatik, hiru aipatuko ditugu hemen: *Marx est mort*, *Tyrannie du Logos* eta *La Révolution structurale*.

1. Marx hil da

1970 urtean argitaratu zuen *Marx est mort*. Liburu honen tesia hau da: Marx zahartu egin zaigu. Nahi badugu ez badugu XIX. mendekoa da. Penaz eta dolorez izango bada ere, haren hil kanpaiak aspaldi jo zuen.

Benoist 68ko maiatzetik hasi eta Marxenganaino igotzen da, Marcuse, maismoa, leninismoa banan banan aztertuz. Haren ustez, tradizio marxista osoa, ñabardura eta diferentziak ukatu gabe, mendebaleko metafisikaren eraginpean dago, metafisika hori aspaldi gaingitu zuelakoan egon arren.

a) 68ko maiatza

68ko maiatzak zalantza bipila jaurti zuen Frantziako eta Europako zibilizazio ereduaren gainera. Politika, unibertsitatea, kultura, lana, dena, alienazioak jota zegoelakoaren susmoa zabaldu zuen. Dena koloka uzten zuen zalantza beldurgarria ulertzeko hiru era zeuden: ikasleena, PCF-rena eta agintea zuten gaullistena.

Hiruron testuen azterketa egiten du Benoist-ek, eta hizkuntza metafisikoaren aztarnak nonnahi aurkitzen. «Kontzientzia kolektiboa», «retour à soi», «gizarte berriaren utopia», «autojes-tioa», etab., dena metafisikak kutsatua dago.

Maiatzeko diskurtso guztiek... sabel kontzeptual berean kokatuta baleude bezala funtzionatzen dute; eta sabel kontzeptual horrek mendebaleko metafisikaren mugetan ditu sustraiak eta izateko posibilitatea ⁴⁸.

Halaz guztiz ere marxismoaren logos metafisiko horrengandik aldendu zela 68ko maiatza, aitortzen du Benoist-ek. Adibidez, analisi marxisten baliorik eza eta zaharkitzapena salatzen dutenean, eta teoria politiko marxistarengandik apartatzen direnean.

Metafisika hori dakus Benoist-ek, ez PCF-ek maiatz hartan

jarraitutako ikasleekiko politikan bakarrik, baita Partidutik kanpora, baina marxismoaren hildotik pentsatzen duten soziologo, psikologo eta beste 68ko maiatzaren analistengan. Frogatzat, Edgar Morin, Claude Lefort, eta Jean-Marc Coudray soziologoek egindako 68ko maiatzaren analisia dakar. Benoist-ek dioenez, soziologo hauek garbi uzten dute ideologia metafisikotik irten eta zientziaren eremura sartzeko pretentsioaren ustela.

Soziologoak, gaurko mintzaldi iraultzailearen tolesturetan babesten den metafisika osoaren konplize eta goardazakur dira ⁴⁹.

b) Marcuse, Argialdiko gizona

68ko maiatzaren gurasotzat ematen da Marcuse. Benoist-en ustez, Marx eta Freud' uztartu nahi dituen pentsalari honen saioa ere metafisikaren eremutik dabil.

Marcuse zorrotza da egungo gizarte errepresiboaren ajeak auskultatzerakoan. Freudismoak eta marxismo moeta batek errepresiorik gabeko gizon eta gizartea iragarri zituen. Egia besterik da. Inoiz baino errepresio latzagoa jasaten ari da gizona. Gizarte teknikoak, kapitalistak eta sozialistak, ez du gizonik askatu. Alderantziz «dimentsio bakarreko gizona» egin du. Argialdiaren promesak gezurti gertatu dira.

Baina Marcusek ere, gaur ez bada biharko errepresiorik gabeko gizarte askatua amesten du. Benoist-entzat, Marcuse-k marxismo akritikoaren dogmatismoa eta aurrerapen teknologikoaren optimismoa, metafisiko bezala zuzen kritikatzeko du. Baina kritika hori metafisikaren ikuspegitik eginga dago. Negatibitatearen indarrak gizarte errepresibotik aterako gaituela oihukatzea, iraultzaren utopia sinestea, metafisika da. Benoist-ek Rousseau-rekin alderatzen du Marcuse. Marcuse *Aufklärung*-en Argien kontra dago, baina bera ere *Aufklärer* bat, Argien fededun bat, da.

d) Maoismoa, kastrismoa

68ko maiatzaren ondoan, Benoist-ek ohartzen duenez, gazte andana batek Txinan jarri du esperantza. Horregatik zer espero dezakegun Txinagandik galdetzea bidezkoa da.

Benoist-ek uste du Txinako kulturak bazuela eta baduela nor-tasunik aski Mendebaleko metafisikaren sareetatik libratzeko. Baina, gertatzez, Mao-ren pentsamendua, eta honek modelatu nahi duen kultura, mendebaleko pentsamendu arrotzaren eragin-pean dago. Marxismoaren kontzeptu metafisiko denak onartu

ditu: Iraultza, masa, kontzientzia, kontradikzioa etab. Europako filosofiaren ume dira.

Horregatik nahiko bitxia da, Benoist-en ustetan, gurea den zerbait Mao-rengandik ikasi nahia. Gure umearekin ezkondu nahi izatea da. Intzestua.

Behin eta berriz salatzen du Benoist-ek marxismoaren etnozentrismoa. Europako kultura, gizarte guztien kultur modelu bihurtzea. Etnozentrismoa hori bait da: Norbere kulturaren balio eta berezitasunetan itxi eta inoren bestelakotasunak ulertzeko gauza ez izatea⁵⁰.

Pentsamendu iraultzailea berez inperialista da, etnozentrista, metafisikoa delako; diferentziak eta ezberdintasunak derrigorrez identitatearen morrontzara behartu nahi dituelako.

Gauzak honela direlarik, maoismoa, trotskysmoa, kastrismoa eta beste edozein *ismo*, amets erraldoi iraultzaile inperialista horren pauso eta bihurgune besterik ez dira.

e) Lenin

Ondoren Lenin-en metafisikari ekiten dio Benoist-ek. Althusser benetan saiatu da Lenin-engan «filosofiaren praktika berria» josten. Baina Althusser-en eginahal guztietarik metafisikaren zeinu asko topatzen du gure autoreak Lenin-engan. Materialismoaren eta idealismoaren bereizkuntza bera metafisikaren ikus-puntutik dago egina. «Metafisikaren zeinu eta erizpide ez da ideiak materia menperatzea, presentziaren eta betetasunaren ontologia baino»⁵¹.

Metafisika ez dago filosofi alorrean soilik. Lenin-en pentsakera politikoan ere nabarmen gelditzen da ikuspegi metafisikoa: pribilejiatu gutxi batzuren egiazko ideologia jendoldeei kanpotik eman behar zaiela esaten denean, azpiegitura-gainegitura harremanak eskema kausalistaz ulertzen direnean, etab.

f) Marx

Benoist-en asmotan marxismo zuhaitzaren adarren mihaketa, sustraiak arakatzeko da. Eta epigonoen sustraia Marx da. Tradizio marxistaren erroa, bere erru eta meriturako, Marx da.

Azterketa hau marxismo modernoaren gain egina dago. Stalinismoaren zinismoa, «gauchismoa» eta humanismo esistentzialista eta kristaua gaingitzen saiatu den Althusser-en teoriaren gain.

Oso garrantzizkotzat ematen ditu Benoist-ek Althusser-en tesiak: ideologia-zientzia eta Marx gaztea-zaharra bereizkuntza, «superdeterminazioaren» kontzeptua, humanismoaren, historizismoaren eta finalismo ororen ukapena.

Baina borondaterik onenarekin ere, ez dago Marx zaharra salbatzerik. Feuerbach-ekin hautsi duen Marx helduak ere «presentziaren ontologiatik» ez du ihes egiten. Althusser-ek zientziakotzat ematen dituen testuei ere metafisikaren usaina hartzen zaie. «Gizon jenerikoa», «askatasunaren esperantza teleologikoa», «historizismoa», «historiaren sujetua», «proletalgoa», «masak», kontzeptu hauek ontologia klasikoan dute beren tokia.

Gizonaren berrikuntza eta askatasuna lortu dituela Marx-ek uste du. Salbamena. Eta kontzeptu honek gizonaren esentzia, berezkoa eta propioa duen zerbait suposatzen du. Kontzientzi jabetasunaren oinarrian ere giza sustantziaren kontzeptua dago. Masek Hegel-en atrazoiaren tokia hartzen dute. Horregatik Marx-ek Feuerbach-ekin eta Hegel-ekin hausten duenean ere, ideologoa zientifiko bihurtzen denean ere, ikuspegi metafisikoa uzterik ez du lortzen.

Materialismo historikoaren zientzitasuna ezin da onartu. Benoist-entzat, zientzia balitz, XIX. mendeko zientzia litzateke: positibista, mekanizista, kosista, ontikoa. Ez, XX. mendekoa. Honela mintzo da Benoist:

La révolution épistémologique dont Althusser a raison de rendre le marxisme auteur est néanmoins une révolution irrémédiablement passée qui ne trouve plus sa place dans le réseau des configurations et des modèles formels et épistémologiques contemporains... Hors du XIXe siècle, le marxisme ne saurait reprendre un souffle⁵².

Althusser-en eginahal guztiek ezin diote Marx-i bere positibismo eta ontologismo kutsurik kendu. Hala ere Althusser-ek, eta honen eskolak egin dutena txalogarria da. Alegia marxismoaren interpretapen humanistei, existentzialistei, subjektibistei, teologikoei, psikologikoei eta finalistei zintzurra bihurritu diete.

Marx hil da. Fede marxistaren apez eta lebitei birao honek belarrian min emango badie ere. Marx-en idoloa jo eta apurtzea da, haren testuak beste edozein pentsalarirenak bezala irakurtzen hasteko bide bakarra. Marx kanonizatuaren sektario dogmatiko eta mesianikoei irri egiteko eskatzen digu Benoist-ek. Ridikulizatze. Aginte grinaren zerbitzutan asmatutako pentsamenduak, sobietismoa, maoismoa, etab. bilutsik uzteko, profanatze-

ko. Eskubide dugu honez gero, Marx ere, Parmenides, Platon, Descartes, Leibniz, Spinoza, Kant, Hegel... bezala irakurtzeko.

2. Logos-en tirania eta Iraultza estrukturala

Marx-en hileta kantatu ondoren, Jean-Marie Benoist-ek bi liburu atera zituen 1975 urtean: *Tyrannie du Logos* eta *La Révolution structurale*.

Bi liburu hauen asmoa bikuna da. Lehenik, hogeitabost bat mendetan Europan iraun duen filosofiaren iturriak aztertu. Bigarren, orain, XX. mendean sortu den pentsamolde berriaren aurkezpena eta defentsa egin. Alegia, Platon-en azterketa eta estrukturalismoaren azalpena.

Bi liburuok ez diote filosofo berrien gai kuttunari hain zuzenki heltzen. Horregatik oso labur garbituko ditugu hemen horiekiko lanak.

a) Logos-en tirania ⁵³

Liburu honek orain arteko filosofiaren paradigma bezala Platon hartzen du. Sokrate eta sofistek arteko eztabaida. Benoist-ek begiak han ditu baina burua hemen. Platon-i buruz mintzo da, eta gaurkoaz ari zaigu. «Metafisika tirania da» oihukatzen digu.

Platonismoak, hizkuntzaren objektua zer-izanaren ideia dela deklaritzen du. Gauza edo izaki bakoitzaren naturaleza betikoa. Sofistek, aldiz, irri egiten dute esentzia eterno aldaezinen bizkarretik.

Sokrate-k eta Platon-ek, eta berdin metafisiko orok, gauza bakoitzaren esentzia hori lortzeko, «*proprium*» hori, guztiengan egon behar duen zerbait bereiz hori atzemateko, bereiztasun guztiak ezabatu, zapaldu, menderatu behar ditu. Horregatik da tiranoa Logos.

Sofistarentzat ez dago esentziarik. Gorgia-ren tesiak ezagunak zaizkigu: Ez dago ezer. Ezer balego ere ulertezina litzaiguke. Ulertuko bagenu ere ezin elkarri adieraz diezaiokegu.

Eskeptizismo honek logos metafisikoari tirania deritza. Gauzak hestutuz, moztuz, luzetuz, bihurtuz, zapalduz, behartuz bakarrik lor daitezke naturaleza, esentzia bezalako kontzeptu garbiak, unibertsalak, aldaezinak.

Benoist-en ustez, sofistaren ironia eta irria gereganatu beharra

daukagu. Bai zientzian, bai etikan, bai politikan dituen ondorioengatik.

Inperatibo etikoa, ideia unibertsalaren ezaguketan oinarritzen bada, etnozentrismoan erortzen gara. Gure ideia, betikoa eta unibertsala deklaratu ondoren, beste kulturei ezarri egiten diegu. Haien pentsamolde eta jokabideak gurera behar du makurtu. Honen aurka sofistak pluralismoaren eta errelatibismoaren ikurra altxatzen du.

Metafisikaren bortxakeria metaforikoa ez beste guztia da, politikara pasatzen denean. Platon-entzat ez dago alternatibarik: ideia distiratsuaren eskubideak ala ilunbeen erokeria. Ideiaren inperioa, agintea, edo Logos, Arrazoimena, On Gorena gurtzen ez dutenen anarkia zoroa. Justiziaren ideiaz, herriaren onaren ideia eternalaz jabetu den jakintsuak, filosofoak, du agintzeko eskubidea, boterea. Dakienak, agintea. Ez dakiena, isil bedi! Horra dakienaren ez dakienarekiko tirania justifikaturik.

Etnozentrismo kulturala, inperialismo politiko bihurtzen da. Gauzak eta izakiak molde bakarrera behartzen dituen pentsamendua, pertsonak ebaki, trokelatu, moldeatu, berdintzen dituen diktadura bilakatzen da. Ideien joko distiratsua, gizonak gorputz eta arima bortxatzen dituen makina totalitarioa bihurtzen da.

Identitatearen, berberatasunaren filosofia abandonatu behar dugu. Presokratiko bihurtu. Heraklito-ren ibaian murgildu. Diferentziak eta aldaketak logosen berdinkeriatik askatu. Mendebaleko pentsamoldeak hain zintzo beneratu duen logosen idoloa borraz jo behar dugu. Tiraniaren kontra altxa.

Benoist-en Platon-i buruzko azterketaren azpian ez dago interes filosofiko soila. Interes etiko eta politikoa ere hortxe dago, liburuaren sarreran espreski esaten denez.

Metafisika bota eta honen tokia estrukturalismoak hartu behar du.

b) Iraultza estrukturala

La Révolution structurale estrukturalismoaren apologia beroa da. Hil den edo hil behar duen metafisikaren ordeztu estrukturalismoa jaso behar da. Honek, aginduko badu, etsaia bere erreinutik herbesteratu behar du. Eta horixe egiten saiatzen da liburuaren lehen zatian. Humanismo teista edo ateo, marxismo humanista, existentzialismoa, teilhardo-marxismoa etab. uxatzen ditu.

Estrukturalismoak konkretuki onartu ezin dituen puntuak hauek dira: 1. Arrazoimen unibertsalaren kategoria unibertsalak

(*Tyrannie du Logos-en gaia*). 2. Historia haziz doan totalitate progressista bezala ulertzen duen pentsakera. 3. Suetua, gauzei, historiari eta abarri zentzua emateko gai litzatekeen printzipioa. 4. Humanismoaren mistifikazioa⁵⁴.

Jainkoari zerua lapurtu eta gizona jainko egiten duen *antropoteologiarentzat*, humanismoarentzat, oso gogorra da Benoist. Eta suetuaren eta humanismoaren aztarnak bilatzeko obsesioz egin-dako liburua da honoko hau.

Ez du dudarik egiten. Pentsamolde berrian sartu gara. Zientziak, historiak, etnologiak, psikologiak, biologiak, matematikek, fisikak, astronomiak, bakoitzak bere ikuspegitik, humanismoaren gezurra salatu dute. Delako suetu horren hipotesiarekin abiatu ziren jakintza denak, eta inon ez dute aurkitu. Eta aurkitzerik ez dagoela idoro dute. Gaurko zientzien pentsamolde berriari dago-kion filosofia, estrukturalismoa da.

Estrukturalismoak marxismoa ere metafisikaren zakuan sartzten du. (Gogora *Marx est mort*). Althusser-en saioan garbi asko azaltzen denez. Marxismoa pentsamolde zaharra da. Parmenidoren eta Platon-en umea. Eta kontradikzioaren eta gainegitura-azpiegituraren interpretapen estrukturala, «antihumanista» eta «antihistorizista» egiten hasi ordukoxe, kontzeptu metafisiko horiek eskutan lehertu zaizkio Althusser-i. Logos dialektikoa, logos metafisikoaren ahaidea da. Marx-ek ez dauka salbaziorik.

Estrukturalismoak dioenez, Jainkoaren ordeaz ez da gizona jarri behar. Ez dago Jainkorik; ez eta gizonik. Estrukturak daude.

Finalismoaren eta suetuaren ukazio den estrukturak ezin du onartu Chomsky-ren tesirik. Honek hizkuntza guztien estrukturen desberdintasunen azpitik, batasuna, gizonaren pentsamenduaren berdintasun harrigarria ikusten du. Eta hori esplikatzeko, gizonari berezko zaion estruktura innatoa ametitzen du. Benoist-entzat, Chomsky-ren tesiak, enpirismo eta behaviorismo positibistaren kontrako saio bezala biziki interesgarri badira ere, estrukturen innejismoarekin eta unibertsaltasun horren hipotesiarekin esentzialismo metafisiko kartesianoruntz labaintzen dira. «Iraultza estrukturentzat ez dago inolako naturarik. Giza natura eta biziduna sare estrukturen bariazio eta aldaketa besterik ez dira»⁵⁵.

Estrukturalista izate hori nonbait ez da gauza samurra. Anti-metafisikorik amorratuenera ere etxera sartzten zaio etsaia, gutxien uste duenean. Horrelako zerbait gertatzen zaio Monod biologo estrukturentzako ospetsuari, eta, ikusiko dugunez, Lévi-Strauss-i, estrukturentzako guraso eta fundatzaileari berari.

Monod-en *Le Hasard et la nécessité* liburuan kontradikzioa dago. Zientzia gizon, biologo den aldetik modernoa da; gaurko pentsamoldearen estiloan mugitzen da. Baina filosofia egiten hasen den ordukoxe XVIII. mendeko naturismoaren, finalismoaren metafisikara pasatzen da. Monod-en «teleonomia» kontzeptuak Jainko edo giza sujetua baztertuagatik, finalismoan gelditzen da⁵⁶. Beste hainbeste dio Benoist-ek, hemen esplikatzetik ez daukagun «éthique de la connaissance» kontzeptua analizatzen duenean.

Inor antimetafisikoa bada, Lévi-Strauss da hori. Baina honi ere metafisikoaren belarria ikusten dio Benoist-ek. Honen ustez, mito guztien estruktur diferentzien azpiko batasun nagusia esplikatzeko, oinarrizko estruktura, *Ur-struktur* edo metaestruktura proposatzea, oinarri metafisiko baten bila abiatzea da.

Benoist-en asmoa, bada, estrukturalismoaren ikuspegia azken-eraino eramatea da. Honen eskakizunak betetzea erraza ez beste guztia da. Sujeturik gabe, helbururik gabe, historiarik gabe, arrazoin unibertsalik gabe ohitu behar dugu. Analisi estrukturala egitea zaila da, sare estrukturalako elementuen harremanak, kontenidoak kontutan hartu gabe aztertzea eskatzen duelako⁵⁷.

Sujetibitatearen eta beste kategoria metafisikoen herbestera-tzeak ez ditu, ordea, problema denak konpontzen. Orain arte bete duten eginkizuna estruktura baitan teorikoki nola integratu problema latza da. Soluziobideren bat irekitzen saiatzen da Benoist liburua azken partean, Leibniz eta Kant filosofoen kategoria batzutatuz baliatuz.

IV. BESTE FILOSOFO BERRIAK

Aztertu ditugun pentsalari hauetaz gain beste batzu ere zerrendatzen dira filosofo berrien artean. Aipamen soila bederen zor diegu.

1. Jean-Paul Dollé

Autore honek obra hauk argitara ditu: *Le Désir de révolution* (1972), *Voies d'accès au plaisir* (1974), *Le Myope* (nobela), *Haine de la pensée en ces temps de détresse*. Azken hau da ziurrenik filosofo berrien artean ezagunena. Eta bertan aurki daitezke metafisikaren ukapena, arrazionalismoaren salaketa, marxis-

mo metafisiko eta arrazionalistaren kondena, boterearen ikuspegi hutsa eta beltza. Hona adibidetro bat:

*L'essence du pouvoir, c'est la perversion parce que l'essence du pouvoir, c'est le pouvoir absolu. Il n'y a pas de pouvoir qui ne veuille être pouvoir absolu. Tous ceux qui sont au pouvoir ne sont pas pervers, mais il est de l'essence du pouvoir de tendre à la perversion et, justement, la seule borne à cette perversion du pouvoir, c'est la loi*⁵⁸.

2. Guy Lardreau — Christian Jambet

Bi filosofo gazte hauek badituzte bakoitzak bere aldetik idatzitako liburuak. Baina elkarrekin argitaratutako *L'Ange*-rekin ukan dute arrakastarik zabalena.

Bi autoreok, beste filosofo berri asko bezala, 68ko maiatza pertsonalki bizi izan zuten. Gero «Ezker proletarian» militante izan, eta iraultzaren ezinez etsita, autokritika egin dute eta ez direla sekula militante izango promes egin.

Hauen ustez, Argialdiaren eraginez datozkigun iraultza proiektuak ez dira aski iraultzaile. Kontinuismoan daude. Errealitate hau aurrera potentziatuz, zerbait berririk sortuko dela uste dute. Erdi Haroko edozein lekaide gizarajo iraultzaileago zen bere amets apokaliptikoetan. Pentsamendu arrazionalista progresista-kontinuista hori da marxismoaren muin erreakzionarioaren sorrera.

Hauen ustez, Gulag da ezkerren egia; ezkerren ametsaren logikari dariona. Gulag, nora goazen markatzen digun orratza. Gaur gelditu zaigun aukera bakarra zera da: Nagusi txar guztien artean alprojarik kaskarrena hautatu. Agintedunaren hautapena sentimen etikoz egin. Eskubiko edo ezkerreko Nagusia? Taktika kontua da.

3. Maurice Clavel

Orain artean aipatu ditugun filosofo berriak ateo edo agnostiko dira. Bada, baita, hauen mugimenduarekin bat egiten duen kristau bat: Maurice Clavel. Norbaitek gazte hauen osaba zaharra deitu dio.

Antimarxista sutsua eta ezaguna da Clavel. Marxismoa, analisi-rako eta kritikarako lanabes zientifiko ona dela esatea, esan daitekeen burugabekeriarik mardulena da. Clavel-entzako ere kon-

zentrapen zelaien sustraia Marx-engan bilatu behar da. Gulag-en erantzukizun nagusia Marx-ena da.

Clavel-ekin polemizatu duen marxista eta komunista askok, hark Gulag fenomeno aipatzerakoan, inkisizioa gogoratzen dio. Kristautasunaren historian badira noski makina bat azio lotsatzeko direnak, eta fededunak, apologetika apur batekin eta pazientzia gehiagorekin eraman behar izaten dituenak. Taxu hortako konparazioak, inor komentzitzeko alferrikakoak izateaz aparte, justizia eskasekoak izan ohi dira. Clavel behintzat sutan jartzen dute. Inkisizioa eta kontzentrapen zelaia biak dira izugarrikeria. Baina bi izugarrikerien artean desberdintasun nagusi bat dago behintzat. Inkisizioa zoritxarreko kristautasunaren saldukeria den bitartean, Gulag-en sarraskia marxismoaren logika zuzenetik dator.

Filosofia politikoari buruz bi helburu hauek ditu Clavel-ek. Batetik boterearen filosofoen kritika egin, Nagusiak aldamenean duen Machiavelli guztiak larrutu. Eta bestetik askatasun promes oparoak egiten dizkiguten filosofo denak salatu. Arrazoimena, dialektika progresista, eta tamaina horretako kontzeptuak, morrontza berrien bide izan dira.

Clavel-ek filosofo berriak defendatu egiten ditu. Hauen filosofia kultur haustura baten hasiera dela uste du. Eta hainbesteko gorrotoz hartzen badute mugimendu hau, erlijioso izan gabe izpirituala delako omen da.

V. BUKATZEKO

Ohar batzu egitea falta zait. Filosofo berri denak nahas mahas hartuko ditut, denak batera katalogatzerik ez dagoela jakin arren.

1. Esperantzaren ehorzle

Nazka, tristura, etsipena sortzen dizu filosofo berrien irakurketak. Konturatu zarenerako betilun zaude. Boterearen kondaira hori bada, eta biharkoa itunagoa izango bada, zertarako saiatu nagusi korbataduna botatzen, Nagusi brusadunak haren jargoia har dezan? Zertarako faxismoa borrokatu, totalitarismo gorria faxistagoa bada? Zertarako inongo militante izan, botereak erremediorik ez badu, iraultzarik posible ez bada?

Militanteari su ematen dion esperantza hil digute. Hil eta zulo sakonean ehortzi. Bagenekien zerurik ez dagoela, baina azkenik gabeko haruntzako bidetik genbiltzala uste genuen. Zer egin, ifernurako beste biderik ez badago? Kateak hautsi ordez, findu eta sendotu bakarrik egingo baditugu? Esperantza tranpada!

Galdetzekoa da, ordea, ifernua atzeratzeko bakarrik baldin bada ere, erresistentzia posible dela diotenean, gogor salatzen duten esperantzaren tranpan ez ote diren erori. Erraza da metafisikak eta humanismoak mito bezala zabortegira botatzea. Baina gelditzen den arazoa hau da: «mito» horiekin adierazi nahi den errealitatea nola teoria mailan eman, beste ikuspegi berri batetan, estrukturalistan nahiz beste edozeinetan? Errealitaterik baldin bada behintzat... Bestela esan diezadatela nola funtzionatu behar duen gizonak errealitate «humanista» horiek gabe. Errealitate horien adierazpen «humanistak» bota eta ordezkorik ezkaintzen ez denean, gizonari zerbitzu eskasa egiten zaiola uste dut. Eta Filosofo berriek ez digute ordezko gauza haundirik ematen. Benoist batek sujetu eta historiaren zentzu eta askatasuna eta natura eta abar obsesiboki metafisikaren ume bezala kondanatzen dituenean, Monod eta Lévi-Strauss metafisiko bezala persegitzen dituenean, ukapen eta kondena topikoan dabilela dirudi. Eta irudi hori konfirmatu egiten zaizu soluzio teorikorik eskaintzerakoan agertzen duen ahuleziarekin.

Seriotasun falta nabaritzen zaio Lévy-ri ere pesimismoaren printzipioa azkeneraino eraman nahiez, sistema pesimistan integratu ezin dituen dato eta errealitateak hor konpon uzten dituenean. Hala nola Indibidua, askatasun formalak, erresistentziaren efikazia etab. Snobismo kutsua hartzen diozu orduan sistema pesimistari. Alde horretatik Lévy literato ona eta filosofo kaskarra iruditzen zait. Kaskarrena agian.

Pentsalari honen filosofi ahuleziaren beste adibide bat agertu nahi nuke. Historizismo progresista ume eta guzti kiskali nahi du. Ordez errealitate pesimistaren gaua proposatzen du. Ez gaude gizonaren egunsentiaren aurrean, ilunabarrean baino. Baina azkenean egunsenti edo ilunabar, interpretapen eta ikuspegi diferentzia dago bakarrik. Lévy-ren eskema ere historizista da. Alderantziz ikusia. Negatiboan. Zerua eta harako bidea ukatzen ditu, ifernua eta harako bidea ametitzeko.

2. Marxismoaren berrero

Bigarren Gerra ondoko mukizu hauek *intelligentziari* «Marx hil dela» oihukatzen diote. Beraz *intelligentzia* egina, ezkerrekoa, iraultzailea, serioa, heldua, gaurko eta biharko historia eta politikaren jaun eta jabea, xoil xoil esanda, bibolina jotzen aritu da. Marx-ek adarra majo jotzen zion bitartean.

Marxismoaren zientziak erabilgarritasun praktikoko minimo-rik ez duela; pentsamendu zaharkitu eta aspaldikoa dela; askatasun zientzia izan ordez diktadur makina eraginkorragoa dela; ez dela zientziarik beste ideologia merke bat baizik; guzti hau ezin du entzun marxista zintzoak, arrazoin guztiz, haserretu gabe; bere burua iraindua eta kakaztua ikusi gabe; bere zientziaren eta filosofiaren ohorea zikindua ikusi gabe.

Intelektual marxista modernu eta kritikoa bazekien Mao filosofo ximpleegia zela, herri xehearentzako modukoa; Lenin-ek ere serioegi irakurtzeak ez duela merezi; Engels-ek galbahe lasai samarretik pasatu arren ez duela askorik ematen. Marxista ausartak bazekien Marx bera ere ez dela ukitu ezina; zenbait pundutan zuzendu, osatu, zentsuratu eta purgatu beharra dagoela. Baina edozein marxistarentzat gehiegixto da Marx-ek dituen pundurik onenak, bere intuizio, asmakizun eta iradokizun iraultzaile eta jenialek ekarri dutela totalitarismoa entzutea. Ez dela Marx deformatua, dogmatikoa, gaizki interpretatua, Marx zuzena, iraultzailea, zientifikoa, ona baino, purgatu eta salbatzen den Marx hori, Gulag-eko hilketen errudun dena. Marxismoak, ondo aplikatuz gero, ekarri duen horixe ekarri behar du.

Tamaina honetako arrazoiketa absurdoa da marxistarentzat. Absurdoa Marx-en mitoa batere errespetorik gabe eta distinguerik gabe akabatzea. Absurdoa Marx-en lotsakizuna biluzik, tapaki kritikorik gabe uztea. Horixe ezin die barkatu Marx-en berreroei⁵⁹.

3. Benetako problemak

Inork ez du sinesten, nire ustez, gazte hauek filosofo berri-rik direnik. Beraiek inork baino gutxiago noski. Baina hauen liburuen inguruan soilu den eztabaida ozpindu horretan benetako problemak daude. Ez dakit nik filosofo taxuzko diren; Platon, Descartes, Rousseau, Leibniz, Schopenhauer, Fichte, Hegel, Marx,

Nietzsche, Freud, Mao, Lévi-Strauss eta aipatzen dituzten hainbat filosofo, atzoko eta gaurko, ongi ulertzen eta interpretatu dituzten, ala axola zaiena esanarazten dieten. Baina benetako problema ideologiko eta politikoak daudela tarteko iruditzen zait. Berriak ez direnak, baina pentsamendu politiko ezkerak oraindik ere irentsi ez dituenak; eta irentsi baditu liseritu ez dituenak.

Hona bi gertakizun: Kontzentrapen zelaiak XX. mendean, eta askatasunaren izenean, sortzea; eta Partidu komunista, marxismoaren harma eta guzti, zelai horiek eragozteko gauza ez izatea. Bi fenomenook galdera dira edozeinentzat, batez ere sarraski horiek gertatu diren tradizio marxistan bere burua, ametsak, asmoak ikusten dituen pertsona, alderdi edo mugimenduentzat. «Errorearen» aipuak eta ipuinak komentzitu beharrik ez daukana besterik ez du komentzitzen. Eskapo egitea da!

Hona Edgar Morin-ek nola zehazten duen problema hau ⁶⁰:

— Explotazio, zapalkuntza eta menderapen kontzeptuek kapitalismo eta prekapitalismoarentzat ezezik ez ahal dute balio herri sozialistetan sortu diren zapalkuntza, explotazio eta morrontza modu berrientzat? Kapitalismoa al da gaurko gure gaitzen (gerrak, kontzentrapen zelaiak, morrontza, polizi errepresioa) errudun bakarra?

— Zelaiak ezkututzen edo Sobiet Batasunari akzidental eta kontingente zaizkiola esaten jarraitu behar al dugu? Totalitarismo hitzak ez al du balio Sobiet Batasunarentzat eta Txinarentzat?

— Marxismo sakralizatuak Sobiet Batasuneko agintearen errealtatea argitu baino gehiago ezkutatu egiten duelarik, itsumen horrek ez al du morrontza berri gehiago sortuko?

— Ez al da gaur esan behar, Marx, pentsalari jeniala baina kontradiktorioa dela, beharrezko baina eznahiko?

— Sozialismo deitu behar badiogu gure askatasun ametsari, ez al diogu sistema sobietikoari sozialista hitza ukatu behar?

— Errusiako kontzentrapen gizarteak, totalitarismoak, burokrazia zanpatzaileak, progresistatzat jotzen den basakeriak, ez al du aspaldi hasi baino berehala utzi zen analisi sakonik merezi?

Hauek, Filosofo berrien balioa aurrez epaitu nahi gabe ere, benetako problema dira. Baina filosofo berriek badute interesik teknokraziaren eta kapitalismo zuzenduaren itxaropenetan bizi direnentzat ere.

4. Boterearen arazoa

Filosofo berriek, saihets guztietatik, planteatzen duten arazoa boterearena da.

Tradizio marxistak uste hau sartu du gure pentsamoldean: boterea, agintea, agintaria, ekonomi indarren, harreman sozialen kontradikzioen arabera doazela. Base ekonomiko-sozialak markatzen duen doinua dantzatzen du aginte politikoak. Eta tesi jeneralizatu hau da filosofo berriek zuzen zuzenean ukatzen dutena.

Boterea ez da epifenomeno bat. Ekonomiak badu dudarik gabe eraginik politikan. Baina arlo politikoak bere independentzia eta beregaintasuna du. Ondorio hori atera behar litzateke, boterearen funtzionamendu historikoa ikusirik. Harreman sozialak eta errejimen sczio-ekonomiko desberdinen edo eraldatuen edo iraulien gainetik jokabide berdintsuak aurkitzen dizkiogu botereari. Aldaketa benetan sakonik ezin daiteke itxaron.

Hala ere, nire ustez, filosofo berrien botere teoria beltz, negatibo eta beldurgarri horrek egiten duen bezala, ez dira errejimen politikoen desberdintasunak ezabatu behar. Hitler, Stalin, Franco, Churchil, De Gaulle, Mao, Breznev, Suarez, Andreotti, Carter, Videla, Pinochet, ez dira berdinak. Gutxiagorik ere. Boterearen esentzia beltzaz mintzatuko litzatekeenarentzat bakarrik dira berdinak. Filosofo berriek horrelako esentzia batekin jokatzen dutela uste dut. Metafisikaren ukatzaile metafisiko ote?

Baina benetakoa da boterearen arazoa: absoluto izan nahia, totalitario izateko joera, gizarte ehunaren zelula guztiak kantzer batek bezala jateko irrika. Administrazioaren baitan badago zerbait, gizarteari zor zaion zerbitzu tekniko, egoki, eta sotila izan beharrean, gizartearen zanpatzaile eta jauntxo izatera bultzatzen duena. Botereak badu, nonbait, agintedunaren borondate on eta txar guztien gainetik, objetiboki totalitario izatera, diktadurara makurtzen duen zerbait.

Jakintzak, humanistak nahiz estrukturalistak, badute lanik boterearen mekanismoak ezagutzen. Amets egiteko baimena kendu digute filosofo berriek, boterearen berezko joera edo izaera totalitarioaz mintzatzean, eta boterearen eskarmentu historikoa gogoratzen digutenean.

Filosofo berriak ez dira historiara pasatuko zerbait berririk asmatu dutelako. Gehienbat betiko arazoak birplanteatu besterik ez bait digute egin. Baina hori bai: zorrotz, eta garratz, umore txarrez eta estalkirik gabe, garrasika eta ia etsita.

¹ Glucksmann-ek argitaratu dituen liburuak hauek dira: *Le discours de la guerre*, L'Herne 1967; *Stratégie et révolution en France*, Christian Bourgois 1968; *La cuisinière et le mangeur d'hommes*, Seuil 1975; *Les Maîtres penseurs*, Grasset 1977. Hemen aztertuko dugun lehen liburua gaztelarazko itzulpenean egingo dugu: *La cocinera y el devorador de hombres. Ensayo sobre el Estado, el marxismo y los campos de concentración*, Edit. Madrágora, Barcelona 1977.

² A. GLUCKSMANN, *La cocinera y el devorador de hombres*, 35 or.

³ *Ibid.* 80-81 or.

⁴ *Ibid.* 133 or.

⁵ *Ibid.* 59 or.

⁶ *Maîtres Penseurs* euskaratzerakoan ez dakit *Maisu Pentsalariak* baino hobeto ez ote legokeen *Nagusi pentsalariak* edo *Jauntxo pentsalariak*. «Maître» frantsesak *maisugoa* baino areago *agintea* adierazten bait du. Gaztelaraz *Maestros-Pensadores* itzuli dute, baina beharbada hobeki egongo zen *Amos-pensadores*. Dena den, itzulpen bat nahiz bestea erabili, esannahi bikoitz hori kontuan eduki behar da, bi esannahiekin jokatzan du eta autoreak. Guk *Maisu Pentsalariak* eta *Nagusi Pentsalariak*, biak, erabili ditugu.

⁷ ANDRE GLUCKSMANN, *Las Maîtres penseurs*, Grasset, 1977, 118-120 or.

⁸ *Ibid.* 106 or.

⁹ *Ibid.* 138-141 or.

¹⁰ *Ibid.* 24-29 or.

¹¹ *Ibid.* 39 or.

¹² *Ibid.* 291 or.

¹³ «La democracia nace y vive de la posibilidad de levantarse cotidianamente contra la ley de los poderosos... La calle, la huelga, la opinión libre. Tantas franquicias históricas que la plebe europea se ha esforzado en conquistar y otras tantas que los dominadores intentan vaciar de toda verdad popular; pero no hay que abandonarlas como si fueran cáscaras vacías porque el hecho de obligar a respetar su sola existencia impide los campos de concentración». *La cocinera y el devorador de hombres*, 209 or.

¹⁴ *Ibid.* 141 or.

¹⁵ *Ibid.* 207 or.

¹⁶ *Ibid.* 19 or.

¹⁷ Deleuze-ren eskolaren tesiak ere kontutan ditu Lévy-k. Honen liburuaren hariak kontrapuntu polemiko bat, Deleuze-ren *Anti-Oedipe* liburu ospetsua du. Baina *Anti-Oedipe*-ren tesiak ulertzea samurra ez delako batetik, Lévy-ren pentsamendu orokorra jasotzeko hainbeste laguntzen ez delako bestetik, eskola deleuzianoari buruzko erreferentziak arras utziko ditut lan honetan. Deleuze da filosofo berrien etsairik amorratuenetakoa. Ikaragarriak esan dizkie.

¹⁸ BERNARD-HENRI LEVY, *La barbarie à visage humain*, Grasset, 1977, 31 or.

¹⁹ *Ibid.* 35 or.

²⁰ «Il y a peut-être, il y a sûrement, dans le fait même des sociétés, quelque chose qui les voue à la servitude et au malheur. Il y a peut-être, il y a sans doute quelque chose dans le pur fait de se rassembler, qui rend le Maître nécessaire, que dis-je inévitable». *Ibid.*

²¹ *Ibid.*, 37 or.

²² «Résister au malheur? si la domination n'est rien, si elle n'a pas de principe, il n'y a pas, contre elle, de résistance possible... Détrôner le prince? si le Prince n'a pas de trône et pas de lieu assigné, on ne l'atteint nulle part, et nulle part on ne peut viser le noyau de son éminence». *Ibid.* 29 or.

²³ *Ibid.* 49-50 or.

²⁴ *Ibid.* 50 or.

²⁵ Après tout pourquoi parle-t-on? Les philosophes l'ont assez répété: parce que les hommes vivent ensemble et échouent à communiquer. Lacan l'a montré à sa façon: parce que les hommes ont un corps, et que les corps ne peuvent se rejoindre. S'il y a de la parole c'est qu'il y a de la socialité et que la socialité, c'est la guerre» *Ibid.* 53 or.

²⁶ «C'est le propre du pouvoir en un mot, c'est sa fonction et sa vocation que de modeler et découper le Réel en tant que tel». *Ibid.* 58 or.

²⁷ *Ibid.* 59 or.

²⁸ «Mais il y a encore autre chose. Quelque chose qu'il faut penser aussi, pour l'inscrire au fronton de notre politique provisoire. L'individu n'est rien que de l'État, soit: mais l'expérience prouve hélas que l'État sans l'individu, c'est la violence nue et les camps. La volonté propre n'est rien que le relais de la volonté du Maître, soit encore: mais l'expérience prouve toujours que, sans l'illusion de celle-ci, celle-là a tôt fait de sombrer dans la pire des barbaries. A preuve le totalitarisme stalinien, le fascisme ou la terreur jacobine». *Ibid.* 83-84 or.

²⁹ *Ibid.* 90 or.

³⁰ *Ibid.* 87 or.

³¹ «Contre toutes les pensées qui expliquent les sociétés par leurs principes de division mieux que par ceux de leur unité, qui croient les clivages plus lourds que l'harmonie et l'homogénéité, qui envisagent le devenir sous l'aspect de ses déchirements, — il faut redonner lustre à des pensées archaïques qui disent tout le contraire, il faut dire que l'unité prévaut toujours sur la division, que le conflit sert à l'harmonie et que c'est dans l'identité qu'est l'intelligence du monde». *Ibid.* 125 or.

³² *Ibid.* 111 or.

³³ *Ibid.* 142 or.

³⁴ *Ibid.* 154 or.

³⁵ *Ibid.* 156 or.

³⁶ Aginteari buruzko Kristautasunaren dotrina Lévy-k dioen eskema horretantxe kokatzen da. Batetik, agintaritzak Jainkoagan da bere iturburu: «Guztiak egon daitezela agintarien menpean, Jainkoagandik ez datorren agintaritzarik ez dago eta; eta direnak, Jainkoak jarrita daude. Beraz agintaritzaren kontra jartzen dena, Jainkoaren asmoaren kontra altxatzen da». (Erromatarrei 13, 1-2). Bestetik, apostoluek Sanedrin buruei emandako erantzuna: «Jainkoari gizonei baino lehenago obeditu behar zaio» (Apostoluen Eginak, 5, 29).

³⁷ B.-H. LEVY, *o. c.* 155.

³⁸ *Ibid.* 173-174 or.

³⁹ *Ibid.* 178 or.

⁴⁰ *Ibid.* 181 or.

⁴¹ *Ibid.* 182 or.

⁴² «Pas de camps, sans marxisme, disait Glucksmann. Il faut ajouter: pas de socialisme sans camps, pas de société sans classes, sans sa vérité terroriste». *Ibid.* 184. Ikus *Ibid.* 182-185 or.

⁴³ *Ibid.* 197-205 or.

- ⁴⁴ *Ibid.* 217 or.
- ⁴⁵ *Ibid.* 220 or.
- ⁴⁶ Ikus 28 oin oharra.
- ⁴⁷ Ikus *Ibid.* 223-226 or.
- ⁴⁸ JEAN-MARIE BENOIST, *Marx est mort*, Gallimard, 1970, 50 or.
- ⁴⁹ *Ibid.* 97 or.
- ⁵⁰ Etnozentrismoa zera da: «Un ancrage dans les catégories de sa propre culture, dans les valeurs de son propre code, qui lui interdit de déployer une écoute attentive à l'altérité de l'autre. Cette attitude, qui consiste à identifier ses propres valeurs avec les valeurs humaines en général, n'est pas seulement sur le plan éthique une grave source d'intolérance, elle est aussi, sur le plan scientifique, un grave obstacle épistémologique». *Ibid.* 161 or.
- ⁵¹ *Ibid.* 179 or.
- ⁵² *Ibid.* 241 or.
- ⁵³ Ikus JEAN-MARIE BENOIST, *Tyrannie du Logos*, Les éditions de Minuit, 1975.
- ⁵⁴ JEAN-MARIE BENOIST, *La révolution structurale*, Grasset, 1975, 63-64 or.
- ⁵⁵ *Ibid.* 176 or.
- ⁵⁶ *Ibid.* 179 or.
- ⁵⁷ «Une analyse... est structurale, et n'est structurale que lorsqu'elle fait apparaître un contenu comme modèle, c'est-à-dire lorsqu'elle sait isoler un ensemble formel d'éléments et de relations sur lequel il est possible de raisonner sans faire appel à la signification du contenu donné» *Ibid.* 203 or.
- ⁵⁸ JEAN-PAUL DOLLÉ, *Haine de la pensée en ces temps de détresse*, Hallier, 1976, 96 or.
- ⁵⁹ Marxismoarekin hain gogorra den Castoriadis batek, adibidez, hauxe idatzi du filosofo berriei buruz: «Détournant la critique de Marx que nous avons faite dans une perspective politique, praxique, révolutionnaire —critique qui dégageait précisément l'héritage capitaliste, occidental, dont Marx était resté prisonnier, donc: ce qui chez Marx restait en deçà d'une visée révolutionnaire—, elle (la nouvelle vague des divertisseurs — soit les nouveaux philosophes) essaie d'en tirer cette conclusion absurde: c'est précisément en tant que révolutionnaire que Marx aurait engendré le Goulag». Ikus *Le Nouvel Observateur*, 1977 ekainak 20.
- ⁶⁰ Ikus *Le Nouvel Observateur*, 1977 ekainak 27.

M. P.

LOS NUEVOS FILOSOFOS LES NOUVEAUX PHILOSOPHES

El artículo se propone presentar, sintéticamente y casi sin observación crítica, a los Nuevos Filósofos. Se estudian tres autores: Glucksmann, Lévy, Benoist.

1. André Glucksmann. En *La cocinera y el devorador de hombres quiere*

analizar el significado de los campos de concentración respecto al Estado y al marxismo. Hay que empezar por reconocer la realidad de los campos en toda su atrocidad, y sin tapujos ideológicos. Los campos han sido posibles gracias a una ideología que justificaba la omnisciencia y omnipresencia e impunidad del poder estatal. Glucksmann rechaza decididamente las interpretaciones de quienes califican de «error», los campos, debido al culto de la personalidad, o a la estructura socio-económica o al entorno internacional. Los campos no son un fenómeno accidental. Revelan la entraña del sistema soviético, inspirado por el marxismo. Stalin, Lenin y el propio Marx son responsables directos de los campos, al otorgar el poder absoluto a un Partido y a un Estado en posesión del secreto de la historia.

La doctrina marxista del poder no es apenas original. Se inserta en una larga tradición de la filosofía política, que tiene en Platón su primer exponente importante. Glucksmann estudia, en *Les Maîtres penseurs*, el pensamiento político de cuatro filósofos alemanes del s. XIX: Fichte, Hegel, Marx, Nietzsche. Estos comparten la euforia de la Ilustración; son entusiastas de la Revolución de 1789, y del Estado jacobino fuertemente centralizado. Ponen las bases teóricas de los Estados totalitarios del s. XX: los derechos del poder, en posesión de la ciencia, de decidir los destinos de la totalidad nacional, por encima de los intereses privados, que se consideran carentes de perspectiva histórica.

Glucksmann llama a la resistencia contra el poder totalitario: desmitificando su omnisciencia y utilizando las libertades formales, cuyo juego más o menos libres es lo único que distingue a los diversos regímenes, evitando el que la humanidad sea un gigantesco «Archipiélago Gulag».

II. Bernard-Henri Lévy. *La Barbarie à visage humain* comienza por estudiar la entraña del Poder. El Poder no es un fenómeno derivado de intereses de clase. El Poder y sus mecanismos de dominación acompañan a la sociedad desde los orígenes. No hay hombre sin sociedad. No hay sociedad sin Poder.

Luego Lévy desmitifica muchos presupuestos de quienes piensan que el poder que es dominación y explotación, no lo será cuando desaparezcan las relaciones socio-económicas de clase. Critica los conceptos de la bondad del hombre, el sentido de la historia, la desaparición del Estado, la supuesta capacidad del individuo de escapar al poder.

Todos estos mitos, que adolecen de una concepción historicista y progresista de la humanidad, se encuentran en el socialismo de cuño marxista. Lévy niega el valor científico de los conceptos de un Proletariado con misión universal de liberación, y de un Capitalismo destinado a ser suplantado por aquél.

El autor analiza el totalitarismo y sus formas. La barbarie totalitaria no es nueva. El Poder siempre ha intentado ser absoluto. Si en los últimos tiempos hemos conocido el fascismo y los campos, se debe en gran parte a la crisis de lo Sagrado que sostenía y limitaba al Poder a un tiempo. La soberanía absoluta de los dioses la ha heredado el Poder.

Por último se analizan el socialismo soviético a la luz de los campos, y el porvenir que nos aguarda bajo el imperio de la técnica. El marxismo es responsable de Gulag; es «el gran opio de los pueblos».

No obstante la concepción pesimista del Poder, totalitario por naturaleza, Lévy invita a adoptar un compromiso ético de resistencia. No nos libe-

raremos de las redes del Poder, pero, al menos, retardaremos el infierno, la decadencia que nos amenaza; se prolongará el crepúsculo.

III. Jean-Marie Benoist. Se analizan tres libros: *Marx est mort*, *Tyrannie du Logos* y *La révolution structurale*.

El primero de ellos tomando pie en Mayo 68, va detectando los signos de una «ontología de la presencia», filosofía caduca y que no corresponde a la episteme del s. XX. Para Benoist, los protagonistas de Mayo 68, estudiantes, comunistas, gaullistas y los intérpretes de dicho movimiento, se mueven en un mundo metafísico. A continuación denuncia los restos de Metafísica, presentes en Marcuse hombre del «Aufklärung», pese a sus aportaciones positivas Mao, Lenin, Marx. No obstante la labor teórica de Althusser, Lenin y Marx son hijos del pensamiento de la ilustración. Marx es positivista y metafísico. Marx ha envejecido y muerto para los hombres del s. XX.

Tyrannie du Logos, exponiendo la polémica entre Sócrates y los sofistas a través de los textos de Platón, se analizan las raíces de la Metafísica que ha afectado a la cultura y filosofía occidentales durante 25 siglos.

La alternativa actual es el estructuralismo. En *Révolution structurale* se expone cómo se debe pensar sin sujeto, sin sentido de la historia, sin humanismo, sin esencia, sin naturaleza. Las exigencias del estructuralismo son radicales y revolucionarias. Por no satisfacerlas, critica a Monod y al propio Lévi-Strauss.

IV. Se refiere brevemente a otros Nuevos Filósofos: Jean-Paul Dollé, Guy Lardreau, Christian Jambet y Maurice Clavel.

V. Por último se recogen unas consideraciones sobre el carácter pesimista y desesperanzador de la filosofía política de los Nuevos Filósofos, su crítica al marxismo, y el valor positivo que representan, al poner sobre el tapete de forma inaplazable problemas reales que no se han planteado con suficiente radicalidad.

L'article se propose de présenter synthétiquement, et presque sans observation critique, les Nouveaux Philosophes. Parmi eux, trois auteurs: Glucksmann, Lévy, Benoist.

I. André Glucksmann. Dans *La cuisinière et le dévorateur d'hommes*, il veut analyser la signification des camps de concentration par rapport à l'Etat et au marxisme. Il faut d'abord reconnaître la réalité des camps dans toute leur atrocité et sans réserves idéologiques. Les camps ont été possibles grâce à une idéologie qui justifiait l'omniscience, l'omniprésence et l'impunité du pouvoir de l'Etat. Glucksmann rejette résolument les interprétations de ceux qui qualifient «d'erreur» les camps dû au culte de la personnalité, ou à la structure socio-économique ou à des influences internationales. Les camps ne sont pas un phénomène accidentel. Ils révèlent les entrailles du système soviétique, inspiré par le marxisme. Staline, Lénine et Marx lui-même sont responsables directs des camps en accordant un pouvoir absolu à un Parti et à un Etat en possession du secret de l'histoire.

La doctrine marxiste du pouvoir est peu originale. Elle s'insère dans une longue tradition de la philosophie politique, qui a en Platon son premier protagoniste important. Glucksmann étudie, dans *Les Maîtres penseurs*, la pensée politique des quatre philosophes allemands du XIXème siècle: Fichte,

Hegel, Marx, Nietzsche. Ceux-ci partagent l'euphorie des Lumières; ils sont enthousiastes de la Révolution de 1789, et de l'Etat jacobin fortement centralisé. Ils posent les fondements théoriques des Etats totalitaires du XXème siècle: les droits du pouvoir, en possession de la science, de décider les destins de la totalité nationale, au-delà des intérêts privés, considérés comme manquant de perspective historique.

Glucksmann appelle à la résistance contre le pouvoir totalitaire: en démythifiant son omniscience et en utilisant les libertés formelles, dont le jeu plus ou moins libres distingue les différents régimes évitant que l'humanité soit un gigantesque «Archipel Goulag».

II. **Bernard-Henri Lévy. La barbarie à visage humain** commence par étudier les sources du Pouvoir. Ce Pouvoir n'est pas un phénomène dérivé des intérêts de classe. Ce Pouvoir et ses mécanismes de domination accompagnent la société dès ses origines. Pas d'homme sans société. Pas de société sans Pouvoir.

Puis Lévy démythifie beaucoup de postulats de ceux qui pensent que le pouvoir qui est domination et exploitation, ne le sera pas quand les relations socio-économiques de classe disparaîtront. Il critique le concept de la bonté de l'homme, le sens de l'histoire, la disparition de l'Etat, la prétendue capacité de l'individu d'échapper au pouvoir.

Tous ces mythes, qui participent d'une conception historiciste et progressiste de l'humanité, se trouvent dans le socialisme d'empreinte marxiste. Lévy nie la valeur scientifique des concepts d'un **Proletariat** avec mission universelle de libération, et d'un **Capitalisme** destiné à être supplanté par lui.

L'auteur analyse le totalitarisme et ses formes. La barbarie totalitaire n'est pas neuve. Le Pouvoir a toujours essayé d'être absolu. Si dans ces derniers temps nous avons connu le fascisme et les camps, c'est dû en grande partie à la crise du Sacré qui soutenait et limitait à même temps le Pouvoir. Le Pouvoir a hérité de la souveraineté absolue de Dieu.

Pour finir, il analyse le socialisme soviétique à la lumière des camps, et l'avenir qui nous attend sous l'empire de la technique. Le marxisme est responsable du Goulag; il est «le grand opium des peuples».

Malgré cette conception pessimiste du Pouvoir totalitaire par nature, Lévy invite à adopter un compromis éthique de résistance. Nous ne nous libérerons pas des filets du Pouvoir, mais au moins nous retarderons l'enfer, la décadence qui nous menace; le crépuscule se prolongera.

III. **Jean-Marie Benoist. Trois livres sont étudiés: Marx est mort, Tyrannie du logos, et La révolution structurale.**

Le premier, **Marx est mort**, part de Mai 68 et détecte les signes d'une «ontologie de la présence», philosophie caduque et qui ne correspond pas à l'épisthème du XXème siècle. Pour Benoist, les protagonistes de Mai 68: étudiants, communistes, gaullistes et les interprètes du dit mouvement, s'agitent dans un monde métaphysique. A la suite, il dénonce les restes des métaphysiques, présents en Marcuse —homme du «Aufklärung», malgré ses apports positifs— Mao, Lénine, Marx. Malgré le travail théorique d'Althusser, Lénine et Marx sont fils de la pensée des Lumières. Marx est positiviste et métaphysique. Marx a vieilli; il est mort pour les hommes du XXème siècle.

Le deuxième livre, **Tyrannie du logos**, en exposant la polémique entre Socrates et les sophistes à travers les textes de Platon, analyse les racines

de la Métaphysique qui a affecté la culture et la philosophie occidentales pendant 25 siècles.

L'alternative actuelle est le structuralisme. La **révolution structurale** expose comment l'on doit penser sans sujet, sans sens de l'histoire, sans humanisme, sans essence, sans nature. Les exigences du structuralisme sont radicales et révolutionnaires. Pour ne pas les satisfaire, critique à Monod et même à Lévy-Strauss.

IV. Ce chapitre traite brièvement d'autres Nouveaux Philosophes: Jean-Paul Dollé, Guy Lardreau, Christian Jambet et Maurice Clavel.

V. Enfin, on rassemble quelques considérations sur le caractère pessimiste et désespérant de la philosophie politique des Nouveaux Philosophes, sur leur critique du marxisme, et la valeur positive qu'ils représentent, en mettant sur le tapis, d'une manière irrécusable, des problèmes réels qui n'ont pas été posés avec radicalité suffisante.

Filosofia berria: Krisi luze baten produkto

Joxe Azurmendi

«Filosofo berriak» agian ez dira filosofoak izango, kritikoez protestatu dutenez; berriak ez dira; baina, batez ere, ez dira denak berdinak. Oso diferenteak ere badira. Interes komunitasun batek, situazio eta esperentzia berdintsuetatik aritzeak, eta denak erreakzio antiautoritari batetan agertzeak, legitima lezake, gehienez ere, denak zaku batetan sartzea, orain egiten den eran. Baina hasierako eskematismo horrek nahitaez darama azkenean, «Filosofia berriari» globalki batzuek antimarxismo sistematiko eriztera, inork anarkismo, «ezker berri» autokritiko, besteren batzuek marxismo berri eta purifikatu, marxismoaren ondare legitimo bakarra bera omen dugulakoan, etab., edozertsu. Bestela, beren obran dauzkagun bezala, B.-H. Lévy bat eta Glucksmann bat ez dago bateratzerik eta berdintzerik. Are gutiago Benoist, Lardreau, Jambet, Dollé, Nemo, etab. Vedettea, guztion artean, B.-H. Lévy da nonbait, komunikabideetan burua gehien agertu duena eta, hori bereberki, esaldi borobilak eta radikalak eskuin-ezkerretara axanpaz botatzen ibili dena, ezker-tiarrak eskandalizatuz gehienbat. Lévyk, ideien zabalakundeari eta asmoen zulentasunari adina, liburu merkatuari begiratzen ote zion susmoak, ez

dirudi bidegabezkoa: Grasset argitaletxean, alegia «filosofo berriak» argitaratzen ari den etxean, sail horrexen buru dago. Eta beldur izatekoa da, kanpaina publizistiko ongi muntatu eta komertzial honek, «Filosofia berriaren» izenari bai, kalez-kale zabalkunde galanta ematen zion artean, mamia ez ote dion kendu eta intentzioa okertu, «Filosofia berria» polemika filosofia merke batetara makurraraziz, gerra hotzeko estilo hoberenean.

Iraultza sobietarraren inguruko krisia

Izpiritu inkisitorialaren kritikuok deabru inkisitorial denak sutan jarri dituzte. Europa —esan digute— zapalkuntza eta errepresio zientziaren lurraldea da, progresoaren zientziaren lurra baino lehenago; Botere zientziaren, autoritarismoaren, kontzentrazio zelaien eta tiraniaren kontinentea. Hori da Europak behin eta berriro, beti progresistago, asmatu duena: ordenu gerotz eta zapalkorragoak.

Erromatar Inperioa, Erdi Aroko papismoa, Subirano Absolutuak, Napoleon eta XIX.gn mendeko inperialismoa, nazismoa eta komunismoa, dena ez da «guerra de sucesión» bat besterik... Karitatea predikatuz Inkisizioa ezarri zen; askatasuna predikatuz, tirania burgesa eta faxismoa; berdintasun soziala predikatuz, stalinismoa eta kontzentrazio zelai sobietarrak. Anaitasuna, askatasuna, berdintasuna.

Eskandaloa sortu duena

Baina hori izan al da eskandaloa sortu duena? Beste guztientzat bederen onartzen bait zen, bat bestearen heredentzia eta gorabide zirela: erromatar Inperio, Erdi Aroko papismo, etab. Esplikazio bat ere baguenen, hain zuzen Marxek emana: produkzio indarren desarroihoz, harreman herstuago eta lotuagoak sortzen zirela eta, menpetasun aparato bortitzagoz, Botere haundiagoa. Esklaberia gizartea, feudalismoa, kapitalismoa. Baina, irakasten zuen Marx haretzek, historia triste hori berehalaxe bukatuko da, beste bat arras diferentea abiatzeko. Produkzio indarren jabegoa azken kontzentrazio batetara heldu orduko eta, beraz, Boterea ere, kapitalista guti-guti batzuen eskuetan geratu orduko, gainazpiraketa dialektiko batek, ondasun eta Botere oroz gabeturiko klasearen iraultzak alegia, ondasunok, produkzioa, Boterea, etab., berriro kolektibitatearen esku ezarriko omen bait zituen. orain arteko historia —egiaz «prehistoria»— bukatuz eta

egiazko giza historia abiaraziz: gizona gizonarekin zuzenki lotuko zuena, elkarrekin fetitxeen bitartez (diru, Botere, etab.) erlazioan behar gabe. Orduan, 1. beste natura batetako gizarte moldea eraikiko zen, 2. gizarte horretan ez zen zapalkuntzarik egongo (poliziarik, etab.). Hori izanen zen iraultza proletaria, historiako azken iraultza.

Beraz, iraultza hori, Marxek iragarria, proletaria, egina da leku bat baino gehiagotan eta desegin da jabego pribatua, desegin. Eta moztu al du historia zahar hura? Ekarri al du historia berria, agindu zen Botere, errepresio eta beste gaitzen deus-eztapenez? Abiarazi al du «askatasunaren erreinua»? Ez. Datuak datu, «iraultza proletaria» egin duten lurraldeak ez dira inolaz ere polizia, harmada, kontzentrazio zelai eta gartzela, zentsura, tribunale, kontrol zentralista goitik beherako, gutiena dutenak. Ezta lurralde horiek berek lehen zuten baino orain gutiago dutenak ere. Herriaren Boterea, Antiboterea, ekarri ordez, terrore eta zapalkuntza bide klasikoan urrats bat gehiago eman da, lehen ezagutzen zen bezalaxe: esklaberia gizartetik feudalismora, etab. Sozialismoaren historia, hortakoz, Leviathanen historia luzean dago; ez askatasunaren historiagabezia mugan, historia berriaren hasieran. Ordenu berria ez da nagusikeria berri besterik. Polizia gabeko historiarik ez da oraindik hasi.

Beraz, berriro, *natura* desberdineko, berriko, gizarte molderik lortu da ala ez? Alegia, interpretazio kontua dago, datuak datu. Iraultza proletariak sortu duena, sortu, natura berriko gizartea da, eta gaitz horiek guztiak «erroreak» dira, etab., ala natura zaharreko gizartea da hura ere eta berezkoak ditu aje horiek?

Marxistek, eta ezker intelektualek, gizarte molde horren natur berritasuna sostengatu dute jeneralean. «Filosofo berriek», alderantziz, natur berdintasuna salatzen dute gogorki. «El Estado soviético —idatzi du Glucksmannek— se instala en las cabezas en el lugar ocupado sucesivamente por el emperador, dueño del Derecho romano, por el Soberano Pontífice que le sucede en la Edad Media y luego por los Estados Nacionales herederos de su autoridad».

Hori al da eskandaloa sortu duena? Bai eta ez, baina bai. Sobietar sistemaren atakeetara ohituta gaude. Ez da hori «filosofia berririk», oso zaharra baino. Eskuinarentzat negozio bat da. Ezker berriarentzat, bere burua ezker klasikoaren azpitik liberatzeko eta posizio propioa finkatzeko aurrebaldintza izan da. Baina ezker klasikoak berak ere jadanik ez du izan beste erremediorik, mendebalean behintzat, ebidentzia beltz eta garbigien

aurrean, sobietar sistematik distantziatu baino. Eta Carrillo bera sobietar sistemaren kritiko bilakatu zaigu. Loretan dago eurokomunismoa. Zerk sortu du, beraz, eskandaloa?

Gaitz sobietar guztien *naturaren interpretazioak* sortu du, funtsean, eskandalo guztia. Horrek eman du bide, baita ere, batzuek «filosofo berriak» anarkistatzat jotzeko, edo anarkistoide-tzat, besteek antimarxistatzat soil. Eta, nolahi ere, gakoa hor dago, «filosofo berri» batzuen larderia komertzialak edo tenperamentalak aparte. Sakon dezagun hori apur bat.

Iraultza sobietarra hauzitan

«Filosofo berriek», iraultza sobietarra ez dela mendebaleko tradizio autoritariaren koroapena besterik izan, baitesten dizute. Hau da, askatasun borrokaren tradizioan egotea, zeharo ukatzen diote. Autoreon testu zakarrenak —eta min gehiena eman du tenak, duda gabe— horrelakoak dira: «fascisme rouge» (B.-H. Lévy), etab. Ikuspide horrekin konsekuente, desestaltintzapenari deslentintzapenak behar diola jarraitu, aldarrikatzen dute; deslentintzapena Marxen beraren kritikaz behar dela osatu. Autoreok ez dute erreparorik sistema sobietarra nazismo alemanarekin gonparatzeko eta berdintzeko ere (ikusi gabekoa ezker tradizioan). Eta egia da, behin baino gehiagotan ikusia genuela, sobietar sistema ksarismoarekin konparaturik¹, baina hura gonparaketa anbigua zen eta oraingoan ez. Izan ere, ksarismoari alusioak, sobietar sistemaren basakeriak kondenatzeko adina balio zuen hura «esplikatzeko»: «horren atzeratua zegoen 1917an Errusia, ezen konprenigarri bait da horrelakoxe metodo gogorak erabili behar izana», etab., maiz-sarri entzunak ditugu. Aitzakion mantupean estali eta «barkatu» nahi izan da, ez masa «atzeratuen» (hots, komunitate erlijioso, arrazial eta nazionalitate osoen) milioikako deportazioak eta suntsimendua bakarrik, baina baita «progresista» ez ofizial orenen zampaketa ere (sindikato, Alderdi; anarkismo, sozialismo ez ortodoso; arte eta literatur eskola abangoardista, etab.), are Alderdiko bertako militante komunisten arteko elkar borroka eta azkenean gehienek likidazioa ere, Iraultzaren buruzagi nagusia ahaztu gabe (Bucharin, Trotzki, etab.). Urte pare batetan, Stalinek komunista gehiago hil zuen, ksarismoak hil zituen denak baino. Iraultzak, esan ohi den legez, bere umeak irentsi ditu. Baina dena esplikatzen zen eta dena barkatzen zen nolabait..., Errusiaren atzerapenagatik.

Dena esplikatzen duelakoxe, ezer ez duela esplikatzen, ematen du arrazoi horrek. Glucksmannek seinalatu duen bezala, arra-

zoipideon barnean dagoena, historiako zapaltzaile guztiek beti eman izan duten arrazoi oso sinplea eta zaharra da: «milioika biktima egon da, zoritxarrez; penagarria da, baina biktima horiena berena da kulpa». Errudunak, beti biktimak berak ziren... Eta okerren bat egon bada, ez zen «errore» bat besterik: Moskun bezalaxe Errenterian, Gasteizen ala Jurramendin. «Orde-
nuak» bere ordenuan funtzionatzeko eragozpen bat ziren.

Gaitzaren sustraiak

Desestalinizapena, «filosofo berriek» derizkiotenez, ez da betetan gaitzaren sustraietaraino heldu. Alegia, Krustxofek desestalinizapena ofizialki hasi zuen, hasi. Goitik behera hasi ere, sintomakikoki sistema honentzat. Larrialdi ikaragarria sortu zuen mendebaleko Alderdi Komunistentzat. Orduan, ordura arte zindo ukatu zena ukatzerik ez zegoela, agertu zen. Eta basakeriak, uste ziren eta etsaiek berek zioten baino ere mila bider okerragoak zirela. Baina alfer-alferrik ukatzen aritzetik historiook isilpean pasatzera edo «esprikatzera» jo zuen mendebaleko ezker-
rrak. Egia da, noizean behin ahotsen bat altxatzen zela, stalinismoa bere azken sustraietaraino aztertzeke eta desestalinizapena konsekuentzia guztiekin azken fineraino eramateko, esijitzen zuena. Baina holako gaisoak beti «diziplinak» mututu edo «organizazioak» kalera bota, egin ditu: Kolakowski, Polonian; Garaudy, Frantzia, etab.; edo, ahal zen artean, ahots protestaria, Alderdia honez gero stalinistarik ez zela agerrarazteko, libertate akademiko inofensibo batetan kontserbatzen zen Alderdi barruan (Althusser, etc.). Alderdi buruzagitzak, operazio guztiz abiltatez, stalinismoaren problema basian eta militante mailan supiztea ebitatu ahal izan du; eta, batez ere, problema hori, eztabaida ireki eta sistematiko batez, barren-barreneraino argitzea ebitatu du, Alderdian zarrastadarik gerta ez zedin. Alderdi Komunistetan, Frantziakoan bereziki, likidatu egin da arazoa, ez argitu eta gaindiatu. Harrez gero, gaizki sendatu den gaitz barteekin bezala, eritasun horrekin aurkitzen gara behin eta berriro sortzen ari diren krisi guztietan.

Alderdiak Alderdi, alabaina, mendebaleko intelektualitate ezkertiarra ere, historia horretan erru gabe ez dagoena, ez da ausartu, problemak, bere konplizitatea ageri-agerian jarriko zukeen radikalitasunez planteatzen. Guzti honek «ideologiaren esklaboaren» problema planteatzen bait du. Modu arrunt batetan, «Filosofia berria», krisi moral orokar baten produkto da; eta, jus-

tuago, stalinismoaren konplize izan zen intelektualitate mendebaldar ezkertiarren krisi moralaren produkto.

Stalinismoa dela eta

«Filosofo berriok» 68.eko maiatzetik loratuak ditugunez gero, gogoragarria da, apika, 68 aurreko historia filosofikoa, piska bat.

Mendebaleko intelektualitate ezkertiarrentzat, Alderdi Komunistak ezinbestezko eta obligaziozko erreferentziak izan dira².

Intelektualen erreferentziak

Baina konkretuago, azken finean, Sobiet Batasuna zen obligaziozko erreferentzia hori, mendebaleko AK-ek berek erreferentzia hori bait zuten (Sobiet Batasuna), zer egin jakiteko. Stalinen estrategia alternatibista sinpleari zegokian hori: komunista ala burges, Sobiet Batasunaren aldeko ala inperialista, etab. «La piedra de toque del internacionalismo proletario es la actitud hacia la Unión Soviética». Estrategia manikeo honek harrapatu, intelektual ezkertiarrek ez zuten beste erremediorik izan, Sobiet Batasunaren apologia itxuragabeenetan kosta ala kosta enpeinatzea baino. Argi eta garbi zeuden ebakita fronteak: hemen argia eta progresoa, hor oskurantismoa eta erreakzioa; hemen bakea, hor gerra; Sobiet Batasuna, USA. «Filosofia» politiko militante³, inkisitorial, dogmakoi herstuenaren garaia da. 64.ean Althusserek holaxe aitortzen zuen:

En nuestra memoria filosófica, ese tiempo permanece como el tiempo de los intelectuales armados, combatiendo el error en todas sus guaridas, aquel de los filósofos sin obras, nosotros mismos, pero que hacían política de toda obra y dividían el mundo (artes, literaturas, filosofías y ciencias), utilizando un solo corte: el despiadado corte de clases. Tiempo cuya caricatura puede resumirse en una frase: bandera izada que flamea en el vacío: «ciencia burguesa», «ciencia proletaria».

...Paradójicamente, fue necesaria la presencia de Stalin, cuyo contagioso e implacable sistema de gobierno y de pensamiento provocaba estos delirios, para someter esta locura a un poco de razón.

Aitortzak ongi daude (penitentzia noraino ailegatu den, galdera aparte). Baina argitzeko geratzen dira, nola izan zen posible manikeismo horretan erortzea, eta zein den manikeismo ho-

rrek pentsamendu marxistarentzat zuen signifkazio teorikoa. Manikeismoa nola sortu zen, esplikazio ugari eman da, intelektua- len egoera sujetiboari nahiz mementuko baldintza politikoei be- gira: une larriaren larria, gerra hotzak kasko asko berotu zuela, informazio falta, etab., edozer gauza zuritzeko balio lezaketanak horiek ere (eta nazismoaren alde jarri ziren intelektualek beren alde ateratakoen berdintsuak bestalde), barnean dagoen beste arrazoi batengatik ez balitz, guztion egiazko sostengua: alegia, sobietarra, *bere naturaz beraz*, sistema ona dela. Eta, beraz, gaitz guztiak, nolanahikoak ere, akzidentalak zituela.

Areago, zentzu eksklusibo, alternatibo batetan ulertzen zen sistema sobietarraren natur ontasuna: bera bakarrik zen natura oneko sistema; bestea —hots, kapitalismoa— akzidentalki ager zitekeen alderdi onen batzuez horniturik, baina oinarri-oinarririk sistema gaiztoa da.

Eta areago oraindik, sistema berez on hori, errealtate jakin batetan inkarnaturik ageri zen bere natur ontasun guztiaz: gizar- te antolaera sobietarrean. Beraz, ideia-aren (sozialismo) eta erreali- tatearen (Sobiet Batasun) identitate osoa postulatzen zen «a priori», Hegelek inoiz egin duen baino radikalkiago.

Intelektualen manikeismoa

Alde batetan Ona, bestean Okerra. Zerk ekarri du, ordea, sistema ekonomiko-sozialak natur kategorietan epaitze hori eta, zehatzago, natur dualismo mitologiko horren arabera epaitzea, Argiaren eta Ilunbearen borroka eskatologikoa bezalaxe? Marxen klase borroka teoriaren produkto izan da. (Alegia, izan halaxe izan dela, de fakto, esaten da, ez gehiago; Marxengandik ondo- rio horietara derrigorrezko bidea ote doan alde bat utzirik). Ka- pitalismo kondena, termino erlijioso-sakraletan egin zen. Sozia- lismoaren baitespina berdín. Orduan, Sobiet Batasunaren alde egon bai, baina marxismo arlote, mekanizista hori baztertzen zutenak, eta sistemaren natur ontasunari jaramonik ez egin nahiago zuketenak, goiz ala beranduago, eboluzio batetara behar- turik aurkituko dira «hirugarren» postura batetarantz (Merleau- Ponty, Sartre): baina, oraindik oraingoz ez daukate beste erre- mediorik, dualismo horretan nolabait koadratu baino (inkisitore dualistarentzat, bekatu okerrera, dualismoa bera ukatzea bait da: horregatik, etengabe errepikatuko da, hirugarren biderik ez da- goela, Eliza dualistaren segurantzia guztia dogma horixe denez gero). Besteek, natur ontasunaren sinestee, oinarritzko dualis- moaren poderioan, beti ere leialtasunean eta fedean jarraitu

beharko dute, stalinismoaren eskandaloa sor dadinean ere: «fenomeno stalinista» desbidazio bat, anbizio pertsonalak, etab., ikusiko dituzte, sistemaren epifenomeno bat, inoiz ere ez sistemaren beraren produktoa. Stalinismoa, ordea, beste edozer bezala, sistemaren barrutik esplikatuz gabe, ez dago esplikatuz, bere kanpotik soil.

Nos preguntamos: ¿cómo consiguió imponerse al pueblo ruso este sistema de dominación que, doscientos cincuenta años después de Luis XIV y Colbert, un siglo después de la Reina Victoria, ha lanzado a la URSS por la vía de la centralización, de la urbanización, de la industrialización a cualquier precio?

La cuestión es sencilla. Se complica a partir del momento en que se supone que esta dominación es «socialista salvo algunos errores». El poder que martiriza al pueblo sería el poder del pueblo salvo algunos errores. Estos errores, que matan a 50 millones de hombres (y ¿cuántas almas?), serían, en efecto, errores del pueblo... Entre el Estado y el pueblo ruso se supone que existe una relación de expresión, están adaptados uno a otro, no se hacen la guerra. Se reflejan como espejos: los errores del Estado socialista expresan, reproducen el retraso de las masas rusas. Esta fue la tesis de Lenin. Esta sigue siendo la tesis de los leninistas, incluso cuando pretenden estar en la oposición (A. Glucksmann).

Baina sozialismoa, XIX. gn mendean ez bezala, gaur egun, ez da promesa bat. ideia eta asmo huts: sozialismoa, Sobiet Batauneko, Txinako, errealizazio konkretu, aztergarri, neurgarri, mugatu horietzek da. Gaur ez dago sozialismoaz ideia batetaz bezala mintzatzerik, errealitate horien arabera baizik. Batez ere, ez dago sozialismoa beste neurri batzuekin neurtzerik, liberalismoa baino, haren natura ona omen delakoagatik edo. Zer axola dio, kapitalismoa, sozialismoa, «berez» onak diren ala ez —eta zer da hori, izan ere—, edo ideia berez hobeak diren sozialismoa inspiratzen dutenak, kapitalismoaren ideiak baino? Ikusi beharra dago errealitate soil eta gorria. Eta errealitatea da —insistatzen dute «filosofo berriek»— liberalismoak nazismora eramanez duela, sozialismoak (marxismoak) stalinismora eramanez duela. Bata ez bait da bestea baino deus hobe. Azkenean biak gauza bera ditugu ikusmolde honetan: «Que la URSS sea capitalista y fascista (es cierto que se trata de un fascismo más sutil, más cultivado, más dialéctico que el de los nazis, vulgares imitadores) lo leemos con todas las letras en el Archipiélago Gulag y en el cuerpo de los torturados. Estas son nuestras fuentes y no son diferentes de las que consultó Marx. Citad las vuestras, oh defensores del «socialismo» en Rusia (incluso lleno de «erro-

res»): ¿el texto de la Constitución Soviética? ¿Las declaraciones de los últimos dirigentes? Sería igual que pretender escribir la historia del III Reich con el *Mein Kampf* como único testimonio digno de fe» (A. Gluskmann).

...Ha bastado que las organizaciones «obreras» de Occidente aceptaran juzgar a la URSS como socialista —poco importa que la condenen, le juren fidelidad o le concedan «apoyo crítico» y el parentesco Rusia-socialismo, una sola vez afirmado, se convierte en una lucha fría. Llamábamos socialismo a este futuro que persigue todo gran movimiento popular desde —por lo menos— la Revolución francesa, una sociedad igualitaria en la que hubiera desaparecido la explotación del hombre por el hombre, en la que no existiera diferencia entre las clases, en la que no hubiera jerarquías y en la que el Estado habría desaparecido. Que vengan hoy a decirnos que la URSS tiene algo que ver con este objetivo, como no sea el hecho de haberlo masacrado; y esto proporciona una nueva juventud al orden burgués. ¿Quién piensa que el Estado está más cercano a su muerte en Moscú que en París? Si la URSS es socialista, aunque sea la mitad o un cuarto, el socialismo era un bello sueño y los managers occidentales pueden programar la época de las salchichas calientes y la desesperación fría.

Una buena forma de «desesperar a Billancourt»: imputarle los pecados del Estado ruso presentándolo como «socialista», «obrero», «revolucionario», «proletario».

Si un tipo nos dice: «Soy el arcángel Gabriel», no acostumbramos en creer en sus palabras. Cuando el general Pinochet se presenta como el apóstol del liberalismo, en seguida le encontramos otros calificativos. ¿Qué credulidad nos mantiene aún frente al Estado ruso? ¿Bastó con que Stalin, entre dos matanzas, proclamara que el socialismo estaba establecido?

Sozialismoa dela eta: ideologi- eta dogmakoikeria

Hemen sortzen da «Filosofia berriaren» oinarritzko problema: sozialismoaren naturarena. Sobiet Batasuna, sozialista da, ala ez da? Hauxitan, beraz, leninismoa bera dago, ez stalinismoa bakarrik. Eta zer da, izan ere, sozialismoa?

Aski al da produkzio ontasunak nazionaltzea, «sozialismo-rik» dagoela esateko? Aldez aurretik horixe dekretatu bada, bistan dago baietz: hauzi terminologiko hutsa litzateke. Baina erizpideen, neurrien, arazoa da. Boterearen eta zapalkuntzaren analisi askirik ba al da Marxena, gaitz sozial guztien arazoia jabego esturkturatik deribarazten zuena (sekundario bezala) eta kolektibismo ekonomiko soil batetatik erremedio guztiak itxaroten zituena? Ala, axalekoegia da, eta Boterearen eta zapalkuntzaren análisis hagitz zabalagoak eta sakonagoak behar dira, pro-

piagoak ere? Jabego esturturen azterketa simple bat, eta produkzio moduen dialektikaren hipotesi optimista bat, aski izan dira, iraultza definitibo bat eta laster zapalkuntza ororen azkena postulatzen. Gero, ekintza ere bide horretatik orientatzeko. Ez al da historiaren natura gehiegi sinpleztatu; eta historia ez al da sinplifikazio horretaz krudelki mendekatu egin? 1920.an idazten zuen B. Russellek, Lenin ikusi eta gero: «Quizá sea incompatible amar la libertad y creer de todo corazón en una panacea para todos los males humanos». Sozialismoaren eskema teorikoak —nondik sortzen diren zapalkuntza eta kate sozialak; nola eraz daitezkeen; zerk ezarriko lukeen «sozialismoa», hots, berdintasun eta askatasun osoetako gizartea, inoren zapalkuntza gabe— sinpleegiak ziren. Jabea nagusi bilakatzen bada (h. d., jabegoak Boterea ematen badu), egia da, orobat, nagusia erraz bilakatzen dela jabe adina (jabe izan gabe Boterea eskuetan duen burokrazia sobietarrak erakusten duenez). Analisi sinpleegia da Boterea (beraz, zapalkuntza, etab.) jabegoaren deribazio soil bezala kontsideratzea. Hori, agertu, berehalaxe agertu zen, praktikan. Baina zergatik ez zen ikusi? Praksiari baino gehiago, doktrinari («superdoktrinari») begiratzen zitzaiolako. Praksiak doktrina gezurtatzen bazuen, «panne» bat zen. «Panne» hori doktrinan bertan, analisisetan eta eskemetan, planteamoldeetan, egon zitezkeenik, ez zen pentsatu nahi izan... Orduan, galdetzen dute «filosofo berriek», zein izan da sozialismo teoriaren, marxismoaren, eginkizuna, terrere eta erreore egoera honi buruz? Situazioaren legitimatzailea bera izan da. Berak eskuratzen zizkion arrazoiak Stalini, garbizioak egiteko; berak eman zizkion arrazoiak mendebaleko intelektualitate ezkertiarri, stalinismoaren terrorea isilpean gordetzeko eta barkatzeko...

Ideologiaren kritika

«Filosofia berriaren» ekarri dudarik gabe gogoangarriena ideologiaren kritika da. Aitzindariarik izan dute ugari, egia da. Baina zirkulo hertsietan geratzen ziren kritikak, orain kalean zabaldu dira. Fichte, Hegel, Marx, Nietzsche —*les Maîtres Penseurs*—, denei errebita pasatzen zaie, sistema ideologiko handiei projektu sozial batez. Eta zaharragoei, Rousseauri bezala Platoni. Sistema guzti horietako elementu totalitariak azaltzen, «filosofo berriek» benetan iaio aritu dira. Ideologiok —esaten digute— sistemok, beti mogimendu sozial baten buruan bururatu dira (Minervaren ontza). Herriak bere esijentziak altxatu eta gero. Beraz, herriaren asmo eta gogo batzuk adierazten dituzte.

Baina zer egin dute? «Encerrar las rebeldías de la plebe en la Razón de los Maestros». Sisteman, gauza bakoitzak bere arazoia du, bere leku jakina eta bere eginkizuna, dena ongi trabaturik logika gogor batez. Gero, gizarte antolaeran, gizonak izango duten bezalaxe... Herriaren esijentziak bideratzeko (omen), sistema logiko batzu eraiki dira: h. d., gizartean zegoen errepre-sioa, errepre-sio logiko bihurtu da sistema ideologikoan. Eta sisteman errepre-sio logiko dena, praksian ordenu, errepre-sio poli-zial bilakatuko da. Sistemak dena esplikatzen du: zergatik hau, zergatik hori, etab.; dena situatzen du: ni hor, zu hemen; *zientzia* bat sortzen du, ordenu sozial berri eta zientifiko bat eraiki-tzeko, dena erabakirik, zuk zer egin behar duzun eta zergatik, eta nik non egon behar dudana. Sistemak *testua* sortzen du, gero irakurri beharko dena, nola ibili jakiteko. Joko arauak finkatzen ditu aurretik. Gero, testua konplitu beharko dugu. Ordena bete beharko dugu. Beraz, errealitatean, sistemak *Botere* bat sortzen du. Eta, azkenean, ideologiak eta sistemak ez dira Bo-terearen zientziak baino. Sistema ideologiko bati besteak bezala darraikio historian ordenu batek besteari, Botere batek besteari. Polizia, zapalkuntza sistemaren silogismoa da.

Ideologiak, denak herriaz eta herriaren izenean mintzo dira, herriaren gogoia artikulatuz (omen), eta larrosazko etorkizun bat prestatzeko herriari. Baina herriaren gogoia eskema «zientifiko» batzuetan ongi lotuz, ordenu edo aparato logiko errepre-sibo bat muntatzen dute, gero gizarte antolaeran aparato polizial ba-tek bakarrik gauza lezakeena. Historian, ideologia geroz eta perfektoagoi («zientifikoagoi»), aparato polizial geroz eta perfektoagoak dagozkie. Errepre-sio zientifikoaren progresoa.

«Filosofo berriak», Gulagetik abiatuturik, ez dira Stalin baitan geratu, baina oso gogor enplegatu dira Leninen beraren kritikan. Gulag Leninekin hasi omen da, ez Stalinekin (aurrerago joaz, Marxekin hasi dela ere, adieraziko dute). Baina «filosofo berriek» arazoari eman dioten sumindura utzirik, eta, beraz, probokatu dituzten erreakzioak ere ahaztuz, begien bistan dago, aspaldion zabalduz doala leninismoaren eztabaida (behiala Txekoslovakia eta orain Espainiako AK-ak erakusten dutenez). *Nouvel Observateur*-eko Jean Danielek deklaritzen zuen legez, «le livre de Soljénitsyne fait réfléchir sur les sources mêmes de la pensée, non pas stalinienne, mais léniniste». Eta, ezagun-ki, «Filosofia berriaren» iturburu inportante bat Soljenitzinen obra da. «La question à l'ordre du jour —irakurri diogu Be-noisti— est celle-ci: à quand la rédaction par Ellenstein ou un

autre de l'ouvrage officiel du Parti Communiste Français s'intitulant: *Le Phénomène léniniste?*»⁴.

Zer duda: eskandalo gehiena, ideologia marxistaren kritikak atera du. Stalinismoaren esplikazioan —esaten dute «filosofo berriek»— ez dago marxismoa alde bat uzterik. «Es imposible dejar a un lado el marxismo, del que extraen sus convicciones los guardianes de los campos de concentración, los burócratas». Marxismoa ez dago alde bat uzterik, terrore stalinista guztia «barkatu» duen intelektualitatearen hutsegitea esplikatzekoan ere. «El marxismo no alimenta tan sólo convicciones, sino también *la voluntad de no ver*».

XX. mendea: kontzentrazio zelaian mendea

Baina problema ez da marxismoarena bakarrik. Mendebalea ere, ideologia «demokratikoz» —alegia, nazismora eramán duen ideologia liberal eta demokratikoz—, orain bertón totalitarismo eta basakeria gozo-gozo batetara doa, gozo-gozo (*la barbarie à visage humain*). XX.gn mendea, zientziaren, teknologiaren eta abarren mendean izango da, baina batez ere, kontzentrazio zelaian mendea da. Erraza da esatea, marxismoa bera ez dela kontzentrazio zelaiak muntatzeko asmoz asmatu, askatasunerako baino. Liberalismoa ere halaxe asmatu zen. Errealitate sinplea, ordea, biek kontzentrazio zelaietara eramán dutela, da. Eta ez zer nahi zuten, baina zer egin duten, hartu behar da kontuan. «El pensamiento inocente que no programó los campos, tampoco supo preverlos. Liberalismo, marxismo: aún suponiendo que sean inocentes, estas ideologías no han impedido nada». Zergatik, ordea, gauza bat «nahi» eta egin bestea egin dute?

Los campos se parecen, pero las ideas directrices de los promotores alemanes o rusos parecen distintas, incluso opuestas. ¿Hay que limitarse, en consecuencia, a incriminar a la crueldad humana —igual que en todas partes— y dejar al margen las ideas de los verdugos? Sin embargo, los crímenes colectivos del siglo XX no alcanzarían la escala grandiosa que conocemos si no estuvieran armados con una gloriosa «ideología». Los campos alemanes son esencialmente nazis. Los campos rusos, ¿caen del cielo? ¿No enseñan nada sobre el marxismo del que se dicen seguidores?

Beraz, «filosofo berrien» ustez, progresoaren filosofiak utzi eta Boterearen teoria lantzen ahalegindu beharra legoke orain: holake totalitarismo berririk ebita dadin. Totalitarismoak ebitatzea, horra oraingo filosofia baten lehen eginkizuna. Sokratega itzuli beharra dago, zer den zer, galdezka berriro.

Marxismoaren krisia eta banaketa

«Filosofo berriak» marxismotik datoz, etorri. Desengainatu batzuk al dira? Bai. Baina dena sujetibizatu nahi ez badugu, marxismo frantsesaren historiari piska bat begiratu beharko diogu. Askotan engainatu dutena, desengainatu egiten da. Marxismo frantsesa, intelektual ez-marxistak ere inguruan biltzen eta lotzen zituen bloke monolitiko bortitza izatetik, honez gero marxistak berak ere ezin multzo batetan elkarrekin bil ditzakeen sakabanamendutara doa.

Marxismoaren krisia bazter guztietan aipatzen da. Aspal-dian. Berria, Marx bere ezkerretik kritikatzea da. Berri-berria, ezta hori ere. Beti egon da Marx baino eta marxismo ofiziala baino ezkerretatik zihoan korronte bat (Lenini *haurkeria ezker-tiarra* iruditzen zitzaiona). Baina lehenago abenturismo intelektuala zirudiena —marxismoa baino ezkerretarago ausartzea— orain, 68.az gero, kasi obligaziozkoa bilakatu da, benetan ezker-tiar agertu nahi baduzu. «Filosofo berriak», berek aitortu ohi dutenez eta ikusi ere ikusten zaienez, marxismoaren ezkerretara sortu diren blokeetatik datoz. Beraz, «gauchismotik».

«Gauchismoa»ren ondorio

Mila bider esana dagoena berresanez, «gauchismoa», hein batetan, luzaro erreprimatua egon den XIX.gn mendeko mugimendu iraultzaile «espontanistara» itzuli dela berriro, gogoratu-ko dugu (eta Marxi baino Proudhoni gehiago zor diola, esan bada, ez dago oker esanda). Bere alderdi teorikoan, «gauchis-tek» (gure kasuan, «gauchismotik» etorri diren «filosofo berriok»), azken mendeetako ideologi kritika «irrazionalista» gogoratzen dute. Gogora dezagun, beraz, llaburki: zientziaren kredo zabal-zabaldu zen berean, zientziatik salbazio guztiak eta parabisuak itzaronez, «zientzi ideologiaren» kritika biztu zen. Gizonaren barnea —hots, gizonaren eta, batez ere, masa herri-tarren nahiak, desirak, sentimenduak, irrikak— zientziak adie-razten duen baino besterik direla eta, jende honek ez zuen ideologia «zientifiko» baten saskipean etsi nahi. Nietzschek be-zala Proudhonek, eta Bakuninek adina Sorelek (eta, beraz, anar-kismoak adina sindikalismoak, joera vitalistek adina humanis-tek), erresistentzia gogorra oposatu zioten beti, historia, h. d., mugimendu herritar eta proletaria kasu honetan, sistema «zientifiko» batetan hertsatu eta arxilotu nahiari. Hori egiten zuena, Sozial-demokrazia alemana zen batez ere (II.gn Internazionalak

anarkistekin eta beste zenbait ezkertiar radikalekin kolaborantza oro moztea lortu zuena; marxismoa langileriaren Alderdientzat obligaziozko doktrina bezala inposatu zuena orobat). Oroit Kautsky: egiazko teoria zientifikoa, eman eta sartu egiten zaio herriari kanpotik, herriak ez du sortzen bere baitandik. Gero Leninek bereganatu zuen tesia. «Espontanistek», aldiz, herriari, berak nahi duenarekin eta zekienarekin utzi nahi zioten bakean, herriaren gainetik zientzia supernaturalik gabe. Joera hau indartzera zetorren Paretoen soziologia, ekintza logiko eta ez-logikoen berezkuntzan oin harturik, gizonak bere egintza gehien-gehienetan ez-logikoki diharduela, erakutsiz, sentimenduek eta desirek eramanda baino. Politikan bereziki. Alabaina «zientismoak» zuen garaitu. Eta mugimendu proletaria diziplina eta programaketa herstuenean bidetik sarrarazi zen, herriaren alde-tik, mugimendu espontanio oro ezezik, eragintza posibilitateak ere itoaz Alderdi barruan behetik gora. «Filosofo berriek», bada, marjinazioan, Alderdi haundietatik kanpora, geratutako korronte bati atxeki zaizkio.

Tradizioaren haritik

«Filosofia berriak», gure mendeko korronte ideologi kritikoe-kin enpalmatzen du halaber. Mannheim, Weber eta haiekin, baitipat; baina, bertagotik eta konkretukiago, Geiger ondoko ikerketa positibistekin nahiz Frankfurteko Eskolako azterketa kritikoe-kin. «Filosofo berrien» ideologi kritiketan, hainbat Adorno, Horkheimer, Marcuse, Habermas berraurkitzen da, harrigarri ere bai bait da, «filosofo berrien» aitortza bat ere ez aurkitzea, Autore haici zor dieten guztiaz. Izan ere, pentsamendu autoritariaren haria jarraituz, adibidez, Marx eta Hegel baina, Rousseau gaindi, Platonenganaino (Benoit, *Tyrannie du Logos*) itzularazi nahi bagaituzte, tradizioaren luzea eta sakona erakusteko, segituan datorkigu gogora Popperen *The Open Society and Its Enemies*, aski sonatua, bere Platon/Hegel/Marxen azterketa haundiekin. Adornoren dialektika negatiboa gogoratzen dugu, eta hegelianismo totalitariaren kritika. Berdin harritzen gaitu, histori burutaera marxistaren oinarrian egitamu erlijiozko edo mitologiko bat salatu nahi bada, K. Löwithen estudioak ez haintzakotzat hartu izana (*Weltgeschichte und Heilsgeschehen*), esate baterako. Eta, arrunt, E. Topitschen lan ideologi kritikoak ezagun ditzanak, «filosofo berriak» apur bat zahartxo eta zaharberriazale ere aurkituko ditu apika. Agian «Filosofia berriaren» ekarria, ez da aparte orijinala. Berak ekarri dakarrenak baino ohargarriago,

bera ekarri duenak dirudi. Izan ere, «Filosofia berria», azken urteotako giro kritikoaen produkto da eta korrante kritiko txit ezberdinen konbergentzian situatzen da. Esistentzialismoak, estrukturalismoak, ezagutzaren soziologiak, arrazionalismo kritikoak, etab., historiaren filosofia edo historiaren «zientzia» haundiekiko mesfida zabaldu ezezik, haien oinarriak minatu ere egin dituzte, sozial-psikologia etab. ez aipatzeko (Lacanistek adina postlacanistek). Eta «Filosofia berriak» holako arrakasta izan badu, duda gabe, diziplina eta eskola hain ezberdinetako emaitzak bildu eta lotu dituelakoxe izan da. Hor zehar sakabanaturik zebilen ikuspide eta arrazoipide asko, geroz eta gehiago aidean zegoena, giro bat sortuz, eskeptiko eta samina, «Filosofia berriak» bildu egin du.

Marxismo kritikatu

Izan ere, agian inportante da, «Flosfia berriak» giro bat sortu duela: giro txarra, ez eskorra, negatiboa iraultzari buruz, —eta «Filosofia berria» horregatik kondentatzea—; baina ez du inportantzia gutiago, giro baten produkto dela bera, eta kontu egin beharra dagoela giro horri, ezer nahi badugu. Izpiritu asko sentitzen da nekaturik, nahasturik, desengainaturik. Eta «Filosofia Berria», izpirituen egoera honen espresio bilakatu da.

Izpirituen neke eta asperkunde hori ez da inolaz ere zientzia «burgesen» kalte hutsik. Horiek berena egin dute. Baina marxismoaren historiak berak apenas izan du zerikusi gutiago. Dogmatika aspergarri luze batek eragin duenaz aparte, marxisten arteko atake eta kontraatake etengabeek (Sobiet Batasun/Txina, adbz.), ezpalketek eta mila eztabaida ulerkaitz eskolastikok, egiazko marxismoa hau zela edo hori zela, azkenean nekea eta pasibitate sortu dute. Muga gaitezen, ondorengoan, Frantziara soil.

Orain, Althusser bera, *L'Humanité*-k «gerra deklarazio» bezala ulertu duen gutun batetan, zirti-zarta hasi da Alderdi Komunistari erasoka, stalinista dela oraindik, burokratismoak itozten duela, etab., eta teoria marxista bera, Alderdian, zero eta huts dela. Ongi da. Baina Althusser horixe zen, teoria marxista ofizialak (stalinistak) deus ez zuela balio eta, beste krisi haundi batetan, desestalinizapen urteetan alegia, Alderdia salbatu zuena, teoria marxista zientzitasunaren soineko berri-berriz jantziak. Zaratatsuki frakasatu zuen «marxismo autentikoari», «marxismo autentiko» berri bat sortu zion oinordeko. H. d. Althusserek, marxismo autentiko eta zientifiko bat sortzeko oinarriak ezartzen zituen, berak zioenez, eta ez gehiago («...que la philosophie

marxiste, fondée par Marx dans l'acte même de la fondation de sa théorie de l'histoire, est en grande partie encore à constituer»). Eta, berak uste zuenez, marxismo autentiko eta zientifikoko hori berehalaxe eraikiko zen. Orain, ordea, berriz ere zeroan gaudela...

Teoriaren teoria egiten geratu gabe, Althusser bezala (Althusserena teoria inperatibo edo desideratibo bat bait da: «marxismoak holako eta holakoa izan behar du!»), marxismoari desarroilabide konkretoko batzuk ematen saiatu zen jendeak, etengabe Alderdiarekin iskanbilan ibili behar izan zuen eta azkenean «bere» marxismo indibiduala antolatuz bukatu du, bakoitzak bere aldetik. Esaten den legez, denak egiten aritu diren kritike-tan, ez da geratu Marxen tesi bat bakarrik erreibatitu gabe. Marxismoa zutik geratu da, baina tesi bat bakarrik ez da geratu zutik. Hori da komeria. Eta esan nahi du, zutik, edukin gabeko marxismo bat geratu dela, inbokatze bakoitzeko bakoitzak balio duena. Maurice Clavelek borobil atera du kontua: «Frantzian, Unibertsitate, argitalkuntza nahiz kulturaren erabateko Marxen domeinu oso-osotik bi urtetara bakarrik, orain, ez dago inor, bere burua ezertzat daukan intelektualik, izen hori merezi duena, bere burua pentsatzen duen gizonik, Marxen tesi bakar bat ere defendatzen ausartuko litzatekeena». Eta errematatzen du beste interbista batetan: «Marx comme penseur de la révolution, qu'il soit matérialiste dialectique, structuraliste ou phénoménologue, c'est complètement fini, dépassé, liquidé».

Ahoberokeria? Beharbada. Baina marxismoak, edonola ere, berak du hauzi gehiegi, ezer besteri hauzia jartzeko; bera dago iraulkoituegi, ezer beste iraultzeko. Bera dago krisian, mundua krisian jarri behar zuena.

Orain, nahaspila deskontsolagarri honen aurrean, Marxek intelektualitate ia guztia menderatzen zuen garaia gogoratu behar da. Berak marxistak ez zirenak ere —Sartre, adib.— Marxen inguruan mugitzen ziren, txinbeletak argiaren inguru. Marx erabat nagusi zen. Hau da, Alderdi Komunista zen nagusi. Baziren baxterrean taldetxo heretikoren batzu. Baina zismok ez dute Marxen eta Alderdiaren nagusitasun subiranoa konfirmatzen baizik. Hala ere, bloke monolitikoak ezin luzaro iraungo du...

1948an Merleau-Ponty eta Sartre *Les Temps Modernes*-en batera zinatuz zuten editorial batetan, Sobiet Batasunari sostengu agintzen zaio, baina lehen zalantzak somatzen ditugu jadanik: «Quelle que soit la nature de la présente société soviétique (gure azpim.), l'URSS se trouve grosso modo située dans l'équilibre

des forces du côté de celles qui luttent contre les formes d'exploitation de nous connues». Zer zen sobietar sistema? Azkeanean, sistema sozialista zela egiten zen kontu. Eta, esanak esan, sozialistagatik barkatzen zitzaion dena. Eta haren natura zen, intelektualitate ezkertiarriari Sobiet Batasuna, «avec ses questions et ses horreurs», «une entreprise en panne» bezala kontsideratzen zioena. Sobiet Batasuna, beti ere, «iraultzaren aberri» bezala ikusten zuten. Beren itxaropenek, Lurralde Santu hori behar zuten, eguzkialdean.

Marxismo banatua

1949tik aurrera, talde marxista kontestatari ttipi-ttipi bat agertzen da, Claude Lefort eta Cornelius Castoriadis-en *Socialisme ou Barbarie* aldizkariaren inguruan. Kartsuki borrokatzen zuen stalinismoa. Talde honentzat ez zegoen dudarik: totalitarismo sobietarra ez da sistema funtsean sozialista baten «panne»-ren bat, oker igarokorren bat. Sobietarra, horientzat, funtsean totalitaria da sistema eta kito: «La société russe n'est pas une société socialiste, ni un Etat ouvrier, aussi 'dégénéré' qu'on le voudra. Elle est une société d'exploitation où le prolétariat, frustré des produits de son travail, exproprié de sa propre activité, subit le même sort que le capitalisme privé. La bureaucratie russe n'est pas une formation transitoire».

Biztu da sua, sobietar sistemaren naturaren hauzia. 1950eko urtarrilean beste editorial hau zinatzen dute Sartrek eta Merleau-Pontyk elkarrekin, baina idatzi azkenak egin du: «Uno de nosotros escribía aquí hace dos años que la sociedad soviética es ambigua y que hay en ella signos de progreso y síntomas de regresión. Si hay 10 millones de personas en los campos de concentración —mientras que, en el otro extremo de la jerarquía soviética, salarios y nivel de vida son de 15 a 20 veces más elevados que para los trabajadores libres— en este caso, la cantidad se convierte en calidad y todo el sistema da un giro y cambia de sentido y, a pesar de la nacionalización de los medios de producción, y aunque la explotación privada del hombre por el hombre y el paro no sean posibles en la URSS, nos preguntamos qué razones tenemos para hablar de socialismo al referirnos a ella».

Zazpi giltzez hertsia-hertsia egon arren, Sobiet Batasunetik berri geroz eta gehiago ailegatzen da, berri geroz eta latzagoak. Kezkagarri da. Zer da, zinez, «komunismoa», zer «marxismoa»? 1952an, oraindik, Sartrek bere ahalak eta bost egin nahi ditu,

erakustearren, «dans quelle mesure le PC est l'expression *nécessaire* de la classe ouvrière et dans quelle mesure il en est l'expression *exacte*». Sartre, Alderdi Komunistaren abogadutzan enpeinatzen da. Zer gerta ere Sobiet Batasunean, dena alde bat uzteko eta «barkatzeko» pronto dago, «Billancourt ez desesparazteko»; hots, bere itxaropenak Sobiet Batasunean, komunismoan, ezarri dituzten Paris inguruko masa proletariak. Hori dela eta, Merleau-Pontyk Sartrearekin hautsi egiten du (Camusek halaber); 1955ean *Les Aventures de la Dialectique* publikatzen du. Ezkerra, iraultza, ametsetan, ilusionismotik bizi dela salatzen du Merleau-Pontyk: «Etre révolutionnaire aujourd'hui, c'est accepter un Etat dont on ne sait presque rien, ou s'en remettre à une grâce de l'histoire dont on sait moins encore». Gogorki salatzen du, batez ere, Sobiet Batasuna. Eta aldenik alde ukatzen du «la patrie de la révolution» bezala, hots, eredu gisa, balio lezakeela.

Gero, gertaerak bata bestearen gain pilatzen dira: 1956ko hauteskundeetan ezkerra nagusitzea, Algeriako gerra, Krustxofek Stalinen krimenak azaltzea XX.gn Kongresoan, Hungariako altxamendua eta zanpaketa, Berlingo murrua, haustura txino-sobietarra... Sobiet Batasunaren fazinazioa iluntzen hasten da. «Gauchismoa» argitzen. «Egiatzko marxismo» zaharra, stalinista, abandonatu beharra bait dago, «egiazko marxismo» berriak asmatu nahita hasten dira saioak, «retour à Marx» baten formakoak denak, baina saiook elkarren kontrarioak dira (Garaudy/Althusser, gramscismo). «Egiatzko Marx»-engandik itxaroten da beti ere soluzioa. Baina «egiazko marxismoa», irudi puskatua da jadanik. Marxismoa banatzen hasi da... Hungariako altxamenduen eta zanpaketaen biharamunean, Alderdi Komunistak interbentzio sobietarra itsu-itsuan bedeinkatzen duen artean, intelektual mordoska bat Alderditik apartatzen da: Kostas Axelos, F. Chatelet, P. Fougeyrollas, H. Lefèbvre, etab. Horiek sortzen dute, beste lagunen batzuekin, *Arguments* aldizkari marxista antidogmatiko, kritikoa.

S'il fallait —irakurtzen diogu J. M. Benoisti— faire l'histoire de la contestation du marxisme en France depuis les années 1950, il faudrait s'armer de la patience dont dispose un historien de l'Eglise; il faudrait se montrer attentif aux cris, aux plaintes des alcôves, des absidioles et des chapelles latérales, étouffées, déformées ou simplement réprimées par la cérémonie centrale qui se déroulait dans la nef majeure entre le XXe Congrès et le XXIIe Congrès du Parti Communiste. S'aviser que des rumeurs venues de l'extérieur, la fission du Parti Communiste Italien depuis Gramsci, l'indépendance manifestée par Tito ou Togliatti ne par-

venaient au centre de l'Eglise française que sous la forme tronquée, défigurée, de la calomnie ou de ces sonorités étranges réfractées par des milieux liquides aux indices si différents —tels d'imprévisibles et mortifères amnios— que la musique ou l'information n'offrent plus rien à l'arrivée qui puisse les rapprocher de leur source.

Il faudrait montrer comment un appareil centralisé, hiérarchisé, conditionné et contrôlé, exerçant sur tous ses membres l'omniprésence du regard et de l'inquisition, le *Panoptikon* de Bentham, s'est montré capable de surveiller et de punir tout ce qui lui apparaissait comme déviance, hérésie, risque de désagrégation du corps central.

AK-ek, izan ere, bestelakoek ez bezala —bestelakoek ez bezala funtzionatzen dutelako— afera, eskandalo, eten, hauzi eta kondena, eskusio eta errebisio historio luzeak dituzte, luzeak ere. Baina 50.gn urte horietzek ezkerero, hain zuzen, teoria monolitikoaren desintegrazio eta banaketa urte zailetan, AK-ek beti aparato efikaz bat eta diziplina izpiritu irmoena, erakutsi dituzte. Krisi teorikoek ez dute Alderdian beren neurriko krisi politikorik inoiz sortu. Agian horregatik saiatzen da Ellenstein, ideologia eta politika ongi berezten: «...le Parti est un organisme politique, pas une chapelle, pas une secte, et, même s'il a un contenu idéologique, ce qui constitue fondamentalement le PC, c'est la politique. Donc, on vient au PC non pas spécialement parce qu'on est marxiste, mais parce qu'on est d'accord avec sa politique et qu'on est décidé à l'appliquer»⁵. Eta agian logika horretxetan dago, «Filosofia berrian» dakusgun paradosa, Benoistek *Marx est mort* idazten badu eta B.-H. Lévyk «Stalin n'est pas mort»...

Desestalinizapenak zatiketa gehiago ekartzea, ezinbestekoa zen. Frankfurteko Eskolaren eraginak (Horkheimer, Adorno), Marcuserenak eta W. Reichenak bereziki, are nahastuago zuen ezkerreko panorama. Marxismoa, sistema bete eta osokoi segurua izatetik, «inspirazio» izatera zetorren. Konstrukzio teoriko bezala, ordea, tesi bakar bat ere gabe, ez zebilkionik hauzi gorritan, edo zeharo arbuiatua ez zenik. Irmo geratu zena organizazioa zen. «Tesiek» inportantzia galdu zuten. Orduan, marxismoa «metodo» bat zela, esan zen. (Althusser bera postura honen efektu dela, erakusten du D. Kaisergruber, *Dialectiques* aldizkari-koak: «Il faut ici être clair sur ce que signifie être marxiste aujourd'hui pour Louis Althusser, comme pour d'autres après lui: *une certaine attitude* intellectuelle et politique d'articulation de l'histoire, des concepts et de notre réalité d'aujourd'hui») (gure azpim.).

Baina analisirako tresna edo metodo bezala ere, horixe batez ere hain zuzen, marxismo «garbirik» apenas geratzen zen honez gero: zeinek freudo-marxismoa, zeinek marxismo estrukturalista, etab., zerabilen, marxismo terminoaren adiera geroz eta gehiago lainotuz, inork bere burua marxista aitortzekotan. Marxismoa krisian badago, «marxismo/marxista» terminoak, krisian baino gehiago, sentido nahasketa ikaragarrian erorita daude.

«Filosofia berriak» marxismoa, ideologia eta sistema bezala, kritikatzeko badu, egun marxismoari datzekon anbiguitate guztiez geratzen da (apur bat, leninismoaren kritikan ere gertatzen dena). Batetik, marxismotik bertatik kritikatzeko da marxismoa, eta hori, itzulian, marxismoaren baitespen bat adina da: lehen ere maiz-sarri egin dena (K. Korsch, etab.), marxismoak, alde batetik, elementu iraultzaile eta libertari nabarmenak bait ditu; bestalde, ordea, elementu determinista-eboluzionistak ere bai, analisi ekonomikoetan batez ere, eta, marxismoaren historian guztinez era bitako ondorio gaitzak ekarri dituena: alegia, sozial-demokrazia alemanaren fatalismo ekonomikoan, faxismoaren aurrez-aurre, iraultza, egin ordez, itxaron eginez, bera etor zedin, krisi ekonomikoak ekarri besterik gabe; eta, bigarren, leninismo-stalinismoan, iraultzaren eginkizun behin-behinen ekonomia azkartzea zelakoan, «iraultza politikoa» zeharo ekonomikoaren alde sakrifikatuz (hori ere fatalismo ekonomiko era bat bait da). Baina, bestetik, «filosofo berriek», arrazionalismo mendebaldar guztiari egiten dioten kritika bera egiten diote marxismoari. H. d., zapalkuntza berrietarako bidegile izatea.

Ezkerraren krisia

Zilegi bekigu, azkenik, «Filosofia berriak», ezker guztiaren krisiaren, eta ereduaren krisiaren, produkto bat ikustea.

Ezkerra, hots, langile mogimendua, ez bakarrik hautsita, baina konzeptu gabe ere badabil, zer egin nahi duen. Aski da azkeneko ehun urteon historia bat irakurtzea, zenbat kontraesantetan erori den ikusteko; zenbat aldiz saldu duen eta zenbat aldiz galdu ere duen bere burua.

Sozialismoa indar hegemoniko zela gailendu zen Europan faxismoa, langileriaren parte haundi batek jasota gailendu ere.

Sobiet Batasunak, hamabi urtetan lau aldiz behar izan du militarri interbenitu bere inguruetan, «sozialismoa salbatzeko». Bi-

tan behintzat bere gerra aparato astun guztiarekin (Hungaria, Txekoslovakia; Polonia, Alemania Demokratiko).

AK haundiena, «izandakoena» da, entzuten da Frantzian; edo baita Alderdi haundiena, «Alderdi ex-Komunista» dela ere. 400 mila inguru lagun duela, kalkulatzeko (berek, jeneralean, «eboluzio» deitu ohi duten krisia). Etxean ikusten du nahikoa...

Zer dira, krisi seinaleak ez badira! Baina euskaldunak honez gero ez dauka Frantziako, Alemaniako edo Ingalaterrako ezkerrei begiratu beharrik, haien krisia somatzeko (berek, jeneralean, «eboluzio» deitu ohi duten krisia). Etxean ikusten du nahikoa.

68.ko maiatzak, une batez, eman zuen susto haundi bat eta aukera ttipi bat, ezker klasikoaren krisiaz denak filosofatzen hasteko (Cohn-Bendit: *Le gauchisme, remède à la maladie sénile du communisme*). Harrez gero, ezker berriak berak ez dabilta kritiki ttipiangoan. Eta ezker klasikoek utzi egin dutela, ematen du, beren krisiaz arduratzea. «Mila urte igarota, ura bere bidean». Antza dago, egon ere, Orwellek 1984 nobelan, edo James Burnhamek *Organizatzailleen Aroa*-n, agertu zutena, egiztatzera doala, ez neokapitalismoak eta ez sozialismoak erremediatu ezinda. Hots, beste aukerarik ez dagoela, kontsumo totalitarismoaren eta burokrazi totalitarismoaren artean baizik. Edo, seguruago, bion konbinazioa.

«Filosofia berriak», atzoko «gauchismoarekin» konsekuentz jarraitzen du, Marcuse-ren «arbuio haundiarekin» konsekuentz hain zuzen, gizon «multidimentsionala» ukatzen, martiritzatzen, xehakatzen duen zibilizazio teknizista arbuiatzean; eta horretaraxe baino ez daramaten ideologia «progresistak» arbuiatzean; eta ezker klasikoak adina arbuiatzean berriak berak, optimismo suizida bat predikatzen baino ez dakitelako horiek ere.

«Gauchismoa»: krisia nabarmentzen

Besterik ez bada, «gauchismoak», ezker zaharraren krisia nabarmenarazi zuen. Ikusi zen orduan aitortzarik eta damurik (M. Rocard: «Mai 1968 enfin a été pour nous un sévère rappel», etab.). Penitentziazko obrarik ez da hainbeste ikusi. Are, «gauchismoak» bere burua jaten duenez gero, ezker zaharrak lehengo beren parrandara itzul daitezke.

Eskuinak ala ezkerak, ez daukate beste alternatibarik, biek pastel bera eskaintzea baino, zeinek baino zeinek errezeta hobea omen bait du, hoberena egiteko. Aski diru, lan baldintza errazak, bakantza gozoak eta ordu libre asko, segurantzia sozialak eta erren-

ta luze zahartzaroan, erosotasun guztia eta aisia, zaizkigu agintzen eskuin ezkerretatik. «La barbarie por venir —protestatzen du B. H. Lévyk— tendrá, para nosotros los occidentales, el más trágico de los rostros: el rostro humano de un 'socialismo' que repetirá por su cuenta las tareas y los excesos de las sociedades industriales. El reino de una plebe erudita y acomodada, que ya en Francia por lo menos se reconoce en los espejos de la extrema derecha Chirac y del cosumismo risueño. La victoria de un estilo que podría considerarse indistintamente como fascista y proletario... Aparece en el horizonte un turbio condominio, una extraña sirena política, cuyo cuerpo será el capital y cuya cabeza será marxista».

Ez, noski, ez: inork ez du austeritate programarik proposatzen alternatiba bezala. «Filosofo berriei» ez zaie nabari, zenbait «gauchistak» —predikuetan batipat— erakusten duen amorru antikonsumista, garizumari, asketikorik. Proposatzen dena, gizon bat da. «Progreso» hori zeharo sakrifikatu ez zaiona. Makineria sozial batetan zerbaki bat soil edo botoe bat ez dena, baina gizon bat. Ideologiaren batek (h.d., eskolak, etab.) ajedrezeko fitxa huts bihurtu ez duena. Aparatoan zeharo galdu gabekoa.

Le mouvement de Mai..., en quatre semaines, il a fait apparaître qu'en dehors de toute situation de famine des hommes savaient engager des luttes dures pour changer le sens de leur existence. Il a souligné aussi que le trait dominant des exigences d'aujourd'hui est le refus de la centralisation, de la bureaucratie. L'aspect libéral du mouvement touchait aux sources le plus profondes du socialisme français. Il reste à traduire en projet politique l'espérance qu'il a représentée ⁶.

Gizarte industrialak, sozialistak nahiz kapitalistak, organizazio «zientifiko» batetarantz desarroitzen ari dira. Ez legoke zer eragotzirik, «zientzia» hori zinez neutrala balitz, esan ohi denez. Baina, gizon erreala, «gizaki sentikorra», alde bat uzten du. Edo, Heideggerekin Marcusek etengabe markatu eta azpimarkatu duen moduan, teknika, teknologia modernoa, «mundua instrumentalitate bezala kontsideratzen duen projektua» da. Alegia, azkenean gizona bera ere instrumentalitate bezala bakarrik haintzakotzat hartzen duena, instrumentu gisa balio duen adina balio duena. Teknologia, zientzia, beregain eta nagusi bilakatu dira, Botere hain zuzen, gizonaren morroin bezala ihardun orde, eta bereber desarroitzen dira, gizona ere behartuz haien desarroiloari esklabo legez bultz eta bultz egitera, Sisifo berri. Egia da, totali-

tate bezala, gizonak, edo gizadiak, teknologiari eta zientziari eskerrak, naturaren menpetik askatzea eta bere Boterea zabaltzea lortu duela, unibertsoaz jabetzeraino. Baina totalitate zientifiko eta teknologiko horren baitan, gizon erreala, konkretoa, sekula baino moztuago eta soilduago geratu da bera, totalitatearen Boterea hain zuzen gizabanako errearen administrazio totalerako Boterea denez gero.

Ezker berriaren protestak eta eskariak

Ezker berrien protestak, horregatik, «mundua ignoratzen» zuela, zirudien; mundu honen «problema larrienak» —lanaren organizazioa, produkzioa, ordenu soziala— alde bat uzten zituela, objetatzen zitzaion, problematxo sekundario batzuk —amodioa eta...— dramatikoki puzteko eta soluzio utopikoak ametsgiteko. Gizarte honek ezin funtziona bait dezake ordenu haundi eta rigoros bat gabe. Gizarte kapitalistek zein sozialistek, ordenuan txintxo-txintxo ibiltzea, esijitzen diote hiritarrari. Eta ordenua hausten duena, psikopata deklaratu izango da, ekialdean nahiz mendebalean.

«Totalitatea» bera ontzat hartzen bada, egia da, onartu beharra dago haren esijentziak ere, guztien aurretik ordenua, hots, beti totalitate zientifiko-teknologiko horren morroin egoitea, libertatea, «zerbitzuan» ez zaudenerako utziz (etxean edo bakantzetan zaudenerako apika). Beraz, totalitatea bera zen ezker berriak arbuiatzen zuena. Ez dute beste zentzurik, «iraultza seksualak», «iraultza kulturalak», «hezkuntza iraultzak», etab. Eta horixe da, barnean, protesten zentzua ere, «zibilizazio errepresibo», «hizkuntzaren faxismoa», etab., salatu direnean, gizonaren zapalkuntza, Marxek egin duen baino hagitik sakonago eta konplexoago ikusi beharra dagoela, adierazi nahi bait da, ezen ez jabeago erlazioen deribatu bezala bakarrik. Zapalkuntza fenomeno, jabeagari dariona baino konplexitate askoz haundiagoz ageri da, psikoanalisi, etnologia, epistemologia, linguistika bera eta biologia erakusten ari zaizkigunez.

Ezker berriaren esijentziak —«antikultura», etab.— oso abstraktu geratzen dira, edo —«iraultza seksual», etab.— oso partzialak dirudite eta ez oinarri berririk, gizarte molde berririk eraikitzeko. Agian balio ere ez dute asko balio projektu positibo bezala. Baina balio dute krisi baten adierazgarri bezala. Sozialismoak, projektu benetan berririk bururatuko badu, krisiaren larria ohartu behar du lehenengo. Seinala ditzagun puntu batzuk, osotasun asmorik batere gabe.

1. «Zibilizazio» honen nazka, globalki. Ez da ezer berririk, berez: aspaldikoak dira joera monastikoak, Indiazaleak, esistentzialismoa eta surrealismoa bera. Baina lehenago ez da inoiz ailegatu 68.eko maiatzik probokatzerara.

2. Interesen eboluzio bat. Protesta mogimendu errebindikatioek, karaktere ekonomiko-soziala zuten tradizionalak: alokairu haundiagoa, zortzi orduko lana, baldinkizun sanitariak, errenta. Protesta mogimendu iraultzailerik sortzen duten errebindikazioak, egun, ekologikoak, feministak, minoria zapalduenak, etab. dira. Ez dira miseria ekonomikoak sortuak, baina giza duintasun zangoperatuak.

3. Kapitalismo-Sozialismo sistema ekonomiko eta sozialeko mesfida badago, edo indeferentzia, ikusi beharra dago, horien oinarriak berak daudela krisian. Hots, Modernia. Bai iraultza burgesaren eta bai sozialistaren oinarri izan diren arrazionalismoa, fedea progresismoan, etab., oraindik eraginkor dira, izan, baina beste alternatibarik aurkitu ez delako. Egungo «progreso optimismoak» arras beste karaktere bat du XVIII.gn edo XIX.gn mendeetan baino. Inork ez du jadanik handik, aurrerapen teknikotik, askatasuna, duintasunaren gora, zoriona, espero eta bai konfort gehiago, lotura eta menpetasun gehiagorekin batera halare. Gaitza da progresoaren balio humanistan sinestea Hiroshima eta Gulagez gero. Aurrerakada kapitalistaren eta sozialistaren, bien, bultzagile izan diren «ilusio haundiak», XVIII. eta XIX.gn mendeetakoak itzaliz doaz.

4. Ezker berriak eta «gauchismoak», puntu jakinen batzuetan mogimendurik sortu arren, ez dute aurkitu alternatiba globalik, borrokatu nahi zuten «zibilizazio tekno-burokratikoak» ordeztatzeko. Beraz, ez diote irtenbiderik eman ezkerrean krisiari. Pesimismo berri bat, bai, zabaldu dute beren ondoren.

5. Boskarren puntuak badu zerikusirik ezker berriaren frakasoarekin alternatibarik ezin bilatzean, eta luzexago aipatuko dugu. Baina badu zerikusirik ezkerrean krisi arruntaz ere. «Zientzien banakuntza» da.

1960 aldera arte, gutienez (Frantziar ari gara), jakintza guztiak eta jakintza bakarra marxismoa zen, —R. Aronek inpotenteki *l'Opium des Intellectuels* bezala deitoratzen zuena. Argus begi zorrotzez, marxismoak, dena zaintzen zuen, dena esplikatzen zuen, dena kontrolatzen zuen. Marxismo honentzat, soziologiak, etnologiak, psikoanalisiak, sobera zeuden. Marxismoak bazekien dena. Zergatik lehen gizarteak holako edo halakoak ziren, eta zergatik inor burutik nahasten den eta hori nola sen-

datuko den, iraultza eginez gero. Dena klase banaketaren eske-
ma guztiahaldunak esplikatzen zuen. Oinarri ekonomiko eta
gainegitura politiko ideologikoaren eskemak, azken finean. Mar-
xismoa. «il s'imposait politiquement, mais il existait peu philo-
sophiquement. Son drame est qu'il était devenu une doctrine
'la grande et invincible doctrine de Marx, Engels, Lénine et
Staline' comme on disait rituellement dans les offices commu-
nistes. Il se présentait comme le recueil des bonnes formules,
le vade-mecum de la référence, le système qui rendait inutile
toute question et toute recherche puisqu'il était la réponse dé-
finitive» (A. Akoun)... Holako marxismoaren alboan, marxis-
moak onenean ignoratuta, gehienetan madarikatuta, etnologia,
psikoanalisi-psikologia, zientzia biologikoak, linguistikoak, epis-
temologia, historia, etab., joan dira ernez, haziz, nagusituz. Mar-
xismoaren monopolioa erabat galdu da, analisi sozialerako tresna
eta metodo bezala.

Beraz, egun, metodo eta tresna diferente asko badago gizarte
azterketarako, ezkerrean berpentsatu beharrean dago. arestian apa-
rato sinple samar batez bururatu zen sozialismo proiektua. Ber-
rikusi, zer den zapalkuntza. Sustraiak. Hartu Boterea fenomeno
primario eta autonomo bezala, ez jabegoaren deribatu soil, eta
berraztertu beharra dago oinarri ekonomiko, politiko, ideologi-
ko, sozial eta psikologiko, linguistikoak; biologiko eta genetikoak
berak, beharra badago. Berplanteatu askatasun sozial eta politi-
koaren problema...

Funtsean, Lévyk bota duen eran, sozialismoaren posibilita-
tea baino gehiago dago hauzitan: haren desiragarritasuna. Merezki
al du sozialismoak? (ikusiak ikusi ondoren Sobiet Baatasunean
eta). Beraz, haren natura. Aseguratzen al du sozialismoak liber-
tate gehiago, giza duintasun gehiago, liberalismoak baino? Ala
Estatu gehiago dakar: plangintza eta kontrol gehiago, errepresio
(bigun ala gogor) gehiago eta, beraz, «gizon administratua goa»?

Ezker zaharren artean beti eztabaidatzen dena, bidea da;
nola heldu sozialismora: borrokak, aliantzak. Baina bideak pro-
blemak baditu, natura bera problematiko ageri delako. da. Zer-
gatik da *L'Humanité*-k gehiena atakatzten duen beste agerkaria,
ez aldizkari eskuindarren bat, baina hain zuzen *Nouvel Obser-
vateur*? Oso bestela bururatzen duelako, teoriarik nahiz praksian,
sozialismoaren natura. Eta problema horixe bera dago Sobiet
Batasunaren edo leninismoaren eztabaida guztien barnean. Az-
kenean, marxismoarenean ere. Hau, ortodoso batek lehenago
inolaz onartuko ez zuena, gaur Ellenstein batek berak aitortzen

dizu: «Il y a, à gauche, des gens qui sont sans doute sincèrement de gauche, mais qui considèrent que l'Union Soviétique n'est pas, en fin de compte, un Etat socialiste... et c'est là tout le problème! Si c'est un Etat socialiste, même avec des défauts, il faut le défendre... Mais à partir du moment où vous admettez que ce n'est pas un Etat socialiste, effectivement, vous pouvez dire n'importe quoi contre l'URSS!». Problema hori da, hortako. Eta ez, komunismo/antikomunismo, marxismo/antimarxismo sinpleen sinplekeriak.

Iraultza sozialista baldintzatua

Industria guztiz atzeratuko lurraldeetan egin dira orain arteko «iraultza» sozialista guztiak. Beraz, sozialismoa, eginahal guztiak egin beharrean aurkitu da, industria azkartzeko. Ondorioa, sozialismoa bere alderdi ekonomikotik bakarrik kontsideratzea, izan da. Teoriak ere sozialismo kontzeptuaren murrizpen hori errazten zuen: sozialismoaren etorrera, prozesu ekonomiko baten ondorioztat espero zen. (Kapitalismoa krisi ikaragarri batek bere baitandik porrokatzean heldu behar zuen sozialismoak). Beraz, bai praktiki aldetik eta bai teoria aldetik horretaraxeturik, burutaera klasikoak, sozialismoaren naturaren kontzeptu herstuterstuki ekonomikoa desarroilatu du: *produkzio indarren* sozialkuntza askiesten bait zen sozialismotarako; eta juridikoa soil, gainera: haien *jabegoaren* sozialkuntza, propiokiago. Eta hori ere, barneagoan, sozialismoaren posibilitatea eta, are, ezinbestez-kotasuna, historiaren aurrerabidean, ekonomikoki determinaturiko eskema batetan esplikatzen zirelako: klase borrokaren eskeman. Xuxen-xuxen eta linealki, produkzio indarren desarroiloak esplikatzen du klase borrokaren desarroiloa. Eta klase borrokatik partituz esplikatzen zen gainerako dena: gizarte molde berrien sorrera; Botere, menpetasun, Dretxo, etab., «gainegiturak». Beti ere ekonomiatik partitzen da kontsiderazio guztietan. Esklusibismo pribilejiatu batez partitu ere. Gero, nola ihardun ere, plan teamendu funtsean ekonomiko hutsa egingo da. Klase borrokari ezer kendu gabe, ordea, eta produkzio indarren sozialkuntzari nahi den inportantzia aitortuz ere, zientzien argitasun berriekin, eta iraultza sozialistekin egindako esperentziekin, problemon konplexitate haundiagoa deskubritu badugu, aski ote da eskema hura zerbait nasaiago ulertzea; zuzenketa batzuk egitea jabego sozialkuntza kontzeptuari (Poulantzas) edo gainegituren determinazio teoriari (Althusser)? Psikoanaliak, etab. erakutsi digutena haintzakotzat hartuz, gauzak beren konplexitate guztian berplan-

teatu beharra dago. Ez dago ikusalde pribilegiatu eta determinante bakarrik. Ez dago metodo dezisibo bakarrik, gizarte azterketarako. Anartean nahasketek aurrera jarraituko dute, eskema monista, kausalista lineal, «azken finean» beti ere hierarkista eta ekonomizista hori jarraitzen bada, sozialismoaren kontzeptzioan. Gero, praksian ere, eskema horixe agertzen da: lehen-lehenik programa ekonomiko bat, gero geroakoak. Sozialismoak, kapitalismoa baino sistema ekonomiko efektiboagoa dela, erakutsi beharko du (eta agian ezingo du erakutsi). Horixe bait da, «filosofo berriek» dioten, ordenu baten lekuan beste ordenu bat ezartzea. Botere bat kendu. Botere bat ipini. Planteamendu horiekin, ordenu ekonomiko berri bat bai antola daiteke. Baina, objetatzen dute «filosofo berriek», orain artekoak bezalaxe, hura ere errepresiboa.

Iraultza sobietarra ikusirik, Freudek, sekula politikan sartzan ez zenak, hau idatzi zuen in *Malaise dans la civilisation*: «sistema komunistaren kritika ekonomikoa ez dagokit niri eta epaitu ere ezingo nuke epaitu jabego pribatuaren ezeztapena egokia eta onuragarria izan al den. Haren postulatu psikologikoa denari buruz, ordea, bai, autorizaturik nagoela, uste dut, hor, ilusio belaska bat ikusteko...». Orain axola dioena, ez da, Freudek arrazoi duen ala ez. Baina hauxe: psikoanalisiak/psikologiak zerbait badutela esateko eta esan beharreko, gizarte azterketa zuzenik egiteko eta, beraz, sozialismoaren kontzeptu egoki batetarako. Zientzien pluralismoa onartzen bada, ezin gera daiteke ondorio gabe sozialismoaren kontzeptziorako.

Sozialismoak, ridikuloa besterik ez du egiten, aurrerapen zientifiko guztiekin borrokan arituz, edo defentsiban geratuz, betiko bere ikuspideetan, sozialistak historia klase borrokaren perspektibatik epaitzen omen duelako⁷. Problema handi bat, eta ez sozialistentzat bakarrik, natura desberdineko problema eta zientzen multiplizitate horretan sintesirik lortzea da gaur. Ezker berrien frakasoaren arrazoi bat (bakoitza bere «egiarekin» joan eta sakabanatu egin delako), baina ezker guztian zabaldu den nahasketarena ere bai.

«Para cambiar la vida —deklaratzen zien Glucksmannek ezker radikaleko italiar gazte batzuei, OZONO-n, zenb. 33, irakur zitekeen interbista batetan— es necesario romper antes la relación de disciplina que la producción. Es lo contrario del marxismo». «No, la relación entre estado y sociedad no deriva de la producción, sino que la precede». Hemen ere kontua ez da, arrazoa Glucksmannek duen ala Marxek. Baina hauxe: hark

ez ote duen arrazoirik aski, Marxen alderantziz ere iharduteko; alegia, gizarte arazoa interpretatu nahi duenean, abiapuntu eta lehen kontzeptu oinarritzko bezala Boterea hartzeko, beste denari harekiko erlazioan eta dependentzian begiratu. Produkzio moduak eta harremanak edonolakoak zirela ere, beti egon dagoena Boterea da historian zehar. Produkzio indarren jabego pribatua ezabatu denean ere, geratu dena Boterea izan da, deus ahuldu gabe geratu. «Filosofo berriek», Boterearen arloak obsesionaturik, Marxen ikuspideak piska bat atzekoz aurrera badarabiltzate; Boterea produkzio erlazioen aurretik, eta ez ondotik, ipiniz, hori ere ezin proklama genezake baliozko ikuspide bakarra. Marxek hipotesi bat utzi digu: mila kasu eta modutan egiztatu da. Hipotesi hark, alderantziz ipini eta ere, aplikaziorik ez ote duen, proba egiten dute orain «filosofo berriek». Itsukeria literalista dirudi, Marx defendatu beharra dagoelakoan, haren hipotesiaren aplikabide berri bat —alderantzizkoa— esperimentatzen dutenak, alde aurretik kondentatzea. Horixe bait da, hostoak eta abarrak soilduta, «Filosofia berriak» planteatzen duen problema.

Irekita dago eztabaida. Nolakoak izango diren ere azkenean resultatuak, «filosofo berriak» entsegu interesgarri bat abiatzen ausartu dira. Psikoanalisiak, etnologiak, etab., genetikak berak, errepresio arazoaren inguruan aplikazio duten dato berri asko atara dute azken urteotan. Berplanteatu beharra dago errepresio/Botere arazoa ezagumendu berri argitara. Sozialismoak Estatuarekin egin dituen esperentzien argitara. Arrunt, «gainegiturak» erakutsi duten efikazia krudelak, esijitzen duen bezala: produkzio indarren sozialkuntzak hautsi ez duen, pitzatu ere ez duen, indarragotzea eta gaiztoagotzea ebitatu ere ez duen Botereari, hautsi ez bada, buru behintzat egiteko.

Ereduen krisia

Ereduak bi adieratan har genitzake. Batetik, gauzatzapenak, Sobiet Batasunean, Txinan, etab., konkretuki ikusten ditugun bezala. Horien krisia, eredu gisa, bista-bistan dago. Baina ereduen krisia, edo Torrealdayk, Rocardekin, aspaldi apuntatu zuen «iraultzaren eredurik eza», sakonago doa. Krisian daude eredu teorikoak berak, sozialismoan, anarkismoan, etab. bururatu izan diren bezala.

Berriz ere puntu batzuk bakarrik seinalatuko ditugu:

Sozialismoa eta kapitalismoa

Berdin al da sozialismo ala kapitalismo? «Filosofo berriak» marxismoari buruz jarrera negatibo, edo eskeptiko eta indiferente, batetara ailegatu badira, ez da marxismoaren «konplikazioen» ondorio bakarrik (esan dezagun horrelaxe eufemistiko samar). Metodo kontua da batez ere. Jarrera kritikoa unibertsal baten barruan ikusi behar da. Duda kartesiano baten barruan bezala. «Filosofo berriak» ez daude alde aurretik kapitalismoaren kontra, edo sozialismoaren alde, eta ez alderantziz. Alternatibaren aurrekaldetik situatu nahi dute. Baten eta bestearen alde onak eta txarrak berriro prejudizio gabe ikusi eta puntuz-puntu epaitu nahi lituzkete.

Hori xokagarria gertatzen da, ebidentetzat eduki bait da, intelektual moderno batek gutien-gutienez sozialista izan behar zuela eta handik gora. Orduan, holako deklarazio batzuk gogorak egiten dira:

Lo que occidente ha llamado socialismo no ha sido nunca más que lo que hemos conocido bajo el nombre de *gulag*, y hay muchas posibilidades de que el socialismo, incluso el eurocomunismo, sea una forma más elaborada de terror, de tiranía... El socialismo no es un pensamiento de liberación y en este mundo atravesado por el mal, el *amo*, se trata de elegir al menor mal, los menos malos de los amos, y es probable que estos no sean los socialistas.

Edo beste holakoak:

...Yo no he dicho nunca que consideraba como objetivo primordial acabar con el capitalismo; honestamente, en lo que a mí respecta, me importa un pepino si se debe acabar con el capitalismo; esto será trabajo de gente mejor preparada que yo para hacerlo. Y, además, hoy no conozco otra sociedad que funcione más satisfactoriamente, no en lo económico, sino en lo que se refiere a la vida de la gente y la libertad de los hombres, que el régimen capitalista. Por el momento sólo han encontrado como medios para terminar con él un capitalismo de Estado o un socialismo centralizado, por lo que me guardaré muy bien de decir que la diana principal es el capitalismo. No tengo una adoración frenética por él, conozco sus horrores, pero opino que el blanco a criticar principalmente no es el capitalismo» (B.-H. Lévy).

Glucksmannek, halare, beste hautuen artean nolarebait sozialismoari hoberitziko dio, «gaitzik presentagarriena» bezala hura hartuz. Tipiko da, epaiak era honetan ematea. Asuntoa ez bait da marxismoa baztertzea, kapitalismoaren kontra enpeinatzea, etab. (sistimei buruz, globalki, «filosofo berriak» indiferentetsu ageri dira hortakoz: berek azpimarkatzen dutena, sistema guz-

tiak txarrak direla, bait da), baina «bizimodu eramangarriena» bilatzea edozein sistematan ere. Orduan, bada, aukera ere ez da on eta txar terminotan egingo (sozialismoa on, kapitalismoa txar). Apenas bat txarrago eta bestea hobe terminotan ere. Baizik eta txar eta guttiago txar (edo ez hain txar) termino apaletan.

Estatu sozialista

Iraultza ondorenean, Estatuarena da responsabilitate haundia. Berak likidatu behar ditu ordenu zaharraren hondarrak, antolatu behar du gizarte berria.

Orain ikaragarri konplikatua iruditzen zaigun Estatu aparatua, Leninek uste zuenez, edozein etxekanderek aisa maneiatzeko adina transparente bilakatuko zen, langileria Estatuaz jabetuz gero. Holakorik ez da gertatu. Zergatik? Estatuari, beste aldetik, eginkizun ordenatzaile, gidatzaile, berriaren kreatzaile horik aitortzen zaizkion artean, holako ezer gertatzerik ez da goelako inolaz efe. Ez dago Estatua indartzerik eta une berean desegiterik. Sua bizitu zuenak, alfer-alferrik zuen, «baina sua hotza izan dadila» borondatea eta nahia.

Sozialismoaren okerra, Estatuaz jabetu eta bere asmoetarako baliatu nahi izatea da, hura desegin ordez. «Común a la II y a la III Internacional, la idea de apoderarse del Estado y de hacer de él el punto de apoyo para levantar el mundo: la esperanza de expropiar a los expropiadores, apropiándose de la máquina de Estado es común a los reformistas y a los revolucionarios; es común también la organización en forma de Partido, microcosmos del Estado futuro con su jerarquía, su disciplina, su autoridad elitista».

Leninismoaren kasuan hainbat larriagoa da extremo hau: 1. *Doktrina* aldetik: herriak ez dauka (ez dakí) doktrina egokirik. Herria bera, esaten da, ez da gauza mentalitate trade-unionista (sindikalista) motz bat gaingiatzeko. Teorikoek elaboratu eta Alderdiak eman behar dio herriari egiazko kontzientzia. Beraz, doktrina, herriaren gaintetik sortzen eta osatzen da. 2. *Organizazio* aldetik: herria ez da gauza bere interesen artikulatzeko eta organizatzeko. Alderdiak behar du abangoardia izan eta herria organizatu eta gidatu. Oinarriotan oin harturik, diziplina printzipio sakratu bilakatzen da: zentralismo demokratiko. Organizazioarekin ez bat ibiltzea, krimen. Eta hau dena tradizio — jakobino — zaharra da.

Esta gran pasión de organizar perpetuada por el marxismo, se ampara del movimiento obrero europeo después del asesinato de la Comuna de París, cuando los trabajadores empiezan a volver a levantar la cabeza. La revolución desde abajo parece haber fracasado y ahora se apuesta por la «revolución desde arriba». La vía prusiana al socialismo parece la más segura, incluso si Marx criticó con tanta severidad el proyecto de un «Estado del pueblo» (*Volksstaat*) del programa de Gotha; los socialistas alemanes evacuarán la palabra conservando la idea en su programa de Erfurt (1890). Marx ha muerto. ¡Viva el marxismo! ¿Quién centralizará la producción y organizará la distribución, sino el Estado popular? Cuando el puñado de capitalistas financieros sea expulsado, ¿quién tomará las riendas? ¿Quién, sino la cabeza del Partido, prefiguración del gobierno futuro? Jules Guesde, fundador del primer partido «marxista» francés, escribe a su maestro: «Estoy convencido de que antes de pensar en la acción, hay que constituir un partido, un ejército consciente, por medio de la propaganda activa y continua... Creo que durante más o menos tiempo, el impulso, la dirección deberá venir de arriba, de los que saben más» (1879, a Marx). Más tarde afirma: «Un partido sólo vive de disciplina... y sólo cuenta con la centralización obrera para reemplazar a la centralización capitalista». A lo que responde, en el otro lado del Rin, el «catecismo socialdemócrata» de Kautsky: la «organización», el Partido, los sindicatos, son la única «fuente» de la fuerza del movimiento obrero. Organización muy centralizada, jerárquica, como el futuro Estado, evidentemente ⁸.

Borroka partikularista/sujetibista

Ezker klasikoak —marxista ofizialak, bereziki— beren indar guztiekin enplegatzen dira, berek borroka sujetibista, partikularistak deritzatenak, desakreditatzen. Minoritate zapalduen nazio borrokak, esate baterako («Erdi Aroko partikularismoak»). Borroka horiek, azken finean, ez dira Estatuaren baitatik pasatzen. Estatuaren konkistatik. Estatuaren ukazio dira (de facto Estatuena behinik-behin). Iruditzen zaigunez, marxismo ofizial gehienaren marxismo ulerkera eta nazioon borrokaren ulerkera espresatzen zuen Tierno Galvánek, arestian BERRIAK-i (zenb. 9) deklarazio hau eman zizkionean: Sozialistak (PSP) «son marxistas, son socialistas marxistas y entienden que los problemas generales del socialismo y del marxismo y de hecho en la doctrina tienen que superar las divisiones que en la práctica nacen de los sentimientos pequeño burgueses (*sic*). No hay duda que ahora hay un enorme desarrollo del sentimentalismo pequeño burgués que en muchos casos está condicionado por la burguesía, por la alta burguesía, que aprovecha estas reacciones sentimentales para su propio beneficio y frente a esto tienen que luchar, tienen que exponer la idea de que *las grandes planificaciones economi-*

cas, el proceso global de la lucha de clases, las consecuencias de esta lucha de clases, lo que convenga al Estado como órgano de poder que tiene que orientar el proceso revolucionario, no puede estar sometido a disquisiciones y polémicas de las fracciones estatales en las que el paisaje o la fuente o el verso ocupan un lugar preeminente» (gure azpim.). Oso tipikoa da testua, Frantziako marxisten artean beste mila balioberdin baduena.

Tras la denuncia —argitzen du Glucksmannek— hecha por el PCF de la locura «pequeño burguesa» de los movimientos de liberación bretón u occitano, no hace falta ser un experto en la materia, para reconocer en ella ese culto del Estado fuerte que los jacobinos han tomado de los monarcas. Toda una cultura se pone de relieve como «horizonte insuperable» del marxismo, y cada vez, centenaria o milenaria, aparece como la de una élite que monopoliza la palabra y la de un Estado que se arroga el monopolio de la violencia⁹.

Marxistontzat, Estatu sozialistak, Estatu burgesaren oinordeko bezala etorri behar du; ez Estatu burgesaren txikizioz. Beraz, Estatu burgesaren bitartez eta barrutik irtengo da sozialismoa gora. Estatu burges modernuak, izan ere, internazionalismo eta unibertsalismo bidean, eskualde partikularismoak eta burges ttipi eta nekazariaren egoismoak hautsi omen ditu —«tribukeriak»—, hots, bidea ireki du klase eta muga gabeko mundu zabalera eta bidea uzterik ez dago. Horrela, Glucksmannen moldean esateko, Estatuak *testu* bilakatu dira. Brebiari. Eta «l'amour des textes fait le support de la tradition», h.d., Estatu tradizionalismoa. *Testuak*, Estatu bakoitza bere ezaugarri apartez hornitzen du, bere sakralitatez, ezaugarri edo apaingarriok Estatu batasunaren arrazoi bilakatzeko direlarik¹⁰.

Glucksmann batek, ordea, justu alderantziz ikusten ditu gauzak: «Una de las críticas principales de la izquierda institucional y la prensa oficial a los grupúsculos [«no existe un único movimiento con estados mayores más o menos intelectuales o políticos, de estilo grupuscular, centrados en la capital, sino un movimiento bretón, un inicio en Alsacia, los autonomistas corsos..., sin que ninguna pueda hablar en nombre de la totalidad»], es la de no ser capaces más que de acciones específicas, reducidas, oponiéndolo al gran programa, al gran partido... Mi trabajo personal ha consistido en hurgar en estas grandes cosas, consideradas superiores a las acciones 'particulares'. Si en estos dos últimos siglos ha habido transformaciones, no hay que dar gracias a las grandes soluciones históricas, tipo la toma del Palacio de Invierno, los Diez Días que conmovieron al mundo,

triumfos electorales, sino a los gestos puntuales, por ejemplo, a la ocupación de una fábrica» (OZONO, aip. zenb.).

«Filosofo berrien» artean Glucksmann bakarrik dela, hola mintzo dena, erantsi beharko dugu halare.

Anarkismoa

Izen horrekin eskola bat adierazi ohi den zentzuan, behintzat, «filosofo berriak» ez dira anarkistak; lehenengo, ezin eskolatakoak ez direlako, eta, gero, nekez bil daitezkeelako «filosofo berri» denak anarkista itxurako eskolaren batetan, Benoist giscardianotik Glucksmann «grupuskularrerraino!» Izpiritu anarkista, esan ohi den bezala, ezingo genieke beste gabe ukatu halare, batez ere izpiritu horren mugapena zail baino zailago izanik. «Filosofo berriek» XIX.gn mendeko anarkismoaren izpiritua heredatu dute apika. Ez dute heredatu, inolaz ere, hura animatzen zuen optimismo itxaropentsua.

Anarkismo klasikoarekin, «filosofo berriek», beren gizartea epaitzeko moldean koinziditzen dute gehienbat. Hauen tresneria analitikoan, kontzeptu nagusiak (beraz, kontzeptuotara ekarri duen planteamoldea, ikuspegia) ez dira propioki sozio-ekonomikoak: esplotazio, klase borroka, produkzio indarren desarroi-
lo, etab.; baina kultur-politikoak: Botere, nagusi (*maitre*), errepresio, etab. Histori ulerpideko giltza-kontzeptua *Botere* da. Gizartea zer den eta gizartean gizonak zer diren argitzeko, h.d., historia zerk estrukturatzen duen, gizonari doakiona, beti ere oinarrizko galdera Boterearena da.

Ez dute heredatu anarkismo klasikoaren optimismo itxaropentsua. Hark, gaitzaren gaitza Boterea zela ezaguturik ere, Boterea behin eta betiko suntsiaraz zitekeela, itxaron zuen. «Filosofo berriek» ez dute hainbeste itxaropen. B.-H. Lévyk, Rousseau eta Hegel aztertuz, horiek jadanik abisatu zutela, ateratzen du ondorioa, Boterea bera ez dagoela erauzterik. Alde batetiko Boterea naturazkoa dela, beraz eternal eta ordeztzez, eta bestetiko Boterea kulturadanikoa dela, beraz historiko eta ordeztagarri, bi posizio muturrei buruz-buru, Rousseauk, esaten digu Lévyk, alternatibatik irten egin zuen. Harentzat Boterea ez eternal eta ez igarokor da, berez; baina bai bat eta bai beste, gizartearekiko erlazioan hartzen bada («que le Pouvoir est éternel et périssable à la fois, éternel comme la société et périssable comme elle aussi»). Botereak, bada, ez dauka giza *naturak* adina iraun beharrik, baina ez du iraungo *gizarteak* baino gutiago (zi-

bilizazioak). Izan ere, elkarren artean distantzia, berezkuntza, lan partizioa, dagoen orduko, elkarrekiko loturek *Contrat social* bat eskatzen dute. Eskubide eta obligazioak neurtzea, amore ematea, ordenamendu bat aurkitzea, zeini zer dagokion: Boterearen hazia. Beraz, Botere gabezia ez da pentsaezinezkoa, giza naturaz ari bagara; baina gizartea bai, «zibilizazioa», pentsaezinezkoa da Botere gabe. B.-H. Lévyk, Rousseauk jadanik barruntaturiko ideia hau, hegelianismoaren tesi zentralizat hartzen du¹¹. Eta «decir sociedad sin amo me parece una idea contradictoria en sus términos», deklaritzen du bipilki.

Gogora dezagun, Marx eta Engelsek, eta gero Leninek, iraultza ondorenerako Boterearen —Estatuaren— heriotza proklamatu bai, erraz eta ziur egin dutela. Baina kondizio batere ez errazekin loturik ipini zutela, berek iraultzaren ondorio sinpletzat bazeuzkaten ere: alegia, Boterea suntsituko omen da, lan partizioak dakartzan kontradizioak gaindia daitezenean, batez ere buru eta esku lan arteko kontraesanak; bakoitzak nahi adina eginaz, bakoitzari behar duen adina ematea egon dadinean, beraz, bakoitzak eta denek inoren agindu, ez kontrol gabe, gogoz eta borrontatez, lan egin dezatenean eta beren produktoa komunitatearentzat utzi, etab. Horretan ez sinesteak, edo kalkulo politikoetan oraingoz guzti horrekin ez kontatzeak, ez bait dirudi huts ikaragarria.

Bakuninentzat aldrebes da: Boterea (Estatua) porrokatzea egingizun inkondizionala eta lehen-lehenbizikoa da. Estatuaren desagertzeko «baldintza objetiboek» ez dute kontatzen. Hegelen «negatibitate» konzeptuari atxekirik, eta hura bere moduan ulertuz, gizadiak ez daukala bere etorkizuna bestela urratzerik, uste du, egon dagoena zeharo txikituz eta birrinduz baino. «Txirikizioaren poza, kreazioaren poza da orobat».

«Filosofo berriek», duda gabe, anarkismoaren ahaidego izpiritual bat erakusten dute, Botere problematika alderdi guztietatik —Botere moral, intelektual, politiko, ekonomiko, hizkuntza errepresio bezala, idazkuntza errepresio bezala (testua), desira errepresioen iturburu bezala, etab.— kupida gabe azaltzean. Agian, anarkismo konsekuentea besterik ez da, gero, Glucksmannek, Hegel, Marx edo Lenin ezezik, Bakunin bera jorra-jorra egiten badu, libertari haundia bezala ez, baino botereko haundia bezala agertaraziz. Baina hori esatea, Hegel, Marx eta Lenin «autoritarien» kritika onartzen duten antiautoritarien artean bertan, nekez onar daiteke. Bakunini «el más fanático partidario del orden dictatorial, de la sumisión del in-

dividuo» eriztea, Lévyk publikoan egin duen eran, gutien-gutierrez zuhurregia ez da derrigor.

Iraultza/Iraultza zientifikoa

«La idea de una rebelión triunfante —dijo B.-H. Lévyk— es contradictoria en los términos; una revolución triunfante da, efectivamente, un nuevo efecto de estructura de la dominación y da, por ejemplo, el estalinismo. La idea de que estas revueltas puedan socializarse es una idea imposible. Al fin y al cabo no digo otra cosa que lo que escribieron los anarquistas del pasado siglo: mientras haya sociedad habrá Señor. Eran unos desesperados. La revolución anarquista, que es la más bella que pueda pensarse, no ha sido nunca otra cosa que el rechazo radical de lo que estructura la sociedad: el deseo, la lengua, lo real, la historia».

Zapalduta bizi zen gizona, jaiki egin zen zapaltzaileen kontra. Baina ez zuen nahi zapaltzaileen zapaltzaile bera bilakatu. Zapalkuntza oro ezabatu nahi zuen. Iraultza Haundiak *askatasuna, berdintasuna, anaitasuna* ekarri behar zituen. Deklaratu ziren Gizonaren Eskubideak. Berdindu ziren gizon guztiak paperean. Anaitu ziren paperean eta askatu ziren paperean. Baina zapaltzaile zaharren tokian berriak etorri ziren.

Proletalgoak bere iraultza entseiatu zuen orduan. Baina ez zuen nahi zapaltzaileen zapaltzaile bera bilakatu. Zapalkuntza oro ezabatu nahi zuen. Baina huts egin zuen. Orduan, 1857tik aurrera edo, Marx, iraultzaren teoria zientifiko baten bila hasi zen. Zergatik ez zuen ekarri 1789ko Iraultza Haundiak askatasuna eta berdintasuna? Zergatik zapalduak zapaltzaile bilakatu ziren? Eta zergatik 1830 eta 1848ko iraultzek porrot egin zuten? Etab. Handik hara, Marxek iraultzaren teoria «zientifiko» bat eraiki zuen. Noski, gizartearen eta historiaren teoria «zientifiko» baten barruan. Gizartearen eta desarroilo historikoaren esplikazio «zientifikoak» bazeuden lehendik: Hobbes, Rousseau, Hegel, etab. Marxek horien gainean ziharduen, baina horiek gaindiatu beharra zeukan, esplotazioa, zapalkuntza, klaseak, historiari behin eta betiko erauzteko bidea irekitzeko. Historia orpo-orpotik iraul zezan teoria bilatzen zuen hain zuzen.

Eta egin zen iraultza hori, azkenekoa eta definitiboa izan behar zuena. Baina askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna, ez zituen ekarri.

Gero, iraultza uste eta pentsabideak berak, hots, iraultza tra-

dizioa, XVIII. eta XIX.gn mendeak bete-bete zituena eta zapalkuntza gabeko gizartea agintzen zuena, krisian dabil. Iraultza sobietarrak, ez harixe buruzkoak soil, baina zalantza printzipialak sortu ditu iraultza orori buruz. Egiten dira iraultzen soziologiak eta guztien martxa berdintsua aurkitzen da. Konklusioa, «egin den iraultza bakoitza, traizionatu den iraultza bat» izan dela (Marcuse): iraultzak berezkoa duela, ematen bait du, traizionatua izatea. Horrela, J.-M. Benoistek, ironiaz edo, etsita behintzat, «trahison instituée» hori gogoratuko dio, oraindik askatasun eta duintasun bidea iraultzan dakusanari. Oso zalantzan dago, iraultzak zapalkuntza gutiagorik ekar ote dezakeen; zapalkuntza gutiagorik nahi bada, iraultza bidetik aritu behar ote den, iraultzak tradizionalki ulertu diren moduan. Iraultza kontzeptua bera dabil krisian.

Konkretukiago, iraultzaren «teoria zientifikoa» dago krisian. Marxena ezezik, holakotzat presenta dadin oro. «Filosofo berrien» kritikak ez dio beste edozein teoria zientifikori gutiago begiratzen, teoria marxistari baino. Guztiak omen dira, ordea, «zientzia fetitxismoak». Herriak ez dituela «burdinezko lege historikoak» ezagutzen eta, teoria zientifiko bat asmatzen da, herri borroka espontanioak supera ditzana, «accediendo a un conocimiento claro, a una palabra coherente y a una acción responsable». Baina «de hecho, esta *superación* disimula mal una exclusión... La única palabra sería es la *palabra del maestro*». Jakintza, hots, ezagutza objetiboa historia zer dabilen, lege historikoen argia eta, azkenik, erabakia, jendeteriek zer egin behar duten eta nola, jende horrexen gainetik erabakitzen da, zapalduak obediencia berri batetara behartuz, zientziaren obediencia; beraz, zientzia hori dutenen obediencia.

Detrás de Lenin, tras esa jerga, se crige Hegel y toda una pesada tradición elitista que convierte cada palabra popular en la expresión de una ciencia irreductiblemente confusa, opinión desafortunada que tan sólo los sabios pueden formular *realmente*. Y que ve en cada movimiento popular un desorden que necesita ser programado desde el exterior, es decir, desde arriba (A. Glucksman).

Horrelaxe, zientziak ematen duen autoritatea, Autoritateak daukan zientzia bilakatzen da. Eta orduan, marxismoak beti arrazoi du; Idazkari Orokorrak beti arrazoi du... Aparatoak du beti arrazoi.

Eta geroxeago, zientzia hori dutenek, ekonomia zientifikoki planegino dute. Bizitza sozial guztia zientifikoki planegino dute. Berek planegino dizute zer egin, zer utzi. Planegino dute,

zer ikas daitekeen eta zer ez. Zer irakur, zer pentsa. Zer den egia eta gezurra. Zein musika gustatzen zaion herriari eta zein ez. Zein den arte txarra. Nola organizatu behar duen langileriak. Eta nola ez daukan organizatzerik. Zergatik Trotzki sekula ez zen iraultzailea izan, baina Beria beti. Txinoak inperialistak direla... Kontua ez bait da, gero Alderdi Idazkari Orokorren bat asto ikaragarria suertatzea. Printzipioa bera da okerra, Idazkari Orokorra santu bat gerta baledi ere. «Iraultza zientifikoak» ezin ekar dezake zapalkuntza zientifiko berriak besterik. Planteamenduen naturan datza hori.

Bestetik, Marxek egindako analisiaren zientziakotasuna dago krisian. Gerrak, zapalkuntzak, erauzi nahi baditugu, galdekizuna da, ea historia zerk eta nola estrukturatzen duen errepresio historia bezala. Estrukturatzaile hori jabegoa zela, onartu zuen Marxek, haren aurretik zenbaitek esan zuen gisan. Eta, beraz, historian, konfrontazio nagusiak, historian determinanteak, klase artekoak zirela. Arrazoi hori zuela gizonaren gizon esplotazioak. Errepresioek ere, denek han zutela iturburua...

Marxen histori —ondorio bidez, iraultza— teoria krisian dago... 68.ko maiatzean berehalaxe ohartarazi zen, erreboltarien terminologiak ez zuela ezertan ezker klasikoen ohizko terminologia ekonomikoa gogoratzen. Terminologia berri bat zen. Integrazioa, manipulazioa, errepresioa (ez esplotazioa), etab. zebiltzan ahoz-aho. Eta, izan ere, deskontentu hura ez zen ezker klasikoen analisi eta eskemetan egokitzen. Errebolta kultural, sozial, politiko bat zen. Ez zen propioki «esplotatu ekonomikoena», desjabetuena. Horrela, esplotazio ekonomikoaren esplikabidea, erreboltak eta iraultzak eta borroka sozialak esplikatzeko, motzegi geratzen zen. Errepresio kontzeptua zentral bilakatu zen eta zabalero berri bat hartu zuen. Pariseko maiatzetik bi urtetara, formula llabur honetan aitortu zuen Lefébvrek bere histori filosofia marxistaren eta —historiaren ardatz bezala— klase borrokaren dogmaren desengainua: «...Historia isilik dago, jadanik ez dauka sentidorik. Ez *klaseak*, baina herriak, nazioak, tribuak, kulturak, erlijioak... ari dira elkarri buruz-buru». Historiak jadanik ez du, konfliktu eta problema denak argi eta xuxen bata besteari loturik eta koherente ageri zirenean bezala, sentido ebidente bat bere baitandik erakusten. Galdu da historia guztiari, konfliktu guztiei, esplikazio garbi bat ematen zien eskema. Historia berriz ere iluna bihurtu da. Nahaspila bat. Esplikazio sinple eta lineal gabekoa.

Gizona definitiboki askatzea eta konfliktu historikoak erro-

-errotik behin eta betiko erauztea, teoria zientifiko haundiek pentsatu eta pentsarazi nahi zuten baino eginkizun askoz konplikatuagoa dela, ez da dudarik. Badago, noski, Marxek seinatzen zuen errepresioa. Baina, egun, errepresio hitzak, konotazio psikoanalitiko berriak eta ugariak hartu ditu, errepresioarena oso kontzeptu konplexo, errepresioaren gaindiakuntza planteatzea oso zail bihurtuz (bide batez, Boterearena, etab.). Jeneralean, problematika guzti honek sentido eboluzio nabar-nabarmena egin du azken urteotan sentido psikoanalitiko batetarantz lerratuz, errepresioaren azterketa gehienak ere alde horretatik egin direlarik, errepresioa gaindiatzeko eta gizona askatzeko proposamendu berri gehienak ere alde horretatik etorri datozen bezala (eta errepresioaren kontra protesta zalapartatsuenak berdin). Iraultzak, bada, (errepresioetatik liberatzeak, alegia) sentido marxistaz beste, freudianoa hartu du, geroz eta gehiago adiera honetan ulertzen bait da ulertu ere, eta adiera marxistarekin konkurrentzian, edo eta kontrastean ere.

Hainbat errepresio tipo aurkitu da, hainbat elementu errepresibo material eta kultural diferente, hain konplikatuak ageri da nola diharduten errepresio guztiok elkarrekiko, itxaropenik ez bait da geratzen sobera, gizona erro-errotik aska lezakeen «akto dialektikoan», h.d., Iraultzan, letra haundiz. Gainera, Joben mezu txarrak egunero ailegatzen dira, Freuden pesimismoa gehitzera, kulturgintzarako errepresioa behar-beharrezko eta ezinbestezko dela. Orain batzuek nahi dutenez, garun estrokturak berek ere kondizionatzen omen dute, errepresioak historian konstante irautea. Filogenetikoki itsatsiriko portaera mekanismoek ere bai, determinatzen omen gizartearen egitamu errepresiboa. Hizkuntzan bertan elementu errepresiboak ikustera ohitu gaitu zenbait azterketa berrik. Berdin idazkuntzan... Zer egin, beraz?

Iraultzarik ez dago, erabaki du B.-H. Lévyk: «La révolution est, au sens propre, un impossible». Eta pesimsimo orokor batez: «la vie est une cause perdue».

Jambet eta Lardreuk, iraultzan ez bada, erreboltan bederen sinetsi nahi dute. Horien ustez —*L'Ange*— Estatuak da gaitz ororen sustraia. Izan ere, ageriko portaera ezezki, pentsamendua bera eta sentimenduak inposatzea lortzen du: Botere egitamu horren baitan sortzen da dena, eritziak, erizpideak, desirak, beldurak eta itxaropenak, on eta gaizto usteak. Kate horietatik libre, etengabeko errebeldea bakarrik geratzen da. Artista bereziki. Gizonari ez zaio barnetasuna besterik geratu errebeldiarako. Salba bedi ahal duena.

Glucksmannek iraultzan ere sinestu nahi luke. Letra ttipizkoan, noski. Zer-nolakoa litzateke, bada, iraultza hori? Bidegabekeria eta ilogikoa da, Glukssmanni, iraultza zertu dezan kriterioak eskatzea. Glucksmannek ez du irakatsi nahi, mugatu nahi noiz hasten den errebolta bat iraultza izaten, etab. Ez du berriz ere *Maitre Penseur* bat bilakatu nahi, iraultzak nolakoa izan behar lukeen edo ez lukeen. sententziak partituz. Glucksmannek ikusi eta seinالاتu egin nahi du soil-soil, obra iraultzailea, hots, askatzailea, non ageri den: h.d., jendea errebelatu den tokian nonahi; eta non, iraultzaren izenean sarri, zapalkuntza besterik ez den ari: jendeak burua makurtu eta menperatu duen tokian nonahi.

Iraultzan, natura berriko mundu berria sortaraz dezan «akto salbatzaile» batetan bezala, ez du sinesten, noski. Iraultza ez da ordenuren bat sortzea, hoberena bera. Alderantziz, iraultza, «ordenuari» buru egitea edo ihes egitea da.

Beraz, iraultza, ala erreforma hutsa? Disidente sobietarrez diharduela, erantzuten digu Glucksmannek: «La disidencia soviética ha demostrado que las relaciones entre la gente no se rompen nunca del todo. El terrorismo de Estado ha sido incapaz de acabar con la lucha de los que, a precio altísimo, quieren pensar con su propia cabeza y sentir con su propio corazón sin referirse a un comité central. De ellos aprendemos que la alternativa entre reforma y revolución es falsa, que no se trata de conquistar el Estado, ni con los fusiles ni con las armas, sino de defendernos de él aquí y ahora. No se trata de que la cocinera se convierta en Estado, como prometió Lenin, sino de que esté en posesión de las armas para defenderse del Estado, y estas armas nuevas son la posibilidad de comunicarse horizontalmente con la gente, por encima del monopolio ideológico».

Estatuari oposizioa da iraultza, Estatuak duen guztiarekin. Etsaia, Estatua da.

Hein batetan erantzuna dago horrekin, iraultzaren sujetuaren galdera. Zeinek iraul dezake, partzialki bederen, Leviathan estatua? Glucksmannek, gizabanakoaren maila hutsean geratu gabe, sujetu kolektiboaren ideia tradizionalari azkenean baitetsi egiten dio nolabait. Iraultzailea, sujetu kolektiboa, baztertuak dira. Marjinatuak. «Judegua». Botereak, Boterearen naturagatik beragatik, ahalik jende gehiena bildu nahi du. Baina beti uzten du zenbait jende bazterrean, integratu ezinda: segun Boterearen karakterea nolakoa izan, diferentea jende marjinatua ere. Beltzak, Jehovahen lekukoak, nazionalitate ttipiak. ijitoak, subproletariak. Era be-

rean, iraultzak ere oso diferenteak (iraultza seksual, minoria zapalduen borroka abertzalea). Komunitate extra-estatal horiek izan daitezke iraultzaren sujetu.

Ideioekin, Glucksmann, Marcuseren eta XIX.gn mendeko anarkisten pentsabideetan aurkitzen dugu berriro. Marxismotik espreski distantziatzen da: «El marxismo europeo se afirma como el culto moderno del Estado moderno, el Estatismo del siglo XX».

¹ Leninek berak nolabait ksarismoarekin oso loturik ikusten zuen sobietar sistema, baina ez eskusa bezala, ez horixe! «Todo ha naufragado en nuestro país en la fétida ciénaga burocrática... ¿La administración? Una porquería, una porquería». — Eta aparato sobietarrak: «Una mezcolanza de supervivencias burguesas y zaristas, ligeramente embadurnadas con barniz soviético». Leninek ez du «herria» kulpatzen, gero egin den bezala. Buruzagiak berak kulpatzen ditu, bere burua aurrenik: «Somos incapaces de condenar públicamente esa porquería de burocracia. Por ello merecemos todos que se nos cuelgue con cuerdas apostas. No he perdido la esperanza de que un día nos cuelguen por ello, lo que estaría bien hecho». Eta hori 1921ean zen, Politika Ekonomiko Berriaren has-tapen soilean.

² Geroz eta gutiago; baina, oraindik ere, holakorik aski geratzen da. Badaude eritzi arrunt edo mito batzu, azterketa soziologikoak eta esperentzia bera polliki-polliki desegiten ari direnak, AK-ak iraultzaile direla, proletari eta herritar direla, etab. De fakto, bai teoriko marxista haundi guztiak (Marx, Engels, Lenin, Trozki, Gramsci,...), bai mogimenduko buruzagi politiko ezagunenak, bai egun bertan AK-ek dituzten aparatoak eta koadro bereziak, burgueseriatik errekrutatzen dira, jeneralean, burgesia tipititik. Frantziari dagokiola, J.-F. Revel honela mintzo da: «...en Francia, en cualquier caso, hay apenas una tercera parte de los obreros que votan al Partido Comunista, e.d., que dos de cada tres obreros no votan comunista. Nunca se dice esto demasiado, se oculta. En las últimas elecciones, los comunistas perdieron votos obreros y ganaron entre los funcionarios, entre las personas que pensaban que tendrían el poder. Finalmente, lo que les interesa es el poder. Dos tercios de los electores comunistas no son obreros: son pequeño-burgueses, funcionarios, empleados de la Seguridad Social, que dependen del Estado y que quieren, por lo tanto, un Estado mucho más burocrático, en el que sean todavía más fuertes y tengan cada día más privilegios, porque de hecho los privilegiados de nuestra época son los funcionarios, los miembros del cuerpo docente...».

³ Merleau-Pontyk honela azaltzen digu: «Une chose est sûre, c'est qu'il y a eu une manie politique chez les philosophes qui n'a fait ni de bonne politique ni de bonne philosophie. Parce que, comme on sait, la politique est la «moderne tragédie», on attendait d'elle le dénouement, sous prétexte que toutes les questions humaines s'y retrouvent; toute colère politique devenait colère sainte et la lecture du journal —comme Hegel l'a dit un jour de sa jeunesse— la prière du matin philosophique».

⁴ Filosofia berriak gabe ere, stalinismoaren arazoak leninismoaren ara-

zotan bukatzen duela (hiru puntu nagusien gorabeheretan, alegia: proletalgoaren diktatura, Alderdi teoria, zentralismo demokratiko), ik. in A. Kriegel, *Les Communistes français*, Paris 1968, or. 227 eta hur. bereberki.

⁵ A. Harris/A. de Sédouy, *Voyage à l'intérieur du Parti Communiste*, Paris 1974, 286.

⁶ M. Rocard, *Questions à l'état socialiste*, 1972, 29.

⁷ Zientzia diferente asko dira, tartean sartzen direnak, klase borrokaren interpretazioan, h.d., duen lekua eta inportantzia historian, Boterea eta zapalkuntza interpretatzeko haren ikuskizuna, etab. (funtsean historiaren interpretazioa bait dago jokoan). H.d., ez klase borrokaren beraren esplikazioa eta ez beste edozeri klase borrokarekin ematen zaion esplikazioa, zientzien egungo pluralismotik ez daude aparte eta libre, aurretik erabakita bezala eta zientziek gero esan dezaketenarekin bariaziorik sofritu behar gabe. Hortixe sortzen bait dira, sozialistek, azken urteotan —biologistekin eta genetistekin, esate baterako— erabili dituzten bezalako polemika alferrikakoak. Sozialismoak zientzien desarroiloari buruz sarri hartuta daukan exterioritatearen erakusgarri ona deritzagu Ellensteinen postura honi: «Le gauchisme culturel me semble être un phénomène extrêmement important —je veux dire: la prise en considération des rapports entre hommes et femmes, entre parents et enfants, entre l'Etat et les individus, entre consommateurs et producteurs, la pollution, l'environnement, les loisirs opposés au travail... Voilà des problèmes vrais et profonds, et ce sont les problèmes les plus importants pour le monde qui vient... Je crois simplement que ce ne sont peut-être pas les problèmes les plus urgents: cela ne veut pas dire qu'il ne faut pas les prendre en compte, et plus que ne l'ont fait jusqu'à présent les communistes... Cela aussi, je veux le dire: il faut comprendre que, pour le Parti, l'analyse de classe est prioritaire, est première au sens purement dialectique du terme, même s'il est vrai qu'elle ne résout pas toutes les questions... Prenons un exemple: celui de l'amour, la question des relations entre les hommes et les femmes, la famille, la monogamie telle qu'elle s'est constituée dans notre société. Il est évident que c'est un problème réel, qui est à la fois lié à la société de classe et en même temps qui lui est je ne dirais pas opposé, mais qui lui est différent...», ik. *Voyage à l'intérieur du Parti Communiste*, or. 283 (gure azpim.). Hain zuzen «diferentzia» horiei justizia egiten dien teoria izan beharko bait luke klase borrokaren teoriak berak, historiaren oinarritzko esplikazio izatekotan! Ala sozialismoa ez da, berez, ordenaketa ekonomiko berri baten teoria besterik, sekundarioki bakarrik sozial eta politikoa?

⁸ A. Glucksmann, *La cocinera y el devorador de hombres*, 1977, or. 200/201. Sarri seinatuak dira Marxen anbiguiteak puntu honetan: Marx zentralista, autoritariaren aldean (batez ere historiaren interpretazioan ageri dena: historia, indar eta Botere zentralkuntzaz omen bait doa «aurrera»; baina baita proletalgoaren organizazio printzipioetan ere: Bakunin federalistaren oso etsai izango bait da eta, esate baterako, nazio ttipi zapalduen abertzaletasunarentzat ere ez bait du batere kontsideraziorik izango), beste Marx bat badago, «libertaria», Estatuaren deuseztapena irrika duena (*Louis Bonaparteren Brumarioak 18, Etxe gudua Frantzia eta Gotbako programaren kritika*). Marx baitan dagoen tentsioa (kontradizioa?), Lenin baitan dago berriro, *Estatua eta Iraultza*-n guztiz Estatuaren deuseztapenaren alde agertu bait da, Alderdi elitistaren, Proletalgoaren Diktaturaren eta zentralismo demokratikoaren teoriko gogorren hau berau («Estatuak diraeino, libertaterik ez; libertateak erreina dezanean, Estaturik ez»). Engelsek, *Anti-*

-*Dübring-en*, soluzio bat bilatzen du: Estatua polliki-polliki eta progresi-boki itzal dadin, Proletalgoaren Diktaturak sortu behar ditu kondizioak, esaten du. Estatuaren deuseztapenera zuzenean eta bertatik jotzea, Engelsen ustez anarkismo hutsa da. Proletalgoak, lehenengo, Estatu bortitza bat behar du. Engelsen ikuspide hau bilakatu da gero doktrina marxista arruntena.

⁹ A. Glucksmann, aip. lib., 60.

¹⁰ Ik. A. Glucksmann, *Les Maîtres Penseurs*, 1977, 41: «L'habitude veut qu'on fasse correspondre texte et territoire: les droits de l'homme et la France, le libéralisme et l'Angleterre, l'idéologie allemande et l'Allemagne. Cette correspondance court à sens unique: tel territoire d'où tel texte. Qu'on déplace cependant l'angle de vue: pour un Breton, un Corse, un Basque et, la question désormais est réglée, un Arabe, la France est-elle bien cette réalité première, territoriale, qui vient ensuite, secondairement, s'exprimer dans des textes? N'ont-ils pas d'abord éprouvé, ces «indigènes», une stratégie du texte fait loi venant s'imprimer —par dragonnades et alphabétisation forcées— en une réalité rebelle ou étrangère? — La correspondance du texte et du territoire n'est pas de droit mais du fait, contemporaine de la naissance des Etats-nations modernes et des guerres de religions dont la conclusion provisoire (à chaque région sa religion, *cujus regio ejus religio*) est militaire avant que métaphysique. Qu'elles soient royales ou révolutionnaires les guerres qui unifient le territoire —centre contre périphéries, villes contre campagnes, orthodoxie contre hérésies, langue contre «patois»— interdisent qu'on oppose une simple «unification par en bas» à l'unification par en haut censée faire la particularité de l'Allemagne».

¹¹ B.-H. Lévy, *La barbarie à visage humaine*, 1977, 35 eta hurr. «Il est urgent de revenir à cette idée, que consignait la *Phénoménologie*, d'une 'objectivation de soi' qui, toujours et tragiquement, se transforme en 'aliénation'; d'une conscience qui ne vise au monde, ne se monnaie en oeuvres, ne se conjoint à d'autres que pour se perdre en ces autres, en diviser en ces oeuvres, s'abolir en ce monde; ce monde qui n'est jamais que négativité et contradiction, séparation et malheur, sans relâche et sans réserve reconduits et dialectisés. Revenir donc à Hegel contre Marx... La *Logique* ne dit rien d'autre que ceci, si on s'efforce à la lire d'un regard politique: tant que le monde sera Esprit, son histoire sera celle de la dialectique, —nous dirions de la Maîtrise. Tant que le monde sera monde, c'est-à-dire socialité, ce monde, cette société supposeront dé-possession, écart à autrui, —nous dirions tout simplement Pouvoir. Il n'avait pas tort, le professeur de Iéna, quand il voyait dans l'Etat moderne, l'achèvement de l'Occident. Il n'avait pas tort, car l'âge de plus grande soumission est vraisemblablement celui de la plus forte, de la plus réussie des socialisations» (39/40).

J. A.

LA NUEVA FILOSOFIA: PRODUCTO DE UNA LARGA CRISIS
LA NOUVELLE PHILOSOPHIE: PRODUIT D'UNE LONGUE CRISE

Evidentemente los Nuevos Filósofos manifiestan tan grandes diferencias entre sí, que la pretensión de englobarlos y explicarlos en relación a referencias básicas que supongan el punto de partida común a todos ellos, tiene que limitarse forzosamente a observaciones generales.

La Nueva Filosofía puede y debe ser considerada como expresión, por un lado, de un estado moral e intelectual escéptico, indiferente, apático, muy generalizado, fruto no sólo de la despolitización propia de la sociedad de consumo, ni del amargo desengaño que hubiera sufrido un grupo de jóvenes tras la fiesta y desastre del 68, sino más bien de un desencanto general, que viene ya de mucho antes, respecto a las grandes ideologías político-sociales salvíficas, debido a múltiples razones. Si el marxismo está en crisis, como suele repetirse, o si más bien es simplemente criticado a todos los niveles, no lo es tanto por alguna debilidad interna propia y exclusiva del marxismo, sino porque las bases y conceptos fundamentales en que aquel, como también las ideologías llamadas burguesas, se apoyaba, van perdiendo vigencia. Están en crisis los postulados generales que han caracterizado la época moderna. Se trata, pues, de la «crisis de civilización» tantas veces diagnosticada. La única novedad que la Nueva Filosofía, en este sentido, testimonia, es la virulencia con que esta crisis, aunque tardamente, ha hecho presa en la izquierda, tradicionalmente optimista y, por extraña paradoja, también revolucionaria tradicionalmente. Tampoco la izquierda ha podido salvarse de la gran «pérdida de fe» que caracteriza nuestra época: pérdida de fe en el progreso, en los sistemas, en las ideologías universales, en las soluciones globales, que pretendían dar al mundo un orden social justo de una vez por todas. El orden es el orden. Los grandes sistemas, ideológicos o políticos, que proponían nuevos órdenes sociales conducentes a la libertad y fraternidad universales, han desembocado todos ellos en nuevos sistemas totalitarios, represivos. Del liberalismo se llega al fascismo, del socialismo se llega al stalinismo. Cuanto más perfecta y «científica» una ideología, tanto más perfecta y científica ha resultado la represión del sistema correspondiente. Dónde radica el mal? Toda la tradición occidental, responden los Nuevos Filósofos, con tendencia a programar «científicamente» toda la vida social, tiende a la creación de estructuras totalitarias.

Los Nuevos Filósofos pretenden someter a juicio toda la época moderna y en especial los aspectos que ésta ha solido orgullosamente considerar como sus obras maestras: la revolución social, el progreso científico y técnico, la planificación racional, etc. Los Nuevos Filósofos pretenden, pues, situarse en un punto anterior a las disyuntivas Capitalismo/Socialismo, Revolución/Reforma, etc., retornando a una especie de duda metódica o mayéutica socrática, e. d., desenmascarando, en primer lugar, las ideologías dominantes, sobre todo las de signo marxista, que son las que hoy ostentan la aureola de ideologías salvíficas.

Por otro lado, la Nueva Filosofía no es ni tan original ni tan nueva como sugiere su nombre, más bien comercial. Aparece como heredera de una rica tradición crítica, debilitada pero no interrumpida, liberal, marxista, neo-marxista, anarquista. Heredera sobre todo de la ya larga serie de críticas de las ideologías. La Nueva Filosofía se hace eco así mismo del desplazamiento de perspectivas que ha supuesto la influencia pública, creciente de día en día, de ciencias nuevas que entran en competencia con el marxismo, como las ciencias psico, la biología o la genética, o de métodos nuevos, el

estructuralismo por ejemplo, que no sólo han ampliado o variado el sentido de algunos conceptos particulares (represión, etc.), sino han obligado a un replanteamiento de toda la problemática de la liberación del hombre sobre bases más complejas. Antes de hacer su irrupción la Nueva Filosofía hemos asistido a una larga crisis de las escuelas ideológicas oficiales y a una tendencia de todas ellas a definirse como «distintas» de sí mismas. Los marxismos actuales, incluso los más ortodoxos, muestran gran empeño en probar su originalidad y diferencia respecto a otros marxismos, reales o hipotéticos, que se consideran dogmáticos o mecanicistas. Las ideologías liberales se consideran neoliberales. Todas, de alguna forma, pretenden ser nuevas filosofías. Y todas pretenden conocer el camino de la perfección por el que conducir la historia. Si éstas deben ser consideradas de algún modo como ideologías críticas, la Nueva Filosofía constituye la crítica de la crítica: e. d., la negativa a entender el proceso histórico como suplantación de un orden (Autoridad, dominio) por otro.

Evidemment les Nouveaux Philosophes manifestent de telles différences entre eux que la prétention de les englober et de les expliquer en rapport à des références fondamentales, supposant un point de départ commun à tous, doit se limiter forcément à des observations générales.

La Nouvelle Philosophie peut et doit être considérée comme expression d'un état moral et intellectuel sceptique, indifférent, apathique, très généralisé, fruit non seulement de la dépolitisation propre de la société de consommation ou de l'amère désillusion qu'un groupe de jeunes aurait subi après la fête et le désastre de 68, mais plutôt du désenchantement général par rapport aux grandes idéologies salvatrices politico-sociales, antérieur à ce fait et dû à de multiples raisons. Si le marxisme est en crise, comme on le répète souvent, ou plutôt s'il est simplement critiqué à tous les niveaux, ce n'est pas tant par quelque faiblesse interne propre et exclusive du marxisme, que parce que les bases et les concepts fondamentaux sur lesquels il s'appuie, comme le font du reste les idéologies appelées «bourgeoises», sont en train de perdre leur actualité. Les postulats généraux, qui ont caractérisé l'époque moderne, sont en crise. Il s'agit, donc, de la «crise de civilisation» si souvent diagnostiquée. La seule nouveauté que la Nouvelle Philosophie, dans ce sens, témoigne, est celle de la virulence avec laquelle cette crise, bien que tardivement, a fait choc dans la gauche, traditionnellement optimiste et, pour paradoxal que ce soit, aussi traditionnellement révolutionnaire. La gauche n'a pas pu se sauver non plus de la grande «perte de foi» qui caractérise notre époque: perte de foi au progrès, aux systèmes, aux idéologies universelles, aux solutions globales, qui prétendent donner au monde, une fois pour toutes, un ordre social juste. L'ordre c'est l'ordre. Les grands systèmes, idéologiques ou politiques, qui proposaient de nouveaux ordres sociaux conduisant à la liberté et à la fraternité universelles, ont abouti tous à de nouveaux systèmes totalitaires, répressifs. Du libéralisme on en arrive au fascisme; du socialisme, au stalinisme. Plus est parfaite et «scientifique» une idéologie, plus la répression du système correspondant s'est révélée parfaite et scientifique. Où s'enracine le mal? Toute la tradition occidentale —répondent les Nouveaux Philosophes— tend à la création de structures totalitaires.

Les Nouveaux Philosophes prétendent soumettre au jugement toute l'époque moderne et, spécialement, les aspects que celle-ci a orgueilleusement considérés comme ses oeuvres-maîtresses: la révolution sociale, le progrès

scientifique et technique, la planification rationnelle, etc. Ils prétendent, donc, se situer dans un moment antérieur aux alternatives Capitalisme/Socialisme, Révolution/Réforme, etc., retournant à une espèce de doute méthodique ou maïeutique socratique, c. à d. en démasquant, d'abord, les idéologies dominantes, surtout celles de signe marxiste qui portent le pa-nache des idéologies salvatrices.

D'autre part, la Nouvelle Philosophie n'est pas ni aussi originale ni aussi nouvelle qui le suggère son nom plutôt commercial. Elle apparaît comme héritière d'une riche tradition critique, affaiblie mais pas interrompue, libérale, marxiste, néo-marxiste, anarchiste. Héritière, surtout, de la déjà longue série des critiques des idéologies. La Nouvelle Philosophie fait écho aussi au déplacement des perspectives causé par l'influence publique, croissante de jour en jour, des sciences nouvelles qui rivalisent avec le marxisme: les sciences «psycho», la biologie ou la génétique; ou des méthodes nouvelles, le structuralisme par exemple, qui n'ont pas seulement élargi ou varié le sens des quelques concepts particuliers (répression, etc.), mais qui ont obligé à un re-questionnement de toute la problématique de la libération de l'homme sur des bases plus complexes. Avant l'irruption de la Nouvelle Philosophie, nous avons assisté à une longue crise des écoles idéologiques officielles et à une tendance de toutes à se définir «distinctes» entre elles. Les marxismes actuels, voire les plus orthodoxes, montrent un grand désir de prouver leur originalité et leurs différences par rapport à d'autres marxismes, réels ou hypothétiques, qui se considèrent comme dogmatiques ou mécanistes. Les idéologies libérales s'affirment néo-libérales. Toutes, en quelque sorte, prétendent être des nouvelles philosophies. Et toutes prétendent connaître le chemin de la perfection par lequel elles conduisent l'histoire. Si celles-ci doivent être considérées en quelque façon comme des idéologies critiques, la Nouvelle Philosophie constitue la critique de la critique: c. à d. le refus de comprendre le procès historique comme supplantation d'un ordre (autorité, pouvoir) par un autre.

Merde!

Jon Sudupe

Voilà la nouvelle droite. Il y a dix ans, ils étaient les enfants de Marx et de Coca-Cola. Aujourd'hui, il ne reste plus que le Coca-Cola.

François Maspero.

(Le Nouvel Observateur, 27 septembre)

Zakar eta eskematikoki mintzatuko naiz. «Filosofo berriak» bi krisiren ondorio dira, nire ustez.

Marxismoaren krisiaren ondorio, lehenik. Bai, jauna, bai: marxismoa krisian dago¹. Hitzei ez diegu beldurrik eduki behar. Mundu osoak ikus dezake argi eta garbi. Gu ere ohartzen gara. Gure etsaiek ere badakite eta probetxu guztia ateratzen saiatzen dira. Marxismoaren krisia aspaldi (30. urteetan) jaioa izanik ere, oraintsu lehertu eta nabarmendu da.

Antikomunismoan erortzeko beldurrik gabe esan dezakegu. Sozialismo teorikoa eta «sozialismo errealean» artean dibortzio izugarria dago. Nekez ezkon daiteke 1917ko Urria, Stalin-en ankerkeriekin edo eta Breznev-ren erregimen zapaltzailearekin. Hitler ez da hil Berlin-en, ez eta Stalin ere

Moskun. Galdera bat egiten dugu denok: nork garantizatzen digu, eraiki nahi dugun «bestelako» sozialismo hori gaur ezagutzen dugunaren desberdina izango dela? Okerrena zera da, intelektual marxistek ez dutela jakin historia dramatiko horren esplikaziorik ematen. Oso zaila da. Althusseren iritziz, *teoria marxistaren* krisia adierazten digu honek. Marxismoa, teoria «mugatua» denez, ez da denetara «iristen».

Ezin dezakegu, bada, ezertxo ere gertatu ez balitz bezala jarrai. Marxismoarekin geure ikuspegia aldatu beharrea gaude. Tradizio teoriko marxista hutsune eta kontradikzioz beterik dagoela onartu behar dugu. Kontradikzio eta hutsuneok asumitzen ditugun neurrian berpiztuko da marxismoa ere. Krisi horren aurrean era askotara erreakziona daiteke. Erreakzio modu horietako bat «filosofo berriena» da: marxismo eta sozialismo guztiak pikutara bidali!

Zer arraio gertatu zaie «68ko maitzkume» aitortzen diren horiei? Esate baterako, Lardreau eta Jambet, atzo Gauche Proletarienne-ko militanteak eta stalinista gogorrak, nolatan bihurtu dira gaur ezkerren kontrako gurutzatu sutsu? Edo Lévy, hau ere «soisantehuitard» omen, nolatan bilakatu da kolpetik antikomunista biszeral? Edo Dollé, lehen PCko militantea eta gero maoista (!), nolatan orain eskuin muturrekoa? Zer demontre gertatu zaio Sollers-i? Non da «Tel Quel»en orrialdetatik maiz mo puru eta santua predikatzen aritzen zitzaiguna? Zer arraio da hau?

Soljenitsyn-i eskerrak, Gulag deskubritu dute kolpetik. Bapatean, URSS ez dela paradisu bat ohartu dira. Izugarritzko katastrofea. Desenganio maiuskuloa. «Marx, c'est le Goulag!». Sozialismoa, giza aurpegidun barbareria! Gulag, marxismoaren kristalizazio politikoa. «Je déduis le Goulag de Marx». Hitler edo Stalin: berdin da! Gulag eta proletargoa «txanpon beraren bi aurpegiak» dira. «Assez de socialisme! Assez; ras l'bol, fini, rapé, comme on voudra!». Konklusioa: kapitalismoa ala Gulag. Sovietar kanpoak ala Giscard. «Sous Giscard, relativement on respire». Kitto, ez dago beste irtenbiderik. Ehortz ditzagun, bada, esperantza guztiak. Konforma gaitezen daukagunarekin.

Hau guztia indignantea da, bai, mila bider indignantea. Stalinismoa da gure atzoko stalinistentzat marxismo posible bakarra. Stalinismoak betirako markatu ditu. Marx? Hila da. Masak? Artalde estupido bat. Proletargoa? Jende inozo, lerdo eta kirtena. Horra hor, eskuinaren intelektual organiko berriak. Aliantza Sainduan elkartu dira sozialismoaren barbareriaren kontra. Kakoa

bistakoa da; Ezkerraren Batasuna izurrarazi. Maniobra zikin hori nabarmenega da².

Ez zaitetz saia beren argumentazioetan zehaztasun bila, argumentaziorik ere ez baitago. Sinplezia, sinplezia eta dena sinplezia. Duela urte mordo bat gauza berberak esan zituen Castoriadis batek, askoz ere hobekiago eta ausardia gehiagorekin eta ez zen halako eskandalorik harmatu. Pufu baten itxura osoa du honek. Baina, hori bai, ondo borobila atera zaio Lévy-ri chez Grasset-etik montatu duen marketing operazioa! Izan ere, paristarrak iaioak izaki moda kontuan.

Marxismoaren krisia ez da, ordea, kausa bakarra. «Filosofo berriak» ezker iraultzailearen krisiaren ondorio dira, bigarrenik. Honetan ere joera zabalago baten adierazpide ditugu; ez da, zoritxarrez, paristar moda hutsa, hortik asko badu ere. Filosofo (?) ziztrin, mediokre, harropuzok ez lukete aipamenik ere mereziko, baldin eta fenomeno sakonago baten sintoma ez balira. Zozokeria eta infamia horiei entzungor egingo genieke, baldin eta klase menperatzailea lelo berbera etengabe errepikatzen ariko ez balitzagu. Burges intelektualak kretinoak izango dira, baina burgesia inolaz ez.

68an, denak ziren superiraultzaileak. Zihur zeuden iraultza egiten ari zirela. Hogeitaz urte zituzten orduan, eta lehen kristauak bezalakoak ziren, iraultzaren sinestun sutuak. Politika heurentzat moral bat, fede bat, absolutu bat zen. «Nous étions staliniens parce que nous étions politiques». Gaur, gure maiatz-kumeek, hura aldrebeskeria itzela izan zela esaten digute. 68ko maiatza fetxarik beltzenetakoa dela sozialismoaren historian. «Maiatza egin genuen; tronpatu egin ginen. Ez dugu berriz egingo». Militantismoa, PC, erakunde maoistak, iraultza eta zientzia bera, kaka zaharra besterik ez zaie iruditzen orain.

68an jaio zen ezker muturra (gauchisme edo extrema izquierda delakoa). Hamar urte geroztik, a zer desmadrea! Sakonki aztertzekoa da ezker iraultzaile honi gertatutakoa. Gauza bat dago garbi, dena dela: ezkerkeriak porrot egin du. Zaratsuki, gainera. Honen ondorio ere badira «filosofo berriak». Kapitalismo aurreratuko herrialde guztietan dago ezker iraultzailea krisian. Begira ezker puntako partidu, talde eta taldexken panoramari: kaos ikaragarri bat da. Horrela ez goaz inora. PCk Italian, Ezkerraren Batasunak Frantzian, eta eurokomunismoak Espainian ia zeharo bazterrerazi dute ezker iraultzailea³.

Gurean ere, ekainaren 15eko hauteskundeetan hartu zuen jipoiaren ondoren, oso egoera larrian aurkitzen da. Gero eta

nabariagoa da bere ahuleria kronikoa. Partidu bakarra irten da irabazten, bi parlamentarioekin: EIA. Euskadi mailako partidu bat. Estatal Ezker iraultzailea hiltzorian ote? Ekainaren 15eko hauteskundeetatik urte batera: frustrazioa, hoztasuna, etsipena nonnahi. Jendea nazkatuta. «Filosofo berriak» erne eta ugaltzeko giro aproposa. Han ikusi genituen batzuk, Burgozen, Filosofo Gazteen azken Kongresoan... Lehen sintomak agertzen hasiak dira gurean ere.

Zer demontre gertatu da hor? Besteak beste, ezkerkeriak, komunismoaren haurkeria horrek, izurratu du ezker iraultzailea. Espontaneismoa eta dogmatismoaren gaitzak hondatu du. Bada garaia esateko: ezkerkeriaz aski, mutiak! Bai, arrazoi duzue, potroetaraino gaude hainbeste liburukeria eta hitzontzikeriaz, hainbeste gehiegikeria eta garbikeriaz! Maximalismo eta kirtinkeria guztiez aski, eta sobera diagu, bai!

Marxismoa eta ezker iraultzailearen krisiak «esplikatzeko» badu ere filosofo berrien fenomeno, ez dugu hargatik inki-sidore, farsante eta antikomunista berri horien joko zikina iren-siko. Horregatik, geure amorru guztiaz esaten diegu: merde! Hainbeste irain, laino eta injuriari: Merde! C'est tout.

¹ L. Althusser-ek, Venezian 1977ko irailean ospatutako Bilkuretan.

² Ik. *Contre la nouvelle philosophie*, F. Aubral eta X. Delcourt, Paris, 1977 (Idées, Gallimard). Kritika kupidagabea. Astindu on bat.

³ Ik. *Storia delle nuove sinistre in Europa* (1956-1976), Massimo Teodori, Sdad. ed. Il Mulino-Bolonia, 1977. Ezker iraultzailearen historia sistematiko eta dokumentatua.

J. S.

Berriz filosofoak

Xabier Andonegi

«Filosofo berriak», edo hobeto esateko, berriz Filosofia. Komunikabideetan istiluak sortzeko kapaz diren aldetik, zentzu horretan ezin uka «berriak» direnik. Hala izanik, ohi ez den zerbaiten aurrean gaude. Izan ere, beti izan dira filosofilariak Filosofoak baino ugariago. Filosofoa, «rara avis» omen da beti, eta areago gaur egun. Ez baita ogibide soila besteen artean, gaur hainbeste aipatzen den «karisma» baizik. Testigantza pertsonala eskatzen du Filosofiak. Profeta sekular gisa mintzo zaio Filosofo jatorra bere gizarteari, berau hauzitan jarritz. Aitzinatean, hiriz hiri ibili ohi ziren filosofoak beren mezua jendaurrean oihuztatuz. Sokrates beraren lepotik ere —«mandeuli» ezizena jarri zioten— nahikoa barre egiten zuen jendeak, ez alferrik.

Hiritarren zirikatzaile amorratua aspaldi batentan, kultura teknikodun gizartean ijitoen pare ageri da Filosofoa, kultura iragan baten aztarren. Eta ijitoak integratzen saiatu bada kultura teknikoak, are gehiago Filosofoa integratzen, hau intelektual nomada hutsa baita izatez eta honen arloa finkagaitza eta mugaezina. Hiriko ikastetxeetan sail berezi bat lortu duen heinean, akademiko bihurtuz, galdu egin du Filosofiak hain begiko zaion

orokortasuna. Bere berea zuen eztena kendu diote eta sutondoko katu lozorro bilakatu da. Horrez gero, ez du bestetarako balio, kulturadun jendeek beren burua apaindu eta zuritzeko ez bada, hots, goi-mailako klaseen kontsumorako, andere burgesen areto-solasetarako, eta onenean —filosofoa intelektual organiko bihurturik— ideologiek eta berauen jabeek agindutako azpilanetarako.

Baina, zer gertatzen da, gutxien uste denean, Filosofiaren «karisma» suspertzen bada? Istilua. Eskandalua. Ohizko Filosofia lotsati, bildurti, murriztu eta mirabe hori, areto-jolas eta azpilanak utzirik, plazaratzen denean; kulturaren ispilu bezala eskaintzen denean kultur-giro osoa hauzitan jartzeko asmotan, berehala erortzen da gehiegikeriaren susmopean.

«Filosofo Berri» izenak berak ere —erdi aukeratua eta erdi ezarria, desafioz esaten dutena eta isekaz bihurtzen zaiena— umiltasun eta gehiegikeriaren seinalea darama: egiaren zerbitzariari —irakur: gizarteko pailazoei— jantzitako tunika zuria. Dena den —eta oraingoz alde batera uzten dugu mamia—, «berri» atsegina iruditzen zait, Filosofiaz arduratzen garenontzat, ikurrin horren atzetik doazen horien jarrera, Filosofiaren indarberritzea izango delakoan gara: bateko zaharraren antzera.

Alderdikeri susmoa

Bat baino gehiago kezkatuko da gaur egun Filosofia jatorra posible denaz. Izan ere, gaurko filosofiak, Marx-en ondokoa izanik, eztabaidan jarria ikusten du bere berjabetasuna. Ez du ahazten gizarte eta kultura konkretu batetan txertaturik dagoela, eta ez horien menpeko eta ondorio direla darabiltzan ideiak. Bestalde, ageri-agerian dago marxismoari aurrea ematean jartzen duela filosofia berriak bere ardatz nagusienetako bat. Horrek gehitu egiten du arestian adierazi dugun kezka: filosofia honen muin izkutua, ez ote da izango erreakzio hutsa, konbertitu berrien masokismo setatsua, alderdikide berrien eta herriaren aurrean nor bere burua zuritzeko era, eta botere burgesak ondo aprobetxatuko duen saldukeria? Dena den, argi dago filosofo berriek ez dutela inondik ere neutraltasun asmorik agertzen beren egitarauetan. Lotsagabekeria ote?

Beste interpretapen bat ere har lezakeela uste dut arazo honek. Izan ere, gauza bat da ideien baldintzapetasuna ontzat ematea edo onartzea, eta beste bat, haien egi balioa haintzat

hartu gabe, indar politikoen orekan izan dezaketen eragina ba-karrik kontuan edukitzea. Hau hala balitz, ideologiaren kritikak egin du berea. Orduan bai, ideologia eta teoriaren arteko mugak ezabatu egiten direla, eta, era berean, ispilu huts baino zerbait gehiago izateko dagoen kontzientziaren eskubideak ukatu. Eta bide batez ideien baldintzapetasuna lotsagarritzko morrontzat hartzen da, filosofoari egungo errealitatearen zenbait alderdi kaltegarriaren apologista hutsa delako salakuntza eginez. Ideologia-ren zerbizarietat ez dago neutraltasun-eza eta saldukeriaren arteko biderik.

Tentazio honen aurrean, ez ote zaizkio filosofo berriak Sokrates batek irekitako bideari jarraitzen? Hots: politika arruntari uko egin, pentsamendu askatu baten zirikada hobeto sentiarazi ahal izateko hiritarrei eta politikariei. Hala balitz, bere berjabetasuna eta duintasuna galdu duen filosofiaren aldean, intelektual berjabearen eta honen eginkizunaren sinbolo bizi bihurtuko lirerateke filosofo berriak. Zeren ez baitu merezi politika ez den filosofia bat egiteak. Baina politika dela eta morroi izateak ere ez.

Marxismoa kritikatzan

Esanak esan, antzeman dezakegu zein lekutan kokatzen diren filosofo berriak eta zein den hauen mintzoaren etorburua. Stalinismoa lehenik eta ondoren leninismoa gaitzetsiz, eta ohizko sozialismoari erasoz, marxismoaren barrutia zeharo utzi gabe, honen barnetiko kritikari ekiten diote, kritika honen ondorioak behin behinekotzat jotzen badituzte ere. Bien bitartean, hain zuzen, marxismoa ideologia nagusi mailara ari da igotzen mendebaleko kulturaren, ideologia ezezik erlijio ere bilakatuz; zeren eta marxismoak, munduikuskera den aldetik, sineste mailako zenbait elementu sartzen baititu zientzi pasaporte faltsuz. Bestalde, egungo kulturaren ondare bezala, hainbat norabide ezberdini bere izena eskainiz sistema monolitiko izatea galdu duen teoria marxistaren erabateko azterketa hastapenetan dago oraindik.

Filosofo berriek diotenez, Frantzian 68.eko maiatzean unibertsitarien matxinadan gauzatutako herriaren kontzientzia berria da haien gogoeten abiapuntua, nahiz eta laster ito orduan herriaren oihua, gehiago erakunde iraultzaile klasikoen (hots, sindikato eta alderdi ezkertiarren) poderioz, indar errepresiboen erasoz baino.

Bi gauza dira ahantzezinak gaurko giroan, aipatutako kontzientziarekin eta marxismoaren gorabeherekin loturik daude: alde batetik, iraultza garaile atera den herrietako egoera larria, eta bestetik, egungo alderdi sozialistek iraultzaz egin duten murrizketa harroa. Eta horiekin batera marxismoarekiko galdera dator: herriak, honez gero, ezer espero ahal dezake marxismotik historiaren aldakuntzarako, eta nora jo dezake behar duen arnas eta bultzada berriaren bila?

Antza denez, hainbat jenderen esperientzia larri honi eskaini nahi liokete filosofo berriek beren ahotsa eta teoriaren sakontasuna, hura baita maiatzeko gertaeren ondotik deihadarka ari zaiena. Haien jomuga, herriaren orduko eta oraingo sentipena aztertu, sakondu eta aditzera ematea dateke, herriaren ezbehar, kezka eta desiretan ezkututzen den askatasun proiektua areagotu nahiz.

Beren eginkizun hau aurrera eramateko, analisi marxistaren gisako zerbait aplikatu nahi izan diote marxismoaren historiari. Marxismoak, jakina, ezin du onartu hori, hortxe baitago —autokritika-ezean, hain zuzen— marxismo historikoaren mugatasunik nabarienetako bat ikuspuntu intelektualetik. Izan ere, kritikoa izan nahi zuen marxismoa ideologia eta munduikuskera bilakatu da hein batetan. Freud-en inkontzienteaz baliatu dira Filosofo berriak Marx-en analisisa egiteko, beren maisu Michel Foucault-en gidaritzapean. Inkontziente kolektiboaren joko maltzurra agerian jarritz, ideia bikainetatik kontraesanezko praktikatarara daramaten erretenak aztertuz eta itxuraldaketa estrategikoak salatuz ulertu nahi izan dute, marxismo historikoak, zapalduen ideologia izatetik, nagusi berrientzat tresna aukeragarri bihurtzeraino egin duen bidea. Azken batez, marxismoa bera desmitifikatu nahi izan dute eta ezkertiar aurrerakoi inozoak «ilusio berriaz» ohartearazi.

Filosofiaren beharra

Orain arte esandakoa, proiektu berriaren alde negatiboa izan da. Saia gaitezen orain galdera honi erantzuten: Zergatik jotzen dute Marx-en begitan gaindituta dagokeen filosofiara, marxismoaren hauzia «lagun» artean erabaki daitekeen arazoa bada?

Agian, teoriaren aldetik marxismoak duen muin-muineko akats hori agerian jartzeko, goragoko instantzia baten beharra sentitu dute. Hegel-en oinordeko izanik, erabateko jakintza oso

bat sortzea da Marx-en helburua. Horregatik, gizagintzan eman diren aurrerapauso guztiak ordenu fisikoan gauzatu den bilakerekin lotzen ditu, indar produktiboen hazkunde legeen arabera. Zentzu honetan, ez teoriaren ez praktikaren aldetik, ez dio marxismoak erantzun egokirik ematen historiaren lege eta giza ekintzaren arteko arazoari. Filosofiara jo beharra dago, hortaz, marxismoak aldez aurretik ontzat ematen duena eztabaidan jartzeko. Izan ere, historiak mugatu egiten badu gizona —eta hauxe da marxismoaren arrazoirik nagusiena—, neurri berean ezartzen dizkio gizonak historiari bere mugak. Beraz alferrik ihes egingo da, mesprezuz bezala, «gizona zer den» planteiamendutik; eta kritika-eza adieraziko luke gainera jokabide horrek.

Filosofiak, gizonaren egintza eta ekintza guztien gainetik, giza izpirituaren traszendentzia azpimarratzen du, eta metafisikara zuzentzen ditu berriz gure pausoak, artea eta etika bitarteko direla. Izan ere, arteak eta etikak adierazten bait dute non dagoen, une bakoitzean, *denaren* eta *beharko litzatekeenaren* arteko benetako etena. Gizonaren izpirituak, nahiz eta baldintzape-tua egon, ez du horregatik autonomiarik galtzen, baldin begi aurrean baditu eragiten dioten kondizionamenduak. Hauek ahazten dituenen bakarrik urruntzen da egiaren osotasunetik, itxurazko egia hutsean kateatuta gelditzen delarik. Horregatik, egiaren bideak urratzen jarrai daiteke izpiritua, bere ahalmen eta eskubideei uko egiten ez dien bitartean, eta, marxismoa ezezik, sasi-osotasun guztiak hauzitara eramateko prest dagoen neurrian. Sasi-osotasunei aurpegi eman nahiak eramaten du gaur egun filosofia irizpide bakarra izatera. Eta aurpegi emate edo erresistentzia horrek aurkituko du politika mailan ere berari dagokion adierazpena.

Dena den, filosofia berriaren atal positiboa izan daitekeen hau erabat landu gabe ikusten dut, ozta-ozta adierazia. Bide horri jarraitzekotan, aipatu ere egiten ez dituzten beste zenbait autorekin harremanetan jarri beharko lukete. Esate baterako, Frankfurt-eko eskolako filosofo-soziologoekin, hauentzat ere kulturaren kritika bezala zertzen baita Filosofiaren orokortasuna, lehendabizi beren indarrak marxismoarekin neurtzen dituztelarik.

X. A.

Bibliografia

Bibliografi sail hau Filosofo berrien obrek osatuko dute ia erabat. Hauei buruzko polemikaren bibliografia ere interesgarria litzateke, baina ez dugu jaso ahal izan.

a) Filosofo berrien obrak

Filosofo berrien mugimenduan sartzen direnen edo sartu ohi dituztenen obrak zerrendatuko ditugu hemen. Batzuek ukatu ere egin dute inoiz mugimendu horretakoak izatea. Adibidez, Guérin-ek, Benoist-ek eta Marion-ek. Clavel ere sarri ez da horiekin jartzen.

BENOIST, Jean-Marie: *Marx est mort*, Gallimard, 1970.

BENOIST, Jean-Marie: *Tyrannie du logos*, Editions de Minuit, 1975.

BENOIST, Jean-Marie: *La Révolution structurale*, Grasset, 1975.

BENOIST, Jean-Marie: *Pavane pour une Europe défunte*, 1976.

CLAVEL, Maurice: *Qui est aliéné?*, Flammarion, 1970.

CLAVEL, Maurice: *Nous l'avons tous tué «ce juif de Socrate»*, Le Seuil, 1977.

CLAVEL, Maurice: *Deux siècles chez Lucifer*, 1977.

DOLLE, Jean-Paul: *Le Desir de Révolution*, Grasset, 1972.

DOLLE, Jean-Paul: *Voies d'accès au plaisir. La métaphysique*, Grasset, 1974.

DOLLE, Jean Paul: *Le Miope*, Grasset, 1974 (nobela).

DOLLE, Jean-Paul: *Haine de la pensée en ces temps de détresse*, Hallier, 1976.

DOLLE, Jean-Paul: *L'odeur de la France*, Grasset, 1977.

GLUCKSMANN, André: *Le Discours de la guerre*, L'Herne, 1967.

- GLUCKSMANN, André: *1968: Stratégie et révolution en France*, Christian Bourgois, 1968.
- GLUCKSMANN, André: *La Cuisinière et le Mangeur d'hommes*, Le Seuil, 1975.
- GLUCKSMANN, André: *Les Maîtres penseurs*, Grasset, 1977.
- GUERIN, Michel: *Nietzsche, Socrate héroïque*, Grasset, 1975.
- GUERIN, Michel: *Les Compagnons d'Hélène*, 1977 (nobela)
- GUERIN, Michel: *Lettres à Wolf*, 1977.
- JAMBET, Christian: *Apologie de Platon. Essais de métaphysique*, Grasset, 1976.
- JAMBET, Christian; LARDREAU, Guy: *L'Ange*, Grasset, 1976.
- LARDREAU, Guy: *Le Singe d'or*, Mercure de France, 1973.
- LEVY, Bernard-Henri: *La Barbarie à visage humain*, Grasset, 1977.
- LEVY, Françoise: *Karl Marx. Histoire d'un bourgeois allemand*, Grasset, 1976.
- MARION, Jean-Luc: *L'idole et la distance*, Grasset, 1977.
- NEMO, Philippe: *L'Homme structural*, Grasset, 1975.

b) Filosofo berrien inguruan

Sail ikaragarria izango litzateke, Frantziako informazio eta kultur aldizkarietako erreferentzia nagusienak bilduz gero. Kontrako obra batzu eta azken urteetako filosofoak ulertzeko laguntza eskain dezakeen bat aipatuko dugu soilik.

- AA. VV.: *Les Dieux dans la cuisine. Vingt ans de philosophie en France*, Aubier, 1978.
- AUBRAL, François; DELCOURT, Xavier: *Contre la nouvelle philosophie?*, Gallimard, 1977.
- DELEUZE, Gilles: *A propos de nouveaux philosophes*, 1977.
- LYOTARD, Jean-François: *Instructions païennes*, Galilée, 1977.

Bilbo handia ala Bilbo munstroa?

Oraindik ere bada Bilborekin harroturik bizi denik. Hala ere, garai bateko euforiarik nekez ikusten da orain. Gutxi barru hola-koak «rara avis» bilakatuko dira. Sarri entzuten da orain Bilbo zikina dela, zaratatsua dela, itsusia dela, arnasa hartzerik ere ez dagoela han. Eta jendez beterik dagoela.

Jendez beterik, aserik, bai. Eta ez da gaitzik tipiena hauxe. Bizkaiko jendetzaren %79 Bilbo Handian bizi da. Bizkaiko edozein eskualdetan baino 10 aldiz gehiago, Bizkaiko gainerako lurralde guztietan baino 4 bider gehiago. Kontzentrazio ikaragarria da, lur eremuz %16,7 basterik ez dela kontuan edukiz. Horrela, beraz, Bizkaiaaren %16,7 lur-eremuan, jendetzaren %79 bizi da. Hori absurdua, hori!

Zein tamainako munstrokeria den jabetzeko, beste datu mota bat. Populazioz bigarren datorren eskualdea Durangaldea da. Baina kasu!, %7,5ekin bakarrik. Askoz guttiagorekin dator hirugarrena, Busturia eskualdea (Gernika-Bermeo): %4rekin.

Lur-eraketari begira, badago bai zer aldaturik eta zer zuzendurik. Jakin egin behar, ordea, sistema berarekin deus aldatzerik dagoenentz. Badirudi, bestalde, jendea ez dela honetaz ikaragarri arategatzen eta urduritzen. Bizitzaren kalitate arazoak noizko? ■ *Joan Larrinaga.*

Batasunaren erasoak eta prentsa

Nork ez ditu irakurri azken hilabeteotan euskara batuaren eta Euskaltzaindiaren aurkako erasoak? Euskaltzaindiaren VIII Biltzarre irekia zela eta, ahaztuta ere bagenituen eta hilda nahi genituzkeen salakuntzak eta erasoak berriro dira. Tesi originalik ez, batabestearen kopiaketa, eta pertsona konkretuei atakeak.

Horrek denak tristetu egin nau. Baina beste zerbaitek harritu. Zeinek esango, baina, egunkarietako erasorik gehienak prentsa

espainolstatik etorri dira. La Voz-eko, Unidad-eko eta Diario Vasco-ko atek zabal zabalik eduki dituzte, ikusten denez. Egunkari hauen intentzioak eta hizkuntz politika, hor konpon. Baina hau galdetuko nuke: eta alderantzira gertatu izan balitz, zer? Hots, beren tesiak defenditzeko, eta euskal Erakunde bat atakatzeko, informazio-organu horiek batasunaren aldekoek erabili izan balituzte? Ez al zen orduan esango espainolisten jokua egiten zutela? ■ *Joanes Lekerika.*

Kantutegi bat dela eta

«*Herria oibuka*» izeneko kantutegi bat argitaratu zuten ihaz Deustuko Lasalletarrek. Borondaterik hoberenarekin egin bazuten ere, kanta-liburuska horretan bi akats ikusi ditut. Horra non lerroon zioa.

Lehen akatsa: *ez da inon ere ageri kanta bakoitzaren egilea.* Hitzaurrerik ere ez da, nolabaiteko azalpena egiteko. Bestetan bezalaxe, gure arteko jendetasuna eta zuzenbide-sena zein urri diren aski garbi ageri da.

Itsuek ere ikus dezakete kanta bat egiteko hitzak eta doinua behar direla, batzutan egile bakarrarenak, beste batzutan hizgile eta musika-moldatzailea elkar-lanean arituz. Zergatik ez aitortu, kantutegietan eta, horienganako dugun zorra? Zergatik ukatu geure esker ona? Noiz arte baliatuko gara itxuragabeki kantariez, haiekiko begiramen apurrik gabe?

Baina bada besterik, komentatzen ari garen kantutegian. Eta akats hau ere bestetan ikusi dugu. Horra zein den: *hitzak aldatzea.*

Behiala, hitzak gordinxek zirelako, zenbaitek aldatu egiten zizuten hitzak. Zergatia ere askotan entzuna dugu: gordinkeriak ez omen dira euskaldunak... «Pello Joxepe»-rekin zer egin zuen Azkuek ongi dakigu.

Orain, ordea, hitzak aldatzeko beste arrazoin bat aurkitu dute batzuek: hitzak euskara batura egokitu behar... «*Herria oibuka*» kantutegian, esate-rako, «Gazte gera gazte» ez, «Gazte gara gazte» ageri da; «Zenbat gera» gabe, «Zenbat gara», «Poeta hoiek» utikan eta «Poeta horiek» esan behar omen dugu, eta abar luze-luze bat.

Gaitza, esan dudan bezala, beste zenbait liburu eta orri bakane-tan ikusten da. Begira, adibidez, «Euskalduntzen (2)» ikasbidean:

...*biok edango DUGU nahi DUGUN guztia.* (27. orrialdean)

...*bizi GARA pobre*

eremu latz bonetan... (136. orrialdean)

Otoi! Euskara batua guztiok nahi arren, errespetatu dezagun gureganaino etorri den ondasuna. Ondasun fiabarra, noski, Euskal

Herria bera bezalakoa. Ohartzen gara nora daraman bide oker horrek? Hasi behar ote gara kantatzen

*Maitia non ZARA? edo
Gabon-gaba pozik
IRAGAN DEZAGUN?*

Ordua da, nik uste, ura bere bidera itzul dadin. Euskal musikariek oraingo nahaspila konpondu behar dute eta kanta bakoitzaren hitzak finkatu. Jakina, batzutan gertatzen da kantak era batera kantatzen direla leku batean eta bestera bestean. Adibidez, «Salamanca» deritzan kanta berriki entzun dut Hazparnen hango erara eta gainera Gorka neure anaiaandik beste bat, Bizkaiko euskaraz, jaso dut. Kasu horietan zail izango da erabakitzen eta hobe lukete, agian, diren aldakuntzak adierazi, bati lehentasuna emanaz. Baina ni horretan ezjakina naiz eta isilduko naiz.

Hitzño bat bukatzeko, ordea. I hazko udan, Seguran izan nintzen, kantaldi batetan. Kantaldi hondarreko, «Agur Jaunak» kantatzen hasi ginen, eta hura zen penagarria: nor bere modura («Danak», «Denok», «Danok», «gara», «gira», zintzurereko «j», «j» biguna, eta abar) eta gainera nabari zelarrik askok ez zekitelca kanta hori... Ez dea lotsagarri geure gogara aldatzea eta ez jakitea «Agur Jaunak»? Nafarroa Beheretik etorri zaigun kanta eder hori? ■ *Endriko Knörr.*

Urduri eta larri

Hitz hauekin definienez orain eta hemen Tolosaldea: urduri eta larri da. *Sarriok* kezka sortzen du. Honen inguruko enpresa asko eta milaka langile langabeziaren zuloan sartuak daude. Zorren berri alderdi guztietatik entzun dugu. Jende asko ari da zer gertatu den galdezka. Nora joan dira holako dirutzak? edo zergatik ez dira etorri hemen behar diren milioi horiek? Jestio edo administrazio txarra? Honen ondorioak jasan behar dituenarentzat erantzun eta konponbide egoki guti.

Enpresa tiki asko azken kolpe honekin betirako desagertzeko zorian geratzen dira. Baserrira utzi eta kalera joan den zenbait langilek etorkizuna beltz dakusa. Zenbait herri beste lan posturik gabe geratu bide da enpresa handi horrek bere inguruan besterik nahi ez zuelako.

Hemendik dago herri batzuen bizitasuna edo betirako isilbideetan geratzea. Lan arazo honek herriaren hazkundera eta kulturaren influentzia izango du. Diruak izan du jendearen erakarmena, eta dirua izan da kulturaren lehen urratsak emateko eta jarraitzeko bultzagile garrantzizko bat. Ez dira, beraz, lan postuak bakarrik *Sarrioren* in-

guruan krisian sartzen direnak. Herrigintza eta hezketa osoa ere bai. Eta honek urduri eta larritzen gaitu. ■ *Antonio Iraola.*

Alkoholismoa, gizarte arazoa

Alkoholismoaren arazoa benetan larria da gure gizartean. Are larriagoa Euskal Herrian. Estatu mailan populazio alkoholikoa %2tik %3rako da. Bizkaian, gehiago, %5ekoa. Are gehiago Barakaldon: %68koa. Ikaragarria da.

Datu hauk Fernando Marquinez bilbotar mediku psikiatra batek eginikako estudio berri batetik jaso ditut. Bistan da datu hauen aurreko lehen konklusioa: arazo honi lehenbailehen draga jarri behar zaio. Baina nola? Ez, noski, alkohola igotzearekin eta telebistan propaganda debekatzearekin bakarrik. Gizarte moldaketa berri bat eskatzen da, ohitura berri batzuk, inguru desberdina. Marquinez-ek aipatzen duen puntutxo bat azpimarratu nahi nuke nik hemen:

«Si una persona no tiene dónde esparcirse, si no dispone de actividades deportivas, culturales o recreativas que le satisfagan. Si en vez de encontrar zonas verdes, cada dos pasos ve una taberna... El medio, la situación es propensa a que ese individuo entre en los bares y se habitúe al vino y al alcohol...».

Taberna gutiago eta kultur etxe gehiago, esaten zuen besteak. ■ *Unai Nabea.*

Nikaragua eta beste...

Aspaldian ezaguna zaigu Nikaraguako herriaren samina Somozaren hatzapar otsotietatik libratu nahian. Nobela dramatiko bat irakurri edo jarraitu ohi dugun bezala, azkenerako ohitu egin gara hango berrien entzutera eta irakurtzera. Egunkarietan agertu den zenbait gertakizun, agintea eskuetan dutenen jolas entretengarri bezala eman zaigu. Batzuen humilapena besteen asegarri eta pozkarri gertatzen da. Gutxi batzuk nahi duten guztia egiten bait dute lege eta giza eskubide guztien gaindi. Ezin daiteke uler, bestela, kaleetan zauriturik daudenak gasolinaz igurtzi eta guardia nazionalak erre-tzea; edo atxilotuei egiten zaizkien torturak, besoak moztuaz edo ez-tarrian ebaki bat eginaz, mihina handik atera korbata baten antzera eta zintzilik utzi sadismo guztiaz. «Homo homini lupus» esan zuenak asmatu zuen; eta agian, hau esan zenean baino egia handiagoa dateke gaur. Gaizto izateko gaitasuna norainokoa dugun pentsatzea zaila egiten zaigu.

Are saminagoa da oraindik holako egoera batetan bizirik kanpoko inork ez jakitea eta ez jakin ahal izatea. Holako zenbait diktaduraren pean daudenek nolabait salatu nahi dute publikoki beren bizi ezina. Sarritan publiko honen jakiteko mediorik ezaren eta beste batzuen ixiltzeko interesen biktima izaten jarraituzera kondenatuak egoteak min handiagoa damaie. Eta honela odolpotzu asko ezkutuan geratu da. Batzuk tiroak harmaz botatzen dituzte. Beharbada disimulorik gabe eta odola azkar ateratzeko moduan. Baina sarritan hau dena eragina da. Tiro hauen atzetik ba daude beste batzuk askoz ere intelijente eta dotoreagoak; hitz eder eta nahastuen artean herriari zurikeria eta zupaketa ederra egiten dihardutenak. Edo, harmaz bakarrik hil ote daiteke gero herri bat?

Ba dakigu parlamentuan ez dela inor hilko tiroka, baina han egingo dituzte herrialde batzuk deusezteko edo txikitzeko legeak. Han ere haundiek indarra dute eta errespetoa bestek ikasteko utzi. Handik zuzendutako eztenkadak berehala datoz herriaren sentimena ukitzera. ■ *Antonio Iraola.*

«Famak kurritu zuen...»

Behin eta berriz, han eta hemen, Bergarako Bilkuran eta egunkarietan, entzuna genuen: Euskaltzaindiak amore ematen ez bazuen, euskal Akademia bat sortuko zutela beraiek. «Beraiek» Kardaberaztarrak dira; eta Euskaltzaindiaren ordez sortu nahi zutena, Estanislao Urruzolaren hitzetan, «Euskal Erriaren Zaindia (edo Izkuntzaindia)» (sic).

Ba, ez. Urriaren 19ko HERRIA ipar aldizkarian irakurri dugunez, holako Akademiarik ez sortzea erabaki da. Hona albistea:

«Famak kurritu zuen zenbait hego-euskaltzalek nahi zutela muntatu akademia berri bat euskaltzaindiaren kontrakoa.

Xede horri buruz, erran daukutenetz, egin da Tolosan bilkura bat eta bozak eman dituzte ea komeni zen bigarren Akademia horren muntatzea. 27-k baietz ihardetsi dute; 7-k ezetz. Hain xuxen, zazpi horietan Manuel de Lecuona eta Berrondo jauna izanki, don Manuel nahiko zuten 27-ek buruzagi, eta don Pedro idazkari. Ikusiz hauiek ez zutela saltsarik nahi, denek uko egin diote bigarren Akademiari».

Baina hau idatzita gero, beste fama batek kurritu du. Baietz, Euskeraren Akademia sortzea erabaki dela jakin dugu berrikitan. Akademia? Antieuskaltzaindia da hau, eta ez besterik. Da, edo izan nahi luke. Ikusteko bait dago honen etorkizuna, lehen ere bazuten «Idazleen Eskola (?)». Gauza batek ez du zalantzarik: nahasbide izango da. Guztion zoritxarrerako, gure ustetan. ■ *Joan Larrinaga.*

Noiz arte honela?

«Kilometroak 78» Zubietan eta «Ikastolen Ibilaldia» Erandion berrikitan ospatu dira, egun berean biak, urriaren 2an.

Hor ere ikusi da. Harritzekoa da gure herriaren mobilizazio-ahaltasuna, dinamika, inizatiba. Zenbat jende antolatzeko, zenbat jende parte-hartuz! Ekintza bakoitzean inguru osoa mobilizatzen da hemen: enpresak, artistak, idazleak, intelektualak, kantariak, bertsolariak, deportistak, elkarteak, herri osoa. Gogo onez parte-hartzen du jendeak, eta gogo onez dirua ematen ere...

Baina jendea nekatzen hasia dago. Izerdi gehiegi eman du herriak, dirua parra parra eman du. Eta bitartean, aginte publikoa non dago? Berari dagokio eginkizun hauetako asko eta asko finantziaztea, eta ez zuzenki herriari, honek hari horretarako eman bait dio aurretik dirua.

Gure herri-bizitza sanotuz badoa, gero eta bakanago gertatu behar-ko dute helburu hauekin egindako ekintza-mota hauek, noski. Aginte publikoari bere erresponzabilitatea, bere erantzukizuna bete dezala esijitu behar zaio lehendabizi, eta gero herriari dirua eskatu.

Ez gaitzezen «populismoan» eror, ez diezaiogun erraztasunari amore eman. Aginte publikoari zor diguna eskatzean eta agintea eskuratzetan datza gure burruka larria. ■ *Joan Alzibar.*

F. Belaustegigoitia: euskaltzale gartsu baten zantzua

Endrike Knörr

Herri bat kolonizatzeko, haren nortasuna desegin eta birrintzeko, kondaira lapurtu behar zaio, ezer baino lehen: herri horren egiteak eta gertaerak itxuraldatu, hau estali, hori gezurtatu, beste hura nahastu.

Zer esanik ez, euskaldunok geure kondaira ezagutuko bagenu, ez geundeke oraingo egoeran. Hasteko, ez genituzke liburu horiek onartuko, onenean konpartsa barregarri gisa agertzen garen eskola- eta bestelako liburuak.

Euskal Pizkundera zinetan eta benetan nahi badugu, lehengo eta oraingo ondasunak bildu behar ditugu. Egiteko zaila, askotan, baina nahitaezkoa. Eta bildu ondoren, zabaldu, ezagutarazi, inoren golkoan soilik geldi ez daitezten.

Jakingarri bat ekarri nahi nuke «JAKIN»eko plaza eder honetara, llaburki bada ere. Bestetan luzazago aritua naiz¹.

Federiko Belaustegigoitia Laudion sortu zen, 1876.ean, hamabi anaiarrebaren artean bigarrena. Familia berehala aldatuko zen Bilbora, Laudiora udaldietan itzuliz.

Deustuan ikasle zelarik, Sabin Arana ezagutu zuen eta oso goiz berarekin lanean hasi. *Baserritarra* aldizkarian argitaratu zuen artikulu bategatik gartzelaratu izan zen.

Euskaraz ez zekien umetan: garai hartan Goikoplaza eta Gardeako auzoetan soilik hitz egiten zen euskaraz Laudion. Baina laster ikasi zuen eta bere bizi guztian euskararen alde salatu.

Arana eta Olabideren moduan, Urduñako Jesuitegian izan zen ikasle. Gero, El Escorialen (Bonifazio Etxegarai eta Manuel Azaña eskolakide zituelarik), Deustuan, Zaragozan eta Madrilen, Filosofia eta Zuzena karrerak burutuz.

1907.ean, Bilboko Arenalean, Belaustegigoitia odoiberoak, manifestaldi batetan. «Hil bedi Espainia!» oihukatu zuen. Ondorioz, iheska eta izkutuan, Durangora joan zen... eta bertako neska batez maitemindu. Handik hilabete batzutara ezkondu ziren.

Durangon bizi izan zen, guduteko sarraskira arte: orduan alabatxo bat hil zitzaion bonbaketan. Durangoko zinegotzia izan zen zenbait aldiz eta bertako Batzokian euskal irakaslea.

Euskaraz ikasteko ikasbide batzuk moldatu zituen, baita musika eta bestelako jolasak (loteria, esaterako) erabiliz.

Horixe izan zuen bere kezka nagusia: euskara zabaltzea. Baina euskara zabaltzea, aurrena euskara *bat* behar zela ongi ohartzen zen Belaustegigoitia. Gai horretaz liburu bat eta artikulatu batzuk idatzi zituen.

Jakina, ez zen zenbaitengan horretarako giroa. Belaustegigoitiaren *La unificación del euzkera* liburuskari Arriandiagak eta (hots, «Euskeltzale Bazkuna»-k) gogor eraso zitoten. Hauen ustez, abertzaletasun hutsa izango zen euskara salbatuko zuena, bere euskalkiak eta guzti. Belaustegigoitiak maiz esaten zuen gero: «Utikan! Orduan, gerra honetan (1914-18koa zen) Frantzia abertzaletasunak salbatuko du eta ez kanpoei?».

Ez zen batere biguna jende epelarekin. Epeak jartzea iduritu zitzaion biderik hobereana⁴ eta abertzale erdaltzaleei gupida gabe erasotzen die:

«Los vascos sin euskera, en especial los llamados patriotas... viven en pecado habitual, en lucha contra el idioma patrio; son como los soldados del erdera».

Orain bezala, lehen ere ez ziren falta aitzakiak, euskaraz ez jakiteko. Erdal giroan bizi izatea, esaterako. Hara zer zion Belaustegigoitiak:

«Erdal giro eta ingurua badugu, berdin da. Ez dut ezagutzen ingles familia bateko seme-alabarik, sorterritik urruti bizi arren, inglesez ez dakienik».

Erdal eskoletako fraide, monja eta maisu-maistren kontra esaten zituenak ere ez dira makalak. Orobat erdal funtzionarioez haren hitz zorrotzak: «ijito zibilizatuak» deitzen zituen.

Federiko Belaustegigoitia gizon praktikoa zen, beti ere euskaraz egiten zuena, eta garbizalekeriaren etsaia:

«...y se quiere lograr la propagación del euskera mediante una Literatura difícil y oscura, de mínima circulación y en competencia ridícula con la Literatura erdérica que nos inunda, abundante en escritos interesantes, de lenguaje popular claro y uniforme, en los que nadie se empeña en llamar con nombres nuevos y desconocidos a la iglesia, a la misa, ni al cura, ni al altar... ni a la calle, ni al reloj, ni a la hora».

Ez zitzaion orduan komenigarria iruditzen euskara hutsezko egunkari bat sortzea. Hobe erdarazko egunkarietan euskaraz kazetaritza bizia egin eta ez «algunos cuentos, Vidas de Santos o biografías al azar, sin relación alguna con el día, disquisiciones filológicas y comentarios de alguna noticia trasnochada».

Hona non gizona, ia ezezaguna, eta egun darabilgunaz hizketan, abertzale eta euskaltzale gauza bat eta bera direla pentsatzen zuena. Gure arteko askok ez bezala.

E. K.

¹ Ikus *Vida Vasca*, 1978, eta *Euskera*, XXIII, 1978 (urtarriletik ekainera), idazten ari naizenean moldiztegi dena.

² «(Fulano de Tal) ...me comprometo a demostrar dentro de... (seis... doce meses) a partir de esta fecha, mi suficiente conocimiento... ante el tribunal de Juventud Vasca de Bilbao, el Batzoki o Sociedad de Tal, o B. B. B. Caso de no comparecer para esa fecha, pagaré una multa de pesetas (2, 5, 10, etc.) que dicha entidad destinará a premios y otros gastos de los exámenes de euskera».

Hau *Euzkerazko ikasbide erraza* deritzan liburuan irakurtzen da.

JAKIN

aldizkaria • Gral. Mola, 23 1.º esk. • Donostia • tel. 27 17 13

Urteko suskripzioa: 900 pta. Alea: 275 pta.

JAKIN

Filosofo berriak

X. Andonegi M. Pagola
J. Azurmendi J. Sudupe
Idazkaritza J. M. Torrealday

F. Belaustegigoitia

Euskararen batasuna

Urria
Abendua



1978

Bilbo Handia ala Bilbo munstroa? • Nikaragua eta beste •
Sarrío: urduri eta larri • Betasunaren erasoak eta prentsa •
Kantutegi bat dela eta • Alkoholismoa, gizarte arazoa